

YAKIN


The word 'YAKIN' is written in a bold, hand-drawn, sans-serif font. Below the letters are several black dots of varying sizes and a single thick horizontal line, suggesting a stylized ground or shadow effect.

(PRO .MANUSCRIPTO)

A R A N T Z A Z U N

EGUERRITAN 1956


2^o gn. zenbakia



Gabaren argi-iturri
izarrak ditugu.
Zuaitz zaararak uneoro
azteen eredu.

Joanen erakutsiz
gogoa berotuz,
aiek erein-landak
dira lertu kimuz.

Azkue'ri gorrarrez
diogu eskeintzen.
Bere lan eta nekez
bere diñ gaitezen!



ARKIBIDEA

TEOLOGI-SAILLA

AITA SANTUAREN ITZA: Balerdi (beneditarra)	3
PSIKOANALYSIS TA ANIMAREKIKO JARDUNA: Etxebeste (prantzis- kotarra)	26
LAGUNARTEKO MEZA: Baztarrika (beneditarra)	37

FILOSOFI-SAILLA

MARCELINO MENENDEZ PELAYO, JAKITUN KATOLIKOEN EREDU: Gaztaniaga (apaizgai)	52
ERLIJIO-SENAREN ESNATZEA: Guarrotxena (prantziskotarra)	61
GIZARTE-ZALEKERI-ARAUKETA: Aranzadi (sakramentinoa)	66
ADIMEN GOITARREN BEREZITASUNA: Joxe-Austiñ (pasionistea)	72
LANARI SARIA ZOR: Otaegi (sakramentinoa)	81
GEROARI BEGIRA: Migel Santiago (F. S. C.)	88

KULTUR-SAILLA

PIO BAROJA ZANA: Unzurrunzaga (prantziskotarra)	91
EUSKALDUNAK PARISEN: Irola Arnand (beneditanoa)	98
HUNGRIA DALA-TA: Bastarrika (prantziskotarra)	101
AITA SANTUAREN DEIAREN OIARTZUNAK: Bereziartua (prantzisko- tarra)	111
JACQUES LECLERCQ'EN LIBURU BATI BURUZ: Abelin (karmeldarra)	117

ANTZE TA ELERTI

HUGO WASTEN IXIL-GORDEA: Zurutuza (prantziskotarra)	123
MOZART: Iturria (prantziskotarra)	131
JUANES EDO BAL.. KURUTZERAINO: Etchehandy (beneditanoa)	138
TO TA NO (olerki): Berasaluze (prantziskotarra)	145
ZURE OROIZ... (olerki): Muxika (sakramentinoa)	149
BAKARKA... (olerki): Bereziartua (prantziskotarra)	150

SASKI-NASKI

Objeto ta kizun.—“Euskaldunberri”.—Euskerazko Aita Gurea dala-ta...—Batasun-izpiak.—“Bide izkutua” (“El camino de las llamas”).—“Kristiñau Katezismoa”.—“Euskal Gramatika Llabor”.

ELKAR-IZKETA

Milla esker!—Iritziak: Mitxelena, Zaitegi, Goikoetxea, Berriotxo, Zabala, Donosti'ko apaizgaiak, Lazkao'ko beneditarrak.—Ordain-kontua.—Idazlan-kontua.

ATARIÀ

Egunak goiz-urratze argi ta illunak izan oi dituzte. Nik "Yakin" aldizkariari be-ti egun senti bizigarriak nai nizkioke.

Lankidetasunari begira bagenezaiò, ta batez ere, zenbaki ontako lanak azter ditza gunean, luma berriaz oartzan gera. Idazle zaa-rrak, beaiei zegokien tokia, besteei eskeiñi di ete, lankide asko izanda aspergarri edo luze-egi gorta etzedin onako zenbaki au.

Agurrik zintzoena ar bezate "Yakin" ganatu zaizkigun idazle gazte berriak. Zorion agurra ta eskerrona!

Jakin dezagula idazle ta irakurleok, lanik emankorrenetako bat burutzen diardugula. Elkartzen ari gera euskal apaiz eta prailega-iok, jokaera ontaz elburu bikaña zertzen ari generalarik. Alkartasuna! "Batki jokatzeak in-darra du ixurtzen".

Bikañago, argiago, sakonago atera-tzen salatu gera. Denon arlo dugu aldizkari au goi-maillatara jasoaraztea ta gero ta ga-llur gorenagoak gaintzea.

Izango al du oraingo onek lengoak bezain abegi beroa!

TEOLOGI-SAILLA

AITA SANTUAREN

ITZA

ITZ-AUREA.— Nundik eta nola asi? Naiko lan ta buru-auste izan det erabaki egoki bat artzen. Nik uste bezela, gure aldizkingi "YAKIN" illabetero ageftua izan balitz, ainbestean moldatuko nintzan gai oni buruz nik asieran nuan naia burutzeko. Bañan, lau illabeteen bein agertzeak nere naia aldatu-arazi dit. Nere gogo, Aita Santu Itza'ren befi ematea zan; ots, itzaldi, eskutiz, dei... itz batean, Aita Santuaren aotik edo eskutik sortzen ziran lan guztien befi eman, bakoitzari laburpen mots bat jariaz. Au ordea, ezin deike orain, amairik gabe, izango bailitzake.

Izan ere arigafi benetan baidegu Aita Santuak egiten duana! Bi egunean bein beintzat, badu bere itzaldi, eskutiz edo ofelakoren bat, eta bear bada gelago. Urutira joan gabe, aurtego urillan ogeiren bat zenbatu ditut.

Arigafiena ez da ordea, "zenbat" itzaldi eman edo zenbat eskutiz idatzi dituan jakitea. Askoz ere arigafiago beste zerbat degu: "nori" eta "nola" dagian lan jakitea.

a) Nori itz -egiten dion:

Bere itza ez dute apaizak bakarik entzuten, ez; jakintsu eta ez jakiñak: langilleedo jakitunak; afantzale naiz mendi-goizale; esnetzaille naiz ola-gizon; eta abar... Danontzat izan oi da bere itza.

b) Nola mintzo oi da:

Guztiei mintzo oi zaie, eta guztiei, au da arigafi benetan, maisukiro. Guztiei zuzenbide bikaiñak damazkie; as-

kotan gañera, bide beñiak ere irikitzen, asmo beñiak piztu-
arazten. Guztiei gañera, aita on bezela mintzo oi zale. Ga-
xoak eta aulak badakite ongi artuak izango dirala beti; i-
txaropena galdua dutenak, an arkituko dute.

Bañan, badaki noizean beñ, bear danean, gogor edo
iñoren bildurik gabe itzegiten; adi bidez, Hungarian, Poloni
eta Suez'engertatuerei buruz itzezin duan eran. Askatasuna
eta pakearen alde mundu oso osoari zuzendu zaio azaroaren
ogeian. Garai bateko igarleak bezela itzezin digu egun aue-
tan, gizonen ankerkeriak negartuaz eta San Gregorio vandalo-
en aurrean eta Kalisto irugañena turkoen aurrean gogora eka-
riaz.

Beregatik esan dezakegu Kristogatik esan zana:"
"Transiit beneficiens". On egiñaz igaro zan. Aita Santu au
bai benetan Kristoren ordeko degula; obeto esateko Kristo
bigañen. Entzun dezagun beraz, bere itza, Kristoren itza ba-
litz bezelaxe, eta bear duan begirune arekin irakuri.

Nere asmoaz itz bat:

Esan bezela beraz, alen neufian, Aita Santuaren i-
tzaldi, eskutitz...guztien beñ eman nairik aurreko lau ille-
koen beñ ematea asmo det; bañan ez noski bakoitzari bere la-
burpena emanez. Guztiak -neregaraño eldu diranak beintzat-
asalduko ditut, bat bestearen atzean. Bañan bakañen batedo
besterialaburpen edo azalpena ez diot emango. Guri, apaizgai
geranori ondoenik etofiko zaizkigunak, guk ari ditugun i-
kastolekin ondoenik batzen diranak. Ez det nik ofekin beste
itzaldi, eta eskutitzetan Aita Santuak erabiltzen dituan gai-
ak gañantzirik ez dutela guretzat esan nai. Ez. Badute, eta
aundia, Aita Santu berak erakusten digunez. Apaizek, Eleiz
gaietatik kanpo, eguneko jakintzak erakusten digutena jakin
eta sakondu beañen dira, auek egingo dizkiguten galderari
erantzun alizan dezagun. Gañera, gure sinismenarekin, Elei-
zak erakusten digunarekin ongi etortzen diran edi ez ikus-
te añen; zuzendu beañik duten edo ez, zillegi zaizkigun edo
ez.

Beraz, nik oraingoz, egingo dedana au da: urteak
amabi illabete dituala jakinki eta YAKIN urtean iru bider
beterik ateratzen ez dala, urtea irutan jari det. Lai illa-
bete sartuko dira beraz, bakoitzean. "Aita Santuaren Itza"

rako illabeteko bakoitzetik itzaldi eskutitz...bat edo besterik ez det artuko agertzeko. Besteak, ori bai, azalduta-koaren ondoren besteak oro jafiko ditut,baño laburpenik eta ezer gabe; zein egunetan nori Aita Santuak itz egin dion.

Gaiari buruz:

Aita Santuak bere itzaldi,eskutitz...etan erabili dituan gaiak edotarikoak dirala esan genezake. Izan ere bizpide ain ezberdiñak dituten gizatalderi mintzo bai zaié. Apaizeri dagozkien gaietaz mintzo zaié; langilleei berari dagozkienetaz; agintariei, berdin; arrantzaleeri ere bai,erriari bereetaz; sendagilleeri zer esanik ez. Erromara joan eta Aita Santuari agertu bat egin diotenak oro,bere itzaren xamurtasuna bere biotz belarrietan gozatuko etzuanik ez det uste izango danik. Ezta ere Erroman izandako garrantzi zerbaiteko batzar edo bildurarik guztion Aita degun gizon onen zaletasun itzik artu ez duanik.

Goazen orain,beraz,Itz au agertu,Itz au mamitzera, eskatzen duan begirunearekin.

D A G O N I L L A

MIN-BIZI aurkako Batzorde Nagusiari. (19'an)

ITZALDIA.

"Min-bizia" egunetik egunera eriotz geiago egiten ari da,alderdi guzietara zabaltzenago da;eta oraindik jakintsuak,ikerketa ugari eta itxarkorrak egin arren,ez dira iritxi nundik datorkigun jakitera. Zerksortuarazten du? Ainbeste ta ainbeste era artzen bait ditu agertzerakoar. Caldera oni ez diote oraindik azken itzik eman. Bañan Aita Santuak bere inguruan bildurik dituan jakintsuerei dionez,azken itz ori asmatzekotan gabiltz. Eta bitartean? Lenik agerten dien,asierá asieratik,ots,min ori nabaitu bezain laster azaldu ezkerro,garaitzea balegokela eta izkutu izkutuan luzatzea kaltegarri gaxo berari zaiola. Zenbat eta azkarrago azaldu, orduan eta errezago omen da ta sendatzea. Zenbat eta geiago izkutuan eduki,orduan eta okerrago.

Eta gero argikiro agertzen die nola jokatu bearre-

an diran gaxotasun orren menpeko diran eriaurrean. "Benetan min-biziaren jabe dan baten aurrean dagola ziur ikusitakoan oneri begiratu bearko dio: sendagaiak nolaz erabilli? edotarietako sendagaiak erabilli baño len...aztertu bearko du gizona gizon danez, bere batsun, bere nortasunean; ez bakarrik gizona miñaren menpeko, baita ere...onek gizartean duan egitekoari buruz".

Eta zuzenbide jator batzuek eman ondoren, amaitzen du esanaz: "...zenbat naigabe gutxiagi izango ez ote lirake min-bizia zerk sortzen duan jakiñen balitz. Otoitzean eskatuko diot, arren eta arren Jaungoikoari, zuen biotzak ergitu ditzala eta zuen adimenak azkartu asmakizunez beterik, jakintzak zertxobat geiago jakiñez aurrera anka eman dezan; bañan batez ere, lan auetan ari zeraten guztiontzat askotan aspergarri eta ondorio gabeko dan lan ontan aspertzeke jarraitzeko eskerra, eskatuko diot Altsuari. Norbait aspertuko balitz oar bedi siñismenez eta Jainko lagun urkoarekiko maitasunez bizi dan gizonak bere lan guztiak Jaunari eskeintzen dizkiola eskari eta otoitzaren bidez".

Ara emen Dagonillako beste Itzaldiak:

- (2'an) Baserritar Gaztedi Katolikoaren I Erriarteko Batzarrari. Itzaldia.
- (4'an) "Vedane" Kartujo etreko Gerardo Ramaker Nagusiari, Etxe Asieraren Bostgarren eun-urte betetze egunean. Eskutitza.
- (29'an) Barcelona'ko Sendagille Batzarreko Abestaldekoeri. Itz bi.

I R A I L L A

Liturji-Pastoral buruz, Asis'en izan zan Batzar Nagusiari. (22'an)

ITZALDIA.

Ez dot nik uste "Yakin" aldizkarian idazten asiak diranetatik iñor izango danik, Italia'ko erri txiki baña polit dan Asis'en Urrillaren 18'tik 22'era bildu zan Batzardearen berri ez duanik. Apaizgai edo Apaiz diran oroen-

tzat garrantzi aundikoa eta ondorio bikañak emango dituana, bait degu;ots,Eliz-otoitz eta Gotzaintza buruz Asis en izan zan Batzar Nagusia.

Liturji gaiak egun egunekoak ditugula jakiteko, beste errialdeko aldizkarietan, batez ere Prantzi, Belgika eta Alemanikoetan, begiratu bat ematea naikoa degu. Dom Geranger izan zan gai auri astindu aundi aundia emateko Jaunak piztuzuan gizona. Orduetik onera, zer ez degu ikasi? Zer aldaketa ez digutu txalotu? Dom Geranger berak ere amestu ote zuan orduan, berak egun aietan pizten zuan izpia, urte gutxi barru, su, mundu guzira zabalduko zan su biurtuko zala? Bañan, liturjiaren berpizte edo Eleiz-otoitz onen berpizte, onen asiera, zabalkunde eta gaur nola dijoanen berri ematea nere elburu ez izanik jakin nai lukenari bi idazti (ainbesteetatik) aurretuko dizkiot. Bat: "Histoire du mouvement liturgique" dom Rousseau'k idatzia. Bigarrena: "Historia de la Liturgia" Righetirena. Bi idazti auek gauz guzti auen berri sakonki eta maisuki ematen digute.

Liturji alde, Liturgia erriari sarrerazteko, uler-arazteko, zenbat lan egin dan azken urte auetan ere badakigu, eta txalotzen degu benetan. Orain arte erria alde batera utzita bezela genduken gure Eleiz-otoitz eta Elizkizunetatik. Zergatik ori? Ez, noski, Eleiz-otoitza berez erriarentzat ez dalako. Erriak ez luke egon bear "ikusle bezela" eleizkizun batean. Orain toki geintsuenetan ikusi oi dugun bezela. Ez! Mezetan batez ere, erriak "egiteko" bat badu Apaizarekin bat. Egiteko ori ziur ziur zer dan jakitearren lan aundiak egin dira, aldaketa ikusgarriak ere bai, eta egunetik egunera aundiagoren zai zai gaituzute. Galdera guzi auri erantzun egokia ematearren Eliz-gizon jakintsuenak batzarretan eta biltzen ikusten ditugu. Oraindik asko ez, il onen 18'tik 22' era Asis en izan degu garrantzi aundiko LITURJI-PASTORAL buruz Batzar Nagusi bat. Eleiz artzai ugari, Eleiz gizon jakintsu... bildu ziran gai auetaz itzegin eta gauz asko erabakitzearren.

Dakigunez itzaldi bikaiñ, agerpen sakon liturjiaren alderdi geienak aztertuak izan ziran. Eta jakiña, nola ez! Aita Santuaren eder bat ere izan zan bukaeran. Asis en bildu zan LITURJI-PASTORAL'eko Batzar Nagusi onen elburua au zan:

"Pio XII garrenaren menpean liturjiaren berpiztea". Enoa ni orain Aita Santu onek gauz ontan egin duan lan guzia azaltzea; nere asmoa ez da, dakizutenez, ori. Sar nadin, beraz, batzar nagusi oni Aita Santuak zuzendu zion itzaldiak zer di-on ikustea:

Au ere, bere beste itzaldi guztiak bezelaxe, erakutsiaz betea. Eleiz-otoitzaren barru barruan, ustekabean sartzen gaitu. Egi esateko, Aita Santuak itzaldian erabili digun gaia, ez degu, Asis'ko batzar nagusi ortan aztertu diranetako bat. Bañan, ez du orrek esan nai garrantzirik gabekoa degula. Ez. Aundia bait du, ikusiko dugunez berealaxe.

Aita Santuak liturjiaren berpizte ori Jaunaren gaurko gizonarenganako maitasunaren ezaugarri bat edo, baita ere gizonak ezkutuki arrigarri auetan murgilarazteko Goteunaren bere Eleizara joan-etorri bat, degula esan ondoren, liturjiak Eleizarekin lenik, eta Jaunarekin gero zer ikusteko duan azaltzen digu.

LITURJIA eta ELEIZA

Liturjiaren Eleiz "osoaren" egitekoa degu ez alkarte bakarren bat edo besterena. "Sacra Liturgia integrum constituit publicum cultum Mystici Iesu Christi Corporis, Capitis nempe membrorum" (AAS a.39(1947) p.528-529). Ez da, beraz, bereiztasunik egin bear Eleiz al-tzoan. Eleiza ez dute egiten apaizak bakarrik; eleiztar guzi-rekin batean baño eta bakoitzak, bai Apaiz bai beste gizon emakumezkoak Jaunagandik artu duten oro jarri bear dute. Apaizek bere ditu Aita Santuak "depositum fidel" eta "depo-situm gratiae" izendatzen dituan altxoarrak. Lenengotik, ots, siñismen altxorretik idazteun eta ao-jakintz edo tradizioa-tik (antziñate) sinismen ezkutukiak arturik liturjian sar-erazten ditu, batez ere Irutasun Deunari eta Gizakunde eta Eroskundeari. Bigarrenetik, ots, Jaunak Bidalieri eman zien "depositum gratiae" edo ortatik berriz, esker zerutiarra da-maigu, baita ere bataioa, etortzaren bidez gure erruak barka-tzeko aitortza eta apaizgintza ere bai. Auek denak liturjian dira burutzen. Eta jakiña, apaizak liturjiaren bidez, guri Ja-inkoaren egi eta grazia ematen badigute, berak artu bearrean arkitzen gera, al degun guztia egin bere alde, eta gero berak

agintzen diguten bezela, bizi.

Len esan degu liturjia Eleiz osoaren egitekoa degula; bañan gogoan izan bear degu liturgia ez dala Eleiz osoa. Izan ere, Eleizak lagundi danez, liturjiaren bidez agiri-an ematen dion gurpenaren ondoan, izkutuan ere Jauna gorstu eta gurtu bait dezake.

LITURJIA eta JAUNA

Mezaren liturjiaz mintzo zaigu bigarren alde ontan, eta noski, Jaunagaz, bera bait degu emen Apaiz eta eskeiñi. Aita Santuak iru atzalpen egiten dizkigu gai ontaz:

lenik, Jaunak zer dagian liturjian. Sagaratze garaia degu Mezaren mamia. Entzun ditzagun Aita Santuak jartzen dizkigun itz berak, Trentzo'ko Batzarretik artuak: "In divino hoc sacrificio, quod in Missa peragitur, idem ille Christus continetur et incruentum immolatur, qui in a a Crucis semel se ipsum cruento obtulit". Itzuliaz: bein gurutz gañean min ikaragarrien erdian il zan Kristo berbera degu, gaur aldareko opa maiean, mezerdi garaiean iltzen dana; emen ordea, odol ixur ketarik gabe. Kristo bera degu eskeiñia eta baita ere eskeintzen dana. "...Idem nunc offerens sacerdotum ministerio" apaizaren bitartez, noski.

Mezerdia, sagaratze garaia degu Mezako unerik aundiena; Kristo orduan, ots, apaizak: "au da nere gorputza eta au da nere odola", esaten duaneantxe, eskeintzen bait da opari bezela.

Ondoren, Kristo nola dagoen opa maian. Kristo ogiardean antz-irudipean arkitzen da, bere gorputz-odol, arima ta jainkoatsunarekin bat. Jauna era ontan arkitzen eta mendi batean izkutatu (Jn. 6, 15). Etzuten txoratu Erramu igandeko osanak; ez da ere okildu gurutz gañeko "crucifige" deadarrak. Bietan gizonki jokatu zan".

Kristok zer erakusten zuan:

"Kristo nola mintzo oi zan aztertu ondoren zer erakusten zuan bere itzaldietan azaltzen digu. Kristok guzien gañetik gogo aundi eta biotz garbia eskatzen zien entzuleeri, berak esana ongi ar zezaten. Biotz garbia, otx, dollorkeririk eta azal-uskeririk gabea; gogo bizia Jaunaren jaurerriaren

onerako, beraz, zesaiena siñesteko eta betzeko.

Orrela gerturik zeuden biotzetan erakutsi arrigarrrienak ixurtzen zituan. Bere zeruko Aitarekin egunetik egunera lotuago zedin lokarri batez batu nai zituan. Eta auzeri alde batetik bildurra erakusten zien bere Aitari buruz eta bestetik neurri gabeko maitasuna. Jesusen itza entzunik gizonak biotza berarekin batuago sentitsen zituten; bereganako siñestea, bere maitasunari buruz uste osoa, beragatik erabat eskeintzea, eta berak egiña egiteko asmoetan pizten zituan. Kristo degu itzaldien mami. Kristo gabe itzaldirik ez dago. San Pablok orixe bera digu dezaigunean: "gure itzaldia Kristo degu eta au gurutz-iltzatua."

Ortik kanpo, eskeintz aundien artean (zerua, betiko bizitza, eukaristia, eta abar...) bere eginbearrez mintzo oizitzaie. Batez ere, otoitza, biotz barruko apaltasuna, arrokeriaren aurkako; egonarri eta gogo ona jasan bearretan; lagunurkoarekiko maitasuna eta abar... itz batean, kristau zintzo bezela bizitzeko bearrezko dituan betebearrak erakusten zizkien. Eta Aita Santuak diones "...apaizak Kristok erakutsi zion bide beretik joan bear du, bere itzaldiak arnari ugari izan dezaten eta Kristoren gogozko ditezen. Kristoren antzera mintzatu mintzatu, Kristok erabillitako gaiak erabili..."

Bere itzaldi luzearen bigarren aldian Eleizaren egitekoa Jainkoaren Itza zabaltze ortan; nola burutu duan egiteko ori aintziñako garaietan eta azkenik, gaurko egunean egiteko orri buruz nola jokatu bearrean geran erakusten digu. Luzatzerik ez ta, itz batean esango det:

Eleizaren egitekoa Jaunaren Itza zabaltze ortan. Itz gutxitan garbi azaltzen digu: "Eleizaren egitekoa itz ori zabaltzean, Kristo berak egiña eta ark bezelaxe egitea da", lenengo aldian azaldu degunari jarraituaz; eta ori "esaten degunari begiratuaz, eta baita ere gizonak zintzo izateko Kristok eskatzen zizkien eta nai izan zuanari begiratuaz.

Antziñako garaietan Eleizak nola bete du egiteko ori:

"Eleizak Goteunaren indarrari esker, zabaldu du mundu zear Kristoren egi ori. Bere bitartez, lurra antzaldaturik utzi du, ez bein bakarrik gañera, asierati gaur arteraño. Eleizaren elburua itz ori zabaltzean gizona Kristau egi-

tea da, eta Jauna Egi, Bizitz, Grazi danez agertzea. Eta alde oni begiratzan badiogu, esan dezakegu Eleiza, orain eta beti egun egunekoa izan dala, tokiko oitura, biztalle, izkuntzetara jarriaz. Ori irxtearren, egia da burruka, gorroto eta neurri gabeko naigabeak jazan izan bear baitu ere.

Eta gaurko egunean?

Jakingo ote du Eleizak azken urte auetan ikusi ditugun era guztiatako aldaketa, naiz jakintz arloan, gizatiz-tirenean, asmakizun izugarrien aurrean, jakingo ote du Eleizak nola jokatu, au guztieri begiratu ta moldatuaz? Galder a garratza bañan erantzun egokia azkar eman bearrekoa. Ortarako, Aita Santu berak zuzenbide argi eta ezinobeago batzuk damaizkigu. Apaizari ere dazaigu: "Animen zaidari diranak, gaur eguneko jakintzak esaten digutena jakitea beartuak daude. Izan ere, auek, bakoitzak bere galderak egingo dizkigute, naiz geroari buruz, eta naiz goikoari buruz, eta erantzuna eskatuko. Jakingo aldegu galdera aueri erantzun egokia ematen?"

Azkenik, Aita Santuak ederki agertzen digu Kristo Bitarteko bagedu ere, Jainko ere degula, ots Jainkoaren Itza. Bere Jainkotasuna ez luke ifioiz Liturjiak izkutuan edo utzi bear. Kristo, egiazko gizon, bañan baita ere egiazko Jainko badegu.

Bukatzeke, Liturjiak zer ikusteko duan esaten digu, bai atzokoari buruz, bai biargoari buruz. Erakutsi eder batzuk damaizkigu: Ez itsu itsuan alde batera utzi lendik datorki -gun oro. On danari eutsi, bestea utzi. Gaurko egunean beriz Liturji gaietan ikustendeguna au da: aldaketa edo asmakizun gogo, naiz elizkizunetari buruz, naiz erri-izkuntzaren alde. Gero Meza Erriari begira ematea zetkegiten duan eta gainera Erriari begira Meza emate onek zenbat on lekarliguken adieraztera damaigu.

Itzaldi onen garrantzia, itzez itz emen jarri ba gengan obeto ikusiko zan. Bear bada, egunen batean...

=====

GOTZAINTZ-EGUNERATZE (Adaptación Pastoral) buruzko
Seigarren asteari(14'ean)

ITZALDIA

Au ere garrantzi aundikoa, batez ere gu, lekaide geranontzat. Itzaldi luze eta eder. Gu erriari Jaunaren Itza zabaltzeko jarriak gaituzute, Jesus berak esan baizigun: "Zoazte toki guztietara eta Berri Ona zabaldu". Bear bada lenengo ekiñaldia egiñik degu; bear bada, ez. Dana dala danok, teologilari izendatzen geranok, ortara goaz. Itzaldi au ere itzez itz irakurri bearrekoa degu. Erakutsi bikañenak damaizkigu Aita Santuak.

"Gaur eguneko gizona Jainko Itzaren egarri degu". Egarrri ori asetzeko Itz au erriari nola azaldu bear genioken esaten digu, toki, garai, gizoneri begiratuaz. Apaizen itzaldiak zer nolakoak izan bear duten adieraztea ematearren, Kristok zer eta nola mintzo oi zan azaltzen digu.

Lenik, Kristo nola mintzo oi zan; gero Kristok zer erakusten zigun.

Kristo nola mintzo oi zanari buruz:

Kristo bere itzaldietan, lenik bere buru eta itzaren jabe agertzen zan eta gogo guztiz Jainko itza zabaltzen zion: "Nik erakutsia, ez da nere; badali nuanarena baño. Beretik mintzo dana, aintza du amesten, bañan norberarena. Bidali duanaren aintzaren atzetik dabillena, ori bai dala egizale, beregan ez du tokirik gaiztakeriak". (M.c.8,2).

Bigarrenez animen onerako erabat eskeintzen da.

"Misereor super turbam". Gizalde onek kupitzen nau. Artzai onaren alegiak asko erakusten digu gai ontaz. "Ni naiz Artzai ona. Artzai onak bere burua jartzen du ardiak gaizkatzearren (Jn.10,1-12). Kristo ere gizonen ozerako bakarrik nekartzten zan, aspartzeke alde batetik bestera joan atorri ugariak ibilliaz, naiz Sinagogetan, naiz Jaunaren etxean, urgeldi inguruan, naiz itxasoan txalupa baten gañean, eta naiz mendietan; gaxoeri osasuna, eta ildakoeri bizitza emanaz; mirari ugariak egiñez gizonen bere itza onartu eta siñetsi zezaten; eta onela Jainkoaren Itza biotzetan errotu zedin eta arnari joriak eman zitzen.

Irugarrenez, bere Itza ongi edo gaizki artua izango zan ari etzion begiratzan; onek etzion ajolik; bere mintzal-diak gizonen ongi naia edo gorrotoa ekarrezaziko ziotenik bost zitzaion. Idazle eta Pariseutarren arrokeri eta aundi naikeria argi itsusten zituen. Agintari eta lurreko aundieri bildurrik etziela edonoiz agertzen zuan (Mt. 23, 1-36). Mirari aundi bat egin ondoren erriak errege altza nai izan zuan ba-tean, igesi jua zitzaion.

DONETASUN eta GOTZAITZA (Perfección y Apostolado)
buruzko Españiako Batzar Nagusiari (20'ean)

ESKUTITZA

Danok degu batzar onen berri. Madrid'en bildu ziran agorraren 23'tik Urrillaren 3'raño Gotzai, Apaiz, Lekaide, Lekaime eta beste Eleisgizontalde aundi bat. Bostfil-latara iritxiko zirala esan zan. Beren elburua? Gotzaintza gaurko egunean nola burutu eta donetasuneko goi-mailatara nola iritxi, bizitz on bat eramanez, apaiz zintzo erdi lekaide on izanik, eta ortara iristeko bide berriak irikiaz, aolku eta zuzenbide bikañak emanez. Eta jakiña, Aita Santuaren itza batzar ontan ere entzuteko zoriona izan genuen, eskutitz eder bat idatzi zien batzar lagunei azken egunean. Bertan Gotzai, apaiz, lekaide eta guzien batasuna txalotzen du lenik. Izan ere, arrigarri eta pozgarri ez al da Eleizaren Zaindarien artean batasun ori ikustea? Ondorio bikañak emango ditu, noski.

Beste askoren artean esaten digu: "Gozaintza, ots, lagunurkoari laguntza emate ori, alperrikako izango da, Jesukristoren jarraille zintzo direlarik, bere oituretan agertzen ez dutenak, siñismenak agintzen dien eran bizi ez diran eta biotza Goi-maitasunez urturik ez dituzten apaizengandik ez badator. Saiatu bitez, beraz, apaizak Jaunak eskatzen dien maila ori iritxi arren; eta ortarako, ototzaren maitale bitez, egunetik egunera aurrera egiñik. Oitura garbikoak eta eleizjakingaiak ikasi eta sakontzeko gogo aundikoak, egunetik egunera aunditzen ari diran bearreri, eskatu bezela erantzuteko gai izan ditezen".

"Kristau bizitzaren mamia Jainkoaganako eta lagunurkoaganako maitasuna Jesus berak erakutsi digunez; ez noski, nolanaiko maitasuna, ez; bañan benetakoa, barrutik datorkiguna, eta geldit egoteke lagunurkoari benetan laguntzen diona".

Apaiz eta apaizgaieri batez ere nola bizi bear du ten agertzen die: "apaizek bere bizi osoan beste edonor baño zuzenago eta zintzoago izan bear dira; guzien eredu direla-rik", besteen aurrean bizitz oneko agertzeko ordea, bere barne barnean ere orrelaxe izan bear dute; barnetik ez datorrena ez bait da egiazkoa.

Beste toki batean ere ederki adieraztea damaie apaizeri bidalitasuna apaiz izatetik datorkiela. Apaiz dan une bertatik, Gotzaintza egitea beartuak daude, ots, lagunurkoari bear duan guzietan laguntzera.

=====

OTOITZ LAGUNTZAKO (Apostolado de la Oración)

Erriarteko batzarrari (29'an)

ITZALDIA

"Danok lan egin dezakete lagunurkoaren alde, misionero edo bidali bezela ez bada ere, bai otoitzaren bidez. Guztieri ez die Jaunak eskatzen Xabier dar Prantziskori eskatu ziona; guztiori ordea gure otoitzak eskatzen dizkigu, otoitzaren bidez bidali izatera beartzen gaitu. Au denak dezaketena da. Eta bazkun onek ez die geiago eskatzen beretarreri: "...egunero egunero Jainkoari eta Kristori bere otoitz eta egintzak eskeñi, dagitena eta yasan bearko dutena, gertakizun onak eta txarrak, baña guzti auen gañetik norbera Jaunari eskeñi, Jesusen opa-maiari batuaz al duten eran, Ama maite Mari bezela, eta Aita Santuaren maiari begiratuaz Eleiz osoaren onerako"...

Ara emen Laguntza onen mamia, Aita Santuak "Kristoren Antz-Bide"tik artzen digu(4Id.8 at. 1-2). "Ni, nere Aita Jaungoikoari eskuak gurutzean zabal eta larrugorrian eskeñi nintzaion eta nere gorputzran etzan tokirik opari bezela rskeñi ez nionik bere asarrea alderatzearren. Era be-rean zuek ere egun egunero mezetan eskeñi bear zatzaqkiote Jaunari Opari garbi eta erru gabe bezela, zuen indar eta gogo guztiz, zenbat eta batuago nerekin zaitezten,"gizonen

onerako ezartzen die itz auri Aita Santuak.

=====

Ara emen II ontako beste Itzaldiak

- 3'an Kolonian bildu ziran 77'en Katolikentag'ko bazkideeri. Eskutitza.
- 6'an Barcelona'ko Ekintz Katoliko'ko lagintzalari ta sale-rosketarien talde bati.
- 7'an Liverpool'go Itxas Laguntza'ko taldeari. Itzaldia.
- 9'an Ondasun erabilisti'ko (ciencias económicas) Erriarteko elkargoaren lenbiziko batzarrari. Itzaldia.
- 10'an Españi'ko Langintza ta Salerosketa-langilleei. Itzaldia
- 11'an Sendagille katolikoan 7'garren erriarteko Batzarrari. Itzaldia.
- 12'an Sendaizti'ko (Dietética) 2'garren erriarteko Batzarre-koei. Itzaldia.
- 13'an Pake-zaintzalle'arteko Irlandar talde bati. Itzaldia.
- 20'an Izarristi'ko (Astronautica) 7'garren arriarteko Batzar lagunei. Itz bi.
- 26'an Madridén bildu zan Apaiz-Batzarrari. Eskutitza.
- 27'an Costa Rica laierri'ko Lendakariari. Itzaldia.
- 30'an Esne ta esnekiko 14'garren erriarteko Batzarrari. Itza ldia.

U R R I L L A

- 1'an Olami-Egilleen Europako Zaiñetxe (sindicatos) Elkargoari. Itzaldia.
- 2'an Erriarteko Fiscal-Elkargoaren 10'garren Batzarrari. Itzalditxo.
- 4'an Seguro-etxetaz Begiratzalleen erriarteko 3'garren Izketaldiari.
- 4'an Alemani ta Austria'ko sendi katolikoan Batasunari. Aolku.
- 6'an Quioterapia'ko Itali'ko 4'garren Batzar nagusiari. Itzaldia.
- 7'an Inozenzio XI'ren Doztsutze egunean. Irratitza.
- 8'an Ola txikien Elkargo katolikoan erriarteko Batzarrari. Itzaldia.
- 12'an Aleman eta Ungarotar Erromako Ikastetxeari. Agur-itza.

- 13'an Erroman dagon Españi'ko Ikastetxearen lenengo Arrijar-
tze egunean. Itzaldia.
- 14'an Itali'ko Emakume-Batzari. Irratitza.
- 18'an Europa'ko Errien Osasuneko Elkargoari. Itzaldia.
- 19'an Surik ez gertatzeko ta itzaltzeko lanbide duten erri-
arteko Elkargoaren l'go Batzarrari. Itzaldia.
- 21'an Nueva York'o American Cyanamid Company-Lederle Labora-
tories Division'en arriarteko Batzarrari. Itzaldia.
- 23'an Venezuela'ko Kanpo-arazoetaz Jaurleari. Itzaldia.
- 24'an Melbourne'ko Olinpi-jolasrtara bildu zeranei.
- 25'an Erri-erdiko (Clases Medias) gizonen erriarteko Elkargo-
ari. Itzaldia.
- 27'an Etxaipean izandako Españiar talde bateri. Itz bi.
- 27'an Berri-etxetako (Agencias de Información) Nagusiei. Itzal-
dia.
- 28'an Prato'barrutiko Langille talde bateri. Itzaldia.
- 28'an Emili-lurraldeko Errieri. Irratitza.
- 28'an Ungari'ko gertakizuneri. Idazkia.
- 30'an Sabadell'ko Batzokiko talde bati. Itz bi.

=====

A Z A R O A

UNGARI, POLONI TA SUEZ'en GERTATUERI BURUZ

Azken urte auetan Ungari erriari gertatu zaiona guztiok gakigu. Erri txiki bañan biotz dun au, aspaldi on-
tan Rusia'ren atzaparretan erortzeko zori txarra izan zun.
Egunartetik asi zan erri onen eriotz nekea. Askatasuna gal-
du, eta Rusiak jarri zizkion naguzieri menpeko; gozea asetze
korik billati eziñik; errengo egunean esnatuko ote ziran
jakiteke, nagusi berriakin ondo etortzen etziranak illak e-
do espetxetan sartuak zirelarik; pakerik ez; askatasunik ez;
eskubiderik ezagutzen etzitzaiolarik...ara emen Ungaria az-
ken urte auetan.

Bañan nazka nazka egin da zeuden Ungaro gaxoak;
bere nagusi komunistaganako gorroto bizia sortu zitzaien bi
otzetan, eta Urrilla aurrera zijoalarik, beren nazka eta
gorrotoa bat bateab agertu zituen, eta...utikan rusoak Ru-
si'ra, esanik, aien aurka altxa ziran. Guziak dakigu zer .

gerta zitzaien!... Itzak ez dira naiko gertakizun au azaltzeko. Ixildu bitez beraz...eta otoitz sutsoak bijoakio Guzialdunari...Beraz ar bitza il diranak bere magalean(goian bitez) eta erruki begiz zanpatua bañan bizirik gelditu dan Ungaro erriari begiratu.

Bañan, ori naiko ez balitz bezela,Ungarian bakarrik ez dabiltz gizonak bat bestearen aurka. Gorroto berarekin, bañan beste elburu edo azken batzuekin,Egipton'ere gudan dabiltz. Suez'ko ibaia ontan batzuen ezkubideak besteak ez dituztelako ezagutzen edo; eta jakiña, erabakitzeko...guda.

Aita Santuaren biotza auek jakitean, negar malkoak ixurtzen ari da. Gertatuak min ematen dio eta gizon guztiak aita on bezela maite dituanaren biotza, illun dago.Eta bere miña argikiro azaltzen digu. Bere itza toki orotara zabaldu da; beste iñoiz ez bezela,amabost egun barruan lau aldiz entzunarazi du bere Itza. Iru idazki eta Dei bat. Lauek garrantzi aundikoak eta erakutsiaz beteak. Ara emen Idazki eta Dei auen egunak:

Ungarian gertatuari buruz,Urrillaren 28'an
Egipton gertatuari buruz, Azaroaren lenengoan
Ungaria'ko gertakizuneri buruz,Azaroaren 5'an.
Pakearen eskeko Dei-miña,Azaroaren 10'an.

1) Ungarian gertatuari buruz:

"Sortaldeko European,eta batez ere txit maite degun Ungari erriñan ikusten ditugun gertakizun negargarriak be ne-benetan nere biotza ukitzen dute;"gero Gotzai, Apaiz, Eleiztar bakoitz eta gustieri,pake esme Jaunari otoitz egiteko eskatu ondoren esaten du:"...guztiok jakin bear dute ergigikiro, errietako iskanbillak,eriotza berakin duten iskilluz edo erritarrak beartuaz zuzentzerik ez dagola..." Ze gogotan izan bear lituzketen itz auek sasi egintzari batzuek!

Ungaro erriaren sinismentasunez mintzo ondoren,esaten die:"Ziur ziur gaude erri maite maite au gaur eguneko ez bear ikaragarrien erdian, pake eta askatasun eske Jaunagana zuzenduko dala..." Gero jarraituaz,dio:"Ziur ziur gaude mundu guziko kristau guziak edonun izan,ainbeste beke eta naigabetan mutgildurik dauden Ungaro anaiakin batera,o-

toitz egingo dutela, maite ditugula ezagutzera ematearren beintzat".

Batez ere aurtxoan otoitz, eskari beroak eskatzen ditu, eta au: "...odol udturik dagon Ungari erriari, eta bera bezela komunista edo orrelakoen menpean aekitzen diran arriari, askatasuna eta pakea lortzearren.

2) Egipton gertatuari buruz:

Poz pozik dagoela, dio asieran, bere lenengo Idazkian eskatzen zuenez, Jaunak bere eta guztien otoitzak entzun dituala ageri dalako; Ungari'tik Rusoak bazijoaztela zabaldu baizan orduan. Bañan Ungarian, danek pake itxura artu zuala zirudinean beste toki batean sua pizten zan, Egipton, eta ez nolanaikoa gañera. Orregatik dio Aita Santuak "...su izpi batek oso errez ekarrarazi leike su ikaragarria".

Eta "...gertakizun onen aurrean zer deakaket nik? galdetzen du, biotz biotzetik. Jaunari otoitz, eta zueri, zuel ere nere eskariaueri zuenak batzeko eskatu baizik?" Agintariei ere dazaie: "...Jakin ezazute guda batek on aundirik ez dakarkiala iñoiz, ez-bear eta naigabe ugari bai, ordea. Gizonen arteko asarreak ez dira su izkilluz zuzendu bearrekoak..."

3) Ungariko gertakizun berriei buruz:

Len esan detanez, Ungarian pake pixkat sortu zala zirudin; Rusoak bere etxeetara zijozazen; askatasuna zetorkiela uste zuten, bañan...zori txarrez, egun bateko ustea; egun bateko itxaropena...Gerokoa badakigu. Aita Santua iñoiz baño gogorrago, iñoiz baño argiago mintzo zaigu: "...Oraintxe jakin ditugun berri aukere nere biotza negar malkoz bete dute, Ungariako uri eta errietan, gogo guztiz askatasun egiazko bat opa duten erriarren odola ixuri dala esan baidigute. Eginkisun auker katoliko diran gizonen biotzak garratzasun eta zumiñez bete ditu, bañan baita ere askatasuna beren duten errietakoena ere..." "Errien askatasuna ez liteke odol us-tuaz oinperatu". Eta Ungari goxoari ori egin diotenen aurka itz auker zuzentzen ditu: "Il diran ungaroen odola Jaungoikoa-ri eske ari da, Abel errugabearen bezelaxe;" "...eta gizonak izkutuan egindako pekatuak epaille zintzo antzo zigortzen dituan Jaun onek, badañi noizean bein, gertakizunak erakusten

digutenez, agintari eta errien bidekabekeriak oraindik bizi direlarik, zigortzen". Eta azkenik bidegabekeri guzti auk konpondu ditzazken Jaunari laguntza eske asten da, esanez: "Jaungoiko txit errukitsuak erru dunen biotzak uki bitza, bidegabekeriak aizaturik, guda ere buka dedilla, eta erriak elkarren artean alkarturik, batasun estuenean bizi ditezela".

4) Pakearen aldeko Dei-miña.

Pakea....zintzotasuna...Auek dira, Aita Santuak bere Idazki auetan atergabe erabiltzen dituan itzak. Pake ordez, gudatea; zintzotasun ordez, bidegabekeria; askatasun tokian, menpekotasuna. "Pake-askatasun aldeko auziak atzera anka egin du..." Au guztien etorburu dan maitasunaren ordez, gorotoa. "Erria batzen, eta biotzetan poza zabaltzen asia zan itxaro-lokarro me ura, ausi egin da..." Auek zuzentzearren, zer dezakegu?" Gaur eguneko gertakisunak pakea eta askatasuna edozein aberaztasuna baño gelago maite ditutela sendi eta erriak, agiri agirian jarri digute. Beraz, "Pake-bideak eriki bear ditugu, indartu bere zai dauden biotzak, eta ustea galdu dutanen biotzetan itxaron argi izpia ixuri". Au irixtearren munduko erri guztieri batasuna, eskatzen die.

Baño erriarteko ixkamil guzti auk, bidegabekeri auk, naspil, izugarri auk Jaunak bakarrik zuzendu ditzazke la ikusiaz, berari eskari sutsu bat dagio: "Jaungoikoa, Jaungoikoa, Jaungoikoa! Izen maitagarri au, eskubide, zuzentsun eta askatasun izendatzen diran guztien etorburu degun izen au, erriko etxe eta enparantzetan, sendi eta lantegietan, jakintsuan eta langilleen ezpañetan, izparringi eta irratian entzun dedilla! Jaungoikoaren izena gogo oneko gizonen ikurriña bedi, erri lokarri, gizon guztien osasuna lortzearren lanean ari diran anai eta lankideen arteko ezaugarri". "Baño batez ere, Eleiz eta zuen biotzetan entzun bedi izen au. Eskatu zaiozute berari, Alguztidun danez, lagundu dazaigula konpontzen, gure indar bakarrez iñola ere konponduko ez gendukena".


=====

A Z A R O K O beste Itzaldiak

- 1'an Sortalde-Erdian piztutako guda dala ta, pakearen aldeko otoitz-eskatzea. Idazkia.
- 1'an Nork biribil ederrago'ko bederatzigarren erriarteko txapelketari. Aolku-itzak.
- 3'an Alberto Martin Artajo jauna buru zala Españitik bidalitako saillari. Itzaldia.
- 5'an Ungariko gertakisun berrieri buruz. Idazkia.
- 8'an Kristau pizkundekoeri. Aolku-itzak.
- 10'an Pakearen eskeko Dei-miña.
- 15'an Itali'ko Soñisti(anatomia)buruz egindako batzer nagusieri. Itzaldia.
- 18'an Terni'ko sei milla langilleeri. Itzaldia.
- 23'an Itali'ko errietxe eta mendi-goizale batasunari. Itzaldia.
- 24'an Europa'ko gaztediaren aldeko bazkuneeri. Itzaldia.
- 25'an Erri legelari ta jaurleen talde bati. Itzaldia.
- 27'an Orthocida"ren erriarteko batzarrari. Itzaldia.

Balardi'tar Jon

Lazkao'ko beneditarra



PSIKOANÁLISIS TA ANIMAREKIKO JARDUNA

I SARBIDE

Nunbaitetik asteko: Psikologiari buruz aurreratze sakonak egin dituzte jakintsuak azkeneko urteetan. Bear bada, Tradiziñotik zetorkigun Psikologia oparo aberastu zaigu gure gizaldiaren estudioekin. Auerk, ordea, ez dira orotan bide zuzenean landu. Jakintsu asko izan dira lan orretan tinko ta adoretzu; ez, orratio, orok egi bakarraren sustriak eutsiak. Auxe tamalgarri!

Eleizaren soro zabalean katoliko jakintsuak berezi egin dute: ona dana, artu; gaizki dagona, zuzendu al bada, edo bestela egotzi.

Psikologiaren zati batera zorrostu ditzagun begiak.

Psikopathologia: psikearen eriak edo aulkeriak dakuzkigun.

Gure gorputzari okerraren bat datorkionean, gaixo gaudela bereala esaten degu. Oker gutxi bear da askotan gaixo bildurra sartu dakigun. Gogamen-gaixotasunarentzako, ordea, itxu xamarrek izaten gera. Zoro bat aurrean degunean, ez degula gaxotzat artzen, ez det esango. Baña orrelako larrialdientan gaixotasuna balesten ba degu, gogumenaren auelkeriak ez ditugu ezagutzen. Gorputzez gaixorik bizi diranei gaixoak bai dira, amaikatxo oker barkatzen ba diegu, zer esan gutartean bizi diran gogamen-gaixoei buruz?

Orain, pentsamentu au ipiñiko nuke gure ikusmenaren aurrean: gurekin egunero mintzatzen diraden askok, egizko gaixoak dira, gu oartu izan ez ba gera ere.

Anima gaixo daukatela ezin degu esan. Animak espiritua izanik ez du auleririk jasatzen. Relaziño somatopsikiko

ei buruz ez dago emen zer esanik. Beraz, ez dakigu non arkitu diteken gorputz-animen batze ori. Auxxe ezarriko degu: "Kirioen systema animen instrumentua da bakarrik eta instrumentu onen bitartez animak gorputza jaurtzen du". (1)

Gai onen kausalitate ta essentzian erdi illunka ba gabiltz ere, existentzia ta efektoak ziur-ziur ezagun zaizkigu. Psikikoak somatikoan eskutartea ba daukala ta ostera, a-inbeste ta ainbeste gaixotasunetan ikusten da...

Gauzak argitzeko iru motetan kidetuko ditugu psikosis guztiak, gogozko ta kiriozko anormaliak moral ondoretan estudiantuki: ezpeirik gabe gogamenekoak diranak (psicosis stricte dicta); kirio-argaltesunean sustraiak dauzkatenak (neurosis); bi oyei Niedermeye'k beste bat ezartzen die: karaktera ondatzen dutenak (psicopatia) (2).

Gaitz auetan mugak ipintzea oso da gauza laburra. Bata bestearekin korapillatzen da.

1) Psikosis: bi sailletan ikusiko ditugu psikotikoak.

a) psikosis generalak: gaixoa zoratu egiten da, maniaz beteta dago, gogamena galtzera dator. Baña, eri oetan begi aurrean euki bear deguna auxe da: gaixotasun auek "askotan aurrerakoia dirala ta arrazoitasuna ukitzen daneko, eria azken mugetaraño eldu dala" (3).

b) psikosis systematikoak: eriak ez du gogamen guztia ondatzen. Arrazoidun bizitza egite-kategoria bat edo bestean bakarrik zauritu egiten da. Amaika arrazoi ugaritsu aterata ere ez genezayeke iñola ere miñistearazi bere delirio-gaian. Gaixo-sail ontak auek dituzu miñen ugarietak: megalomania, be-kaitz-mania, persekuziño-delirioa; izendatuei, maite-maniakoak, pseudo-mystikoak, bipokondriakoak, tutsatuak, zoro moralak eta abar erantsi dezazkiekegu.

Bukatzen: "Psikosis guzietan -generalak edo systematikoak izan- gaixoak ez du okerrrik ikusten bere soro psikikoan; are geiago, uts dagianik ezin du cartu" (4).

2) Neurosis: neurotikoak bi saldotan banatu ditzazkegu: bi saldo oetan datzate neurosis guztiak. Genetan bultzalleak izaten dira, kirioetan sortzen baitira. Ez orotan, ordea.

a) neurosis aultzalleak: personalitatearen galtzeak bereizten ditu. Gaixo oek, berez, ez dute ezer egiten; danetarako

baimena, aolku edo erabaki ber-bera besteengandik eskatu bear dute. Erlijosoen etxeetan estaltzen omen da uts au. Orregatik bai zuzendari espiritualak, bai Nagusiak kontuz ibilli be ar dira, humilitate-gaisjantzipean bere buruak eskutatzen dituzte gaixo maltzurak eta. Bere bizitz illunean ez du gauza gallenik arkitzen: ez jaterik, ez jolaz egiterik, ez physikoki edo intelektualki ezeri ekiterik.

b) Neurosis bultzallea: onek bai indar eta zalaparta. Ezin, berriz, indarraru eutsi, ezin zalaparta ixildu. Alkoholak etherak, kokainak edo morfinak intoxikatuak, olako bultza zantarrak izaten dituzte. Oetatik pauso txiki batez melankolia leyatsuán jausiko da. Sentimentu ziztrin batzu ba daramazki berekin melankoli orrek: bere burua obendun edo ez diña ustea, antsikiz ainkatua izatea ta abar. Mania batzuk ere kategori ontakoak omem dira. Ez guztiak, ordea. Askoran maniak karakteraren joera okerrak besterik ez baitira. Nobiak ere emengoak dituzu. Oituena orban-gabia izaten da ta amitzetan pekatu mamiatik jayotzen zaizu.

Zelai jori ontan histerikoak erretratatu ditugu azkenik. Histerismoak systema sympathikoan omen ditu sustraiak. Ez dago systema ortan voluntatearen sartzerik, autonomo baita. Kiño-gaixoetarik ugarienak histerikoak bide dira.

Neurosis guztientzako gogoan artzeko oar bat: eriak jota dagoenak bere egoerak arrazoidunak ez zazkiola ederki daki jakin.

Baña ezin dituzte euren maniak, fobiak edo melankoliak eragotzi, voluntateá gebenduta daukatelako. "Voluntatearen elbarri oni alperkeri esaten zayo. Baia, oker utsa da ori. Egizko gaixotasun baten ondorea izanik, arrisku arno litzake egin ez ditzaken eta al izango ez dituan gauzak gaxoari ipiñi nai araztea, bere personalitate guztia agortuz" (5).

3) Psikopatia: Psikopata gixajoak jayotza aurretik kutsatuak datozte. Ta joera, nekez, bide txarrera izan. Karaktera, barruko bizia eta reakziñoak oi-ezkoak dirake. Psikopatiko batzuk neurosis aldera dijoaz. Ez da, izan, beste klasifikaziño berria, psikopatiko arteko mote bat baizik. Psikopatien garailleenak maniak dituzu: lapur-mania (kleptomania), edan-mania (dipsomania) erre-mania (pisomania) ta abar; monomania sexua-

la, larregi agertzen danean, guztien gañetik jaso diteke. Izugarriko intensidadea omen du joera makurrez josirik.

Erio oek ez dute gogamena guziz ondatzen. Ezta voluntatea ere. Au dala ta askotan gaixoak osasunera allatzen dira (6).

II PSIKOANALISIS

Laisterka ibilli ba gera ere, ikusiak utzi ditugu eriorik ezagunenak. Ainbeste gaxoentzako ze osasungarri motelak litukete antziña artan ez dakigu. Egun, gauza asko ezagun izanik ere, etzazkigu, ba, problema gutxi sortzen!

Bada, problema auek azkatzeko methodoak inventatu dira nunbait. Ba ditekete sendalia kontzientzi bakoa izatea; orduan, psikoterapia bearrean, geiegikeriak arkituko lituke gaixoak. Baña orrelako psikiatra okerrik, Jaunari eskerrak, gutxi idorotzen da. Eta auxe izan bearko psikoterapiaren methodoak jakintsuen eta theologoen begietan artu duan begirunearen arrazoia.

Methodo psikoterapiko bat estudiantzeko eman didate, ots: psikoanalysis. Freud'ek ereiki zuan methodoa. Lenagoko methodoen katarsis artuk, beraien hipnotismoa kendu zuan. Analysis asoiaziaño azkearen bitartez dagi.

Zeintzuk dira, bada, analysiaren oiñarriak?

Freud'ek umeak estudiati zituan. Estudio ontatik atera zizkigun ondoreetan utsak ba daude, katokikoak txarra dana baztertuz, teoriaren fundamentuak onartu dituzte. Goazen mamira,

Psikoanalisiaren teoria: "Umeak maitasun bero ta lasaikorraren bearrira du. Objeto maitearen bearra basikoa da. Orregatik, maitasuna autsi egiten zaionean, umearen reaktzioa erezkorra izaten da. Objeto maitearen eltzea eragozteh dionaren aurka, edozer egingo luke: edo objeto ber-bera desegin edo dinamismo bizi ori birreltzeko baliatu. Onatx bikote kutunki urrunduekin topo egin degula: maitasuna ta agresivitatea. Bikote onen evoluziaño egokian gizon ondo formatua topatuko degu. (7).

esan, bakoitzarentzako mekanismua izkutua da. Lenbiziko urteetan gurasoi sortzen za izkien responsabilitatea itz oetan irakurri dezakegu. Zera diote: "Gizonen makurkeriagatik umea ez da inoiz espiritualki iltzen, zauritzen dutenak Jainkoaren ordezkioak bezela ez ba zazkie agertzen. Baña euren pentsaeran Jainkoaren ordezkioak diranak asmo yaioak kixkaltzen ba dizkiote, aurraren batasun psikiko apurtu ditekete" (8)

Itu aspektuetako batean evoluziño gaitzak gizon izangoaren organismua mindu dezake. Dakusagun, orain, arkitu ditzazkegun atzeratzeak eta oyen ondoreak.

1) Aspekto libidintsua garai batean geratzen danean, atzeratze sexuala deukagu. Azteak uzki-aroan tenk dagianean (esate baterako) sexualitatea gaixotu egiten da. Ba liteke; noski, normalki azi gero ere, lehenagoko garai batera biurtzea; batez ere, bizitzaren zirkunstantzien surrean reakziño makalagatik. Bidekatuen dinamismoa, libido-saillean ez baita ongi azi, beste zelayetara dijoa. Afektoak edo gogamenak ikutu ditzake jardun sozial edo intelektualak ondatuz batzutan, dizdiratsuki mogituaraziaz bestetan. Onatx mota ontara ekarri: homosexualitatea, masturbaziñoa, fettxismoa, masokismoa ta abar.

2) Zaletasunaren evoluziñoak maite-arlo beroak eraikitzen ditu gure barnean. Maitagun normalaren iturritzat bi une bideratzen zaizkigu gallurki. Gurasoarekiko bear ditugun maitasun ta begirune zuzenak Ediporen komplejotik jayotzen dira: lenbiziko unea. Narzizismoak, berriz, bere buruarekiko maitasun biribillarekin, kaskarreko ederrak bereganatzen ditu bizitzaren realitatearekin topo dagianean. Besteen billa dijoakigu orduan. Barnean allatu izan ezin dituan betegarriak, kanpoan arkitzea nai luke. Ta besteengandik artzen duan laguntasunaren ordezkio, bere barruko maite-grifa atzerrian zabalitzen du oparo. Bre buruari uko egite eten gabe onek, ordain-bide xamurrik arkituko ez balu, naigabe bizardun ekafiko lieke gizon-emakumeei kirio-gogamenetan: bigarren unea.

3) Aspektu intelektualean gertatu daitezken atzeratzeetan ez da trebetasun intelektuala ukitzen, onen jarduna baizik. Adimena, baiki, biotzaren oparia izanen da. Len esan degun bezela, objetivismoa lortu bear degu nolabait. Baña gure biotzak ez bearrezko izkuturen bat gordu izan ba ligu,

adimenarena eginda legoke, tamalez. Trebetasuna osorik dago-
nez, olako erdi-jausiei etzala maizetan gaixotasuna ezagutzen
Baña bein edo bestean izkutuaren gaian ikutu ezazute! Zentzu
gabeko deritazkigun gaixo oen gauzak, subkontzientziaren leño
lañotsuetan daukate zimendua.

Ba dago oraindik zer esan, baño idea bakun bat irix-
teko mintzatutakoekin naiko izan bearko degu.

PSIKOANALYSIAREN TEKNIKA: Nasterik ez omen dauka. I-
kusaldi bakoitza ordu bete ingurukoa bedi. Astean iru bider
gutxienez.

Gaixoa trankil-trankil exeri edo etzan dedilla. Ana-
lystak, atzetik egonez, eskein bezaio itz egitea. Lasaiki, ara-
zo edo zirikatzerik bage. Azkatasun oni itsazten zayon gai-
xoari bereala arinduko zaizkio kiñoak. Gero, egunero bide o-
kerrera daramaten lelo lotzalleak subkontzientzaren bizitz de-
bekatuari leku dagiokete.

Gaixoari biografia eskatuko dio analystak. Al dan
osoena. Ez bai dio egi betea azalduko. Baña ez azaltze ontan
gaizoaren barruko ta kanpoko bizitza astean antzaren bat ira-
si dezake analystak. Ez da errez, ziurki. Arinki edo respon-
sabilitaterik gabe obratzeak okerrera narrastuko lituke gai-
xoa ta analysta. Ura bere bizitzan konplejo tzar berriak ja-
zarki, zu zorigaitzoko ondapenarekin.

Analysta-gaizo arteko zer-ikusia ezdeus ba ledi, o-
be baño obeago. Alde batetik edo bestetik ikusirikoak, egun on
edo txarrean entzundakoak denboraren igarotzearekin analysta
trebe ta kontzientzidunari ezaguera baliotsuak dakarzkio.

Makalkeria non dagoan, garai utsa zein dan laister
irtengo zaio begien aurrera. Reakziño oroen artean servitzen
dutena da au: lotsak, erdika ixildutako pentsamentuak, inte-
rrupziño latzak, synpathiak, arretak, espak, edozein griñak, edo-
zerk. Begi ernai. Ta lanari joka.

Esandakoa Freud ren itzez ornituko dizuet: "Biotz-
ikare oek analysis bitartean objektivoki sortu ez-baña antzi
ñako relaziño objektiboetatik jayoak dituzu, eta analysiaren
birresateetan eriak kutsatutakoei pizten zaizkie"(9).

III ANIMAREKIKO JARDUNA

Bi jardun artu dizkizut, psiko-analisiaren argipean nolabait ikusteko: aitortza eta zuzenbide espirituala. Bietatik, gañera, bat egiten ba degu, ez larritu. Lan onterako ondo bai dījoa.

Konpesoreak, pekatuen barkatzeko Kristoren ordezi-piñitako apaiza, animen osasuna du xedetzat. Zuzendari espiritualak osasuna ezizik santutasunaren mailletan aurreratzea ere bai. Psikoanalystak, ordea, osasunari darraio, Gorputza ta animaren osasuna, beraz, bat bakarraren eskuetan ipintzea ote litzake?

Nik ez dizut erantzungo. Luis Bernaert (S.J.) ospatsuaren eleaz erantzuna konpreniko dezu: "Irakasten duan ikaslea psikoanalyzatu nai lukean zuzendariak, analysis txarra ta zuzenbide txarra egingo lituke" (10). Eta onen arrazoia Sheen Gotzayarekin emango dizuet: "Gogamenaren egoerari buruz inkontzientzian egiten ezaguera psikoanalysis da; gizona obendun dala kontzientzian ezagutzea, orra or aitortza". (11).

Zuzendariak psikoanalysis baztertu egin bear al du? Ez; ondore logikoa ez da. Zuzenbidean ez du psikoanaly-sirik egingo. Baña onek ematen dizkion prinzipioak gogoan euki bearko du pekatuen barkatzerako eta aolkuen ematerako.

Apaizak, pekatariak entzutera exeri dedinean, pekatuen epea egin bear du, euren astunkeria zein dan neurtuz. Apaiz konfesorearentzako santutasuna ona da ta kristauen fede sendotzeko txit egokia. Zer esan jakintasunari buruz? Zenbat eta beteago egon, ainbat eta obe. Psikologia ajol aundikoa izan bear zayo konfesoreari. Psikologian, psikopatologia begirunez estudiatu bear duan zientzia. Nere itza baño siñiskai veneragarriago atera dezaizudan, Brenninkmeyer'k idatzitakoa begietara dizuet: "...animak zuzentzera deitutako apaiz guziak, kirio-gogamenetako anomalien sustraiak aztertu bearrean daude. Onek gaitzak eta beroyen natura ezagutzeko gaitasuna eta pekatuak neurtzeko posibilitatea ematen dio..." (12).

Fundamentutzat zera ar dezagun: psikoanalyiak konfesoreari ministerioa ongien betetzeko lagun dagiola.

Gaixoak eta animaren problemak:

Pekatuaren problema batez ere, beltzixka dakusgu ikusi. Psikotikoak eta neurotikoak konfesatzen dituzten pekatuak egizkoak al dira? Pekatu materiala ez ezik, pekatu formalik ere arkitzen al da aien aitor-gaietan? Caldera ontatik reinzidenteen eta oituen problemari buruz erantzuna irtengo al balitzaigu! Konfesorea eta zuzendaria begi zorrotzez eta adimen gartsuaz ez dute naiko. Biotzbera eta Jainkoaren ordezkoiari dagokionez aita-tiar ardiak Eleizatik urrun joan ez dazkigun.

Pekatuari eta santutasunari buruz zelan eratzen dira gaixoak?

1) Psikotikoak: psikosis generalak jota daudenak bada-kigu jakin non bizi diran. Zoro-etxeetan geienak, noski. Psikotiko systematikoen arazoa nastutxoago deritzait. Brenninkmeyer-kin batera lege bat ezarriko degu: "zoro-gaietan askatasuna ez bait dagokie, ezin responsabilitaterik egotzi" (13).

Orduan, esango didazu, psikosis systematikotarrak bere egiteen kontzientziarik ez omen dute. Ederki esana, darrantzuzut, baldin bat ondoratu ezkerro. Zorotasunean dauden bitartran, ez dute kontzientzirik. Baña ortik kanpo, adimena osasunduna bait zaie, santutasunera edo pekatua eltzeko azke dira. Ona, ba, zuzendari espiritualarentzako lan sendoa. Manien garaietan izugarritzko penitentziak edo nai egin dituztenekin kontuz ibilli bear da. Masokismo tankera bat ditteke-ta.

2) Neurotikoak:

a) neurosis aultzallea: konfesoreei koska ederrak altzatzten dizkiete gaxo oek! Askeak dire eta responsabilitatez zamatuak, au gutxituta, ba, dagerkigu ere. Batzuk konfesore edo zuzendariaren aolkuei moldatzen zaizkie. Voluntate onekin euren bizitza illun eta negargarriak bide-oneratzen lagunduko dien konfesorea idoroko balute, anima eta gorputzaren osasuna erresago obetuko litzake. Betiko aiene eta negarrak kongreni egin bear ditu konfesoreak. Sendoki erabili; mofizkeriak alde-bateratu.

b) neurosis bultzallea: bultzatuen problema nagusia auxeda: askatasunaren problema. Psikotikoekin ez-berdintza gallen

bat daukate. Ayek bere gite objetivuen balio moralik ez da-
kuste, oyek bai, ordea; argiki ikusi gañera. Baña neurotikoen
bultzakadak ez ditzazkegu aaztu. Nola aaztu madarikatuok vo-
luntatea osorik itxutu dezakete-ta?

Noiz? Zelan? Ze akziñotan? Izkutuak! Izkutuak, ba-
tzutan urte-aro batean edo bestean irauten ditelako, akziño-
mail guzietan elduz; beste batzutan akziño kategoria bat edo
beste arrapatzen bide dizkizu, betikoa izanki. Izkutuak, bear-
bada!

"Zer egiten zenun ba al zenekian?" - galdetu deza-
kiekegu. "Bai, jauna" - erantzungo besteak. Egia esan du.
Baña galdeera ofekin eztago epaia buktzerik. Ikusi dutena,
egin nai izan al dute? Or dago kokka. Ta zabala bezin ani-
tzetan legor landatzeko soroa.

- - -

Lanari jarraituko banio noraño joango nintzake?
Gaiari buruz idea mee bat jarri natzaizu eta ona emen, amai-
tzean, ezpai zorrotzean naukasula: nere eginbearra bete egin
al det?

Etxebeste tar Iñaki.
Arantzazu'ko teologilari.

- - -

O a r r a k

- (1) Niedermeyer, Albert, "Compendio de medicina pastoral",
Barcelona, 1955; 303 or.
- (2) Id., o.c.; 360 or.
- (3) Brenninkmeyer, A., "Tratamiento pastoral de los neuróti-
cos", Buenos Aires, 1950; 22 or.
- (4) Id., o.c.; 26 or.
- (5) Id., o.c.; 32 or.
- (6) Niedermeyer, Albert, o.c. psikopatikoei buruz ederki ta
ugari dagi. Nere lanean ez diet jaramonik egingo ia norma-
lak bait dira. Ikus. 360 ss. or.

(7) Nodet, dr. Charles Henri, "Dirección espiritual y psicología", Bilbao, 1954; 330 or.

(8) Dolto, Dra. Franciasca, "Pecado, Confesión, Psicoanálisis" Bilbao, 1956.; 202 or.


(9) Freud, Anna, "Le moi et les mecanismes de defense"; 15-16 or. Nodet'ek aitatur, o.c.; 348 or.

(10) Bernaert, Luis, S.J., "Dirección espiritual y psicología", Bilbao, 1954; 363 or.

(11) Sheen, Mons. Fulton J., "Psicoanálisis y confesión", Rev. "Quincena", 30-VI-56, nº 8, Habana; 15 or.

(12) Brenninkmeyer, A., o.c.; 19 or.

(13) Id., o.c.; 38 or.



LAGUNARTEKO

MEZA

Aspaldi ontan, Lagunarteko Mezak dirala-ta, bi be-larriak ondo zulatu dizkigute. Errialde guzietako Liturji-Batzarretan, Francfort (1950), Lugano (1953), Munich (1955), Bar-celona, Albacete (1956) ta beste ainbestekoetan ez da beste-rik entzuten: "Kristauak egitekorik aundiena Meza dula"; " Mezakoen Meza entzun besterik ez dala egin bear"; " Eliz-otoitzak, norberarenak baño atsegiñago zaizkiola Jainkoari"; " Kristau guziok Erri bat, Sendi bat, Gorputz bat geralarik, batasun ori batez ere Elizan agertu bear d gula, dena batean egiñaz, batean otoitzak, batean abestiak..."; " Kristo gure E-rrege ta Buruaren otoitz berbera zuzendu bear diogula denok, apaizarekin batean, Jainko Aitari" t.a.

Nola bete ordea ori dena Eliz-otoitzen izkuntza ez bait degu ulertzen? Apaizak, Elizaren aginduz, latinez e-giten ditu bere otoitzak; gure Erriak, berriz, Jainkoak berak eman zion euskera maitea besterik ez daki. Ta beste erriekin berdín gertatzen da. Korapillo au askatzeko ez dira ekiñaldi gutxi egiñ azkeneko urte auetan.

Ederrenetakoa Meza-liburuen asmatzea izan da. I-dazti auetan Apaizak latinez esan oi duna gure izkuntzetara biurtua daukazu, beraz, Apaizarekin batean otoitz egin dezake-zu. On ugari dagite, noski, amaika kristauen biotzetan! Bañan, Erri-erriak muziñ egiten die orrelako esku-liburuei, ez omen dira erabiltzeko ain errexak, arreta asko eskatzen omen dute, garesti xamarrek ere bai. Gañera Eliztarren artean ez dute batasun aundirik sortzen, bakartasuna baño, bakoitzak bere i-

daztiarekin naiko zer-egin bait du.

Utsune oriek bete naiz datozkigu "Lagunarteko mezak". Itzak adierazten duan bezela, Lagunartekoak, kristau-errikoak egizko artukizun dute meza auetan: denak batean otoi egin, batean abestu, batean entzun Irakurleak ots aundiz guztientzat esaten duna. Beraz, batasuna sortu-erazi dute elkarrekin; Apaizarekin ere ez gutxigo, onek latifñez egiten duan Eliz-otoitz berbera aiek ao batez erri-izkuntzan esaten bai dute.

Meza-era onek ere badu ordea, bere akatsa: batasun orren egille ez dala Apaiza, Eliztarren egizko Buru; onen ordeko bat baño, Lagunarteko bat, Zuzendari d ritzaiena. Onek azaltzen dio Erriari Apaiza zer ari dan, onek asiera ematen lagunarteko otoitzei, onek darama elkar-izketaren aria, orregatik Apaiza baztertuxea gelditzen dala...

Nere ustez Meza entzuteko itzal-gabeko era, era bikaña, Apaizak berak Meza Erriaren izkuntzan ematea litzake, orduan berari entzungo genioke, berari orantzungo, bera litzake Eliztarren egizko Buru ta orrela oso-osoa agertuko luke ere Jainko ta gizonen bere Bitartekotza.

Ori begiz dakuskegun eguna ez da ordea zabaldu oraindik; ta bitartean zer egingo? Ekin lanari, gure eskuetan bait dago egun ori aurreratzea, erakartzea; Alemani ta beste errialde askotan bezela, Lagunarteko Mezaren bidez Erriari bere izkuntzan Meza-otoitzak errestu, erakutsi ta gozarazten badizkiogu; gure kristau-erriak iganderoko Mezetan Eliz-otoitzak ao batez esatera iristen badira... ez dezu urruti ibilliko Erroma`ko baimena.

Zer ari gera, bada, itzaldiz, bederatziurrenez, errosarioz, t.a. kristaue Mezetarako eraspena galduerazten? Gerok ezagutzen degunez, lotsagarri da gero Gorputz batean, Eliz-Gorputzean Buru degun Kristok, ta bere ordezko apaizak, aldare gañean Gurutzeko oparia berritzen ta Aitari eskeintzen dioten bitartean, gu kristauok, Eliz-atalak, Santa Rita`ri edo Bederatziurrena egiten aritzea.

Eliz-otoitzak, Eliz-otoitzaren aberastasun eta goindarrak bakarrik, ase dezakete gure kristauen Jainko-zaleatasuna, beraz, mingañetaratu dezaiegun otoitz ori lagunarteko

Mezaren bidez. Erriak ere badaki bai, bere otoitz kaxkarrak baño Eliz-Amaren otoitzak indar aundiagoa dula Jainkoaren aurrean. Zerbaitegatik Lagunarteko Mezak ain arrigarrero zabaldu dira Errialde geienetan, Alemani, Austri, Prantzi t. a., ta ainbeste atsegin zaizkio erriari, naiz luxeagoak gertatu, izan ere "Ordu erdi aspertua baño, ordubete atsegiña motzago".

Gure Errian ere, Jainkoari eskerrak, ez da lan gutxi egin lagunarteko Mezak eratzen eta Kristauen artean sarre-razten. Eskuartein baditut lau euskal-lagunarteko Meza argitaratuak, entzun det geiago ere badirala. Emen dijoazkizu lauak, bakoitzari aipamen berezi bat zor bait diogu. Donosti-ko "Argia" k 1928'an atera zigun, nere ustez, lenengoa umientzat egindako "Argi Done laburra" deritzaion idaztitxoan. Bi urte barru Bizkaieratu auten "Umien laguna" izen berri jarriaz. Balzola'tar Prantziako apaiz jaunari ez diogu gutxi zor euskaldunok bere Eliz-idaetiegatik. Meza ori ere bai jatorki antolatua daukala, gaurko umiak orixe erabiliko balute!

1936'garren urtean I. Omaetxebarria Arantzazu'ko Aita Prantziskotar trebeak argitaratu zuan "Arantzazu'ko Amaren umetxoan" Alkartasunezko Euskal-Meza. Idaztitxo bikiña batez ere bere Meza-abesti ugari, errex eta guztiz egokiegatik. Iru ateraldi izan ditu, azkeneko bitan (1953, 1956) orraztua datorkigu ta izen aldatuarekin "Lagunarteko Meza".

Bizkaieraz Aita I. Berriatua gazteak -au ere prantziskotarra- eratu digu beste bat "Lagunarteko Mezea" 1954. Elkar-izketa "Umien laguna" tik artu du. Bizkaierago ta erexagoturik ordea; abestiak Omaetxebarria'renak ditu, bañan ederki bizkaieratuak. Beraz, idazti onek bi aurrekoen onak sorta batean bilduta dagerzki.

Laugarrena Sagastume'gtar Martin Isasondo'ko Bikarioak agertu digu. Ez du berak sortua, erderazko "Misa Joacista" tik euskeratua baño. Gure langille-gaztediak, Apaiz bizkor orri esker, badute bere Meza, "Gaztediaren Meza", euskera garbi ta errexean.

Nabari danez, lau oek txalogorriak ditugu, izan ere Lagunarteko Meza bat egitea ez da ain errex. Labur esateko, izkuntz eta batez ere Liturji-arau edo joera asko begi aurrean euki bear bait dira, adibidez, erriaren euskera; Apaiza ez

dala bazterrataratu edo begiz galdu bear, bera bait degu Eliz-Buru, batez ere Mezetan; Zuzendari edo Irakurleak ez dula A-paizaren ordko izan bear laguntzalle baño; Meza ez dala Eri-sail batentzat, Erri guztiarentzat baizik; beteegia ez dedilla, aspergarri ez gertatzeko, ixillaldi gozoak ere badute bere mingaña biotzarentzat; obe litzakela Eliz-otoitzek diranez, muiñ eta azal euskera errexean ematea, itxusituak edo aldatuak baño, orrela nunai esateko otoizkera bat izango genuke, Aita Gure bat degun bezela; abestiak ere, Meza-abestiak edo abesti egokiak ditezela, ez Mezarekin zer ikusirik ez dutenak, t. a.

Gaurko Liturji-joeraren erakuspen oriek eta beste batzuk argiago agertzearren ni ere kristu-erri guztiarentzat Meza bat eratzen sai tu natzaizue. Lan ontan Aita Pio Parsch ezagutuaren "Betsingmesse" eta Silos'ko Angel Gonzalez de Galdiano beneditarraren "Modelo de Misa Comunitaria" (1) izan ditut bide erakusle.

Ona emen nere Meza au, jaio-berria dezu, beraz, orain dik larru-gorritan ..egunen batez, Jainkoa lagun, zenbait azaipen eta abestiz, jantzia eguzkitaratuko al det.

- - -

(1) Ikus bat eta bestea LITURGIA 121-122 (1956) 31-35; 127-128 (1956); 225-233.

LAGUNARTEKO MEZA

MEZAURREA

ALDARERA IGOTZERAKOAN

(Belauniko)

Apaizak In nomine Patris et Filii et + Spiritus Sancti. Amen. (Aitaren eta Semearen eta Gogo Deunaren izenean. Alaxe.)

(Azpiko otoitz auen ordezkantatu diteke abesti bat "Kyrie" tarãño, ta al bada eguneko sarrera edo barkapen-abesti bat)

Irakurleak Inguratu gaitzen Jainkoaren aldarera.

Lagunartekoak Gure gaztealdia poztutzen dun Jainkoarengana.

Ir. Jainkoaren izenean + degu laguntza.

Lag. Arrek egin bat ditu zeru-lurrak.

Ir. Nik, pekatari oenk,

Lag. Aitortzen diot alguztidun Jaungoikoari, / Andre Maria beti-Birgiñari, / zori ondun Migel Goiangeruari, / zori ondun Joan Bautistari, / Pedro ta Paulo Apostolu doneai, / beste done guztiai, / eta zuri, ene aita, / pekatu rik asko egin dedala, / gogapen, itz eta egiteetan, / nere erruz / nere erruz / nere erru aundiz. / Orregatik eskatzen diot Andre Mari beti-Birgiñari, / zori ondun Migel Goiaingeruari, / zori ondun Joan Bautistari, / Pedro ta Paulo Apostolu Doneai, / beste Done guztiai / ta zuri, ene Aita, / otoitz egiozutela nere alde / Jaungoiko gure Jaunari.

Ap. Misereatur vestri Omnipotens Deus et dimissis peccatis vestris perducat vos ad vitam aeter-

nam. (Erruki beñi zuetaz Jainko guzialtsua ta zuen obenak barkaturik, eraman zaitzaten betiko bizitzara)

Lag. Amen.

Ap. Indulgentiam,+ absolutionem et remissionem peccatorum nostrorum tribuat nobis omnipotens et misericors Dominus. (Gure pekatu guziak barkatu, askatu ta garbitu ditzala Jaun guzialdun eta errukitsuak.)

Lag. Amen.

Ir. (Eguneko Meza-sarrera irakurri beza bein, bukaeran esanez:) Aintza Aitari ta Semeari ta Gogo Deunari.

Lag. Asieran zan bezelaxe, orain eta beti, gizaldi ta gizaldietan. Alaxe.

OTOITZALDIA

Kyrie edo Erruki-otoitza

Ap. Kyrie, eleison (Jauna, gutaz erruki zaite)
Lag. Kyrie, eleison
Ap. Kyrie, eleison
Lag. Christe, eleison
Ap. Christe, eleison
Lag. Christe, eleison
Ap. Kyrie, eleison
Lag. Kyrie, eleison
Ap. Kyrie, eleison

Gloria edo Gora-kanta

Ir. Gora Jainkoa zeru-goian,
Lag. eta pakea lurrean gogo oneko gizonei./ Gora-tzen zaitugu. Onesten zaitugu./ Gurtzen zaitugu. Aintzatzen zaitugu./ Zure aintza aundi-gatik eskerrak ematen dizkitzugu,/ Jainko Jaun, zeruko Errege, Aita Jainko guzialtsu Orri./

Jaun Seme bakar, Jesukrsito/ Jainko Jaun, Jainko-Bildots. Aitaren Semea, / Munduaren obenak kentzen dituzun Ori, gutaz erruki zaitte. / Munduaren obenak kentzen dituzun Ori, entzun gure eskariak. / Aitaren eskui-aldetik eseririk zauden Ori, gutaz erruki zaitte. / Zu bakarrik bai zera Santu. / Zu bakarrik Jaun. / Zu bakarrik Goi-Goikoa, Jesukristo. / Gogo-Deunarekin batean + Aita Jainkoaren zorionean. Alaxe.

Eguneko Eske-otoitza

- Ap. Dominus vobiscum. (Zuengan bego Jauna)
Lag. Et cum spiritu tuo. (Bai zugan ere)
Ap. Oremus (Egin dezagun otoitz)
Ir. (Eguneko eske-otoitza edo otoitzak)
Ap. Per Dominum ... per omnia saecula saeculorum.
(Jesukristo gure Jaunaren bitartez)
Lag. Amen.

IKASTALDIA

(eserita)

- Ir. (eguneko irakurgaia)
Lag. (azkenean erantzun bezate) Jaungoikoari eskefak
Ir. (eguneko bi leloak)
(zutik)
Ap. Dominus vobiscum
Lag. Et cum spiritu tuo
Ap. Sequentia + Sancti Evangelii secundum N. (Befionaren zati au Luka edo N'renetik.)
Lag. Gloria tibi, Domine. (Aintza zuri, Jauna)
Ir. (eguneko Berriona. Itzaldirik baldin bada, ordea izlariak berak irakurri dezala.)
Lag. (azkenean erantzun bezate) Gora Zu, Kristo.

(exerita)

Izlariak (Meza gelditurik egin beza itzaldia)

SINISTEN DET

(zutik)

Ir. Sinisten det Jaungoiko,
Lag. Aita alguztidun,zeru-lurren egillea,/ ta bere
Seme bakar Jesukristo gure Jauna,/ Espiritu San-
tuaren egitez sortu/ ta Andre Mari Birjiñagandik
jaio zana,/ Pontzio Pilato'en mendean nekaldua/
gurutzean iltzatua,illa ta obiratua izan zana;/
inpernutara jetxi ta irugarren egunean illen
artetik piztu zana;/ zeruetara igo ta Aita al-
guztidunaren eskui-aldetik eseririk dagona;/ an-
dik biziak eta illak epaitzera etorriko dana./
Sinisten det Espiritu Santua,/ Eliza Santu Ka-
tolikua,Santuen alkartasuna,/ pekatuen barkame-
na,aragiaren piztuera,betiko + bizitza.Amen.

MEZA OPARI SANTUA

OGI-ARDOEN ESKEINTZEA

Ap. Dominus vobiscum
Lag. Et cum spiritu tuo
Ap. Oremus

(exerita)

Ir. (eguneko eskeintz-leloa)
/rdo bestela kantatu bezate "per omnia sae-
cula saeculorum" arte abesti bat;aguneko jaiaz
edo eskeintz-abesti dedilla ordea)

Ir. Torizu,Aita Santu,Jaungoiko guzieldun betiko,
ogi-ardoen opari Kutsugabe au.

Lag. Guk,zure morroi aul auek eskeintzen dizugu,/Ja-
ungoiko bizi ta egiazko Orri,/gure neurrigabeko
pekatu,uts eta zabarkerien ordo,/Zure aurrean
gauzkazun guzion alde,/ta bizi edo ildako kris-
tau zintzoen onerako./ Guretzat eta aientzat

betirako on-iturri dedilla. Alaxe.

- Ap. Orate fratres
- Ir. Egin dezagun **otoitz**, Anaiak, zuek eta nik eskeiñi-tako ogi-ardo auek Jaungoiko guzialtsuak onartu ditzan.
- Lag. Artu beza Jaunak opari au zure eskutik, / Bere izena goratu ta aintzaz edertzeko, / ta gure animen eta Eliz Santu guziaren onerako.
- Ap. Amen
- Ir. (eguneko eskeintz-otoitza edo otoitzak)
(zutik)
- Ap. Per omnia saecula saeculorum.
- Lag. Amen

OGI-ARDOAK KRISTOREN GORPUTZ-ODOL BIURTZEA

Esker-kanta

- Ap. Dominus vobiscum
- Lag. Et cum spiritu tuo
- Ap. Sursum corda (Gora biotzak)
- Lag. Habemus ad Dominum (Jaunagan dauzkagu)
- Ap. Gratias agamus Domino Deo nostro (Eskerrak Jainko gure Jaunari)
- Lag. Dignum et iustum est (Egoki ta bidezko bai da)
- Ir. (eguneko edo aldiko esker-kanta)
- Ir. Santua
- Lag. Santua, Santua zera / Aingeru ta gizonen Jainko Jauna. / Zeru-lurrak Zure dirdaiez beteak daude. / **Onetxia** † Jaunaren izenean datorrena. / Gora Zu goialdietan.

(Belauniko)

Eliz osoaren alde otoitzean

- Ir. Zeruko Aita guziz onbera, Zure Eliza santu osoaren alde eskeintzen dizugu lenik Meza au.
- Lag. Emaiozu pake, babes, elkartasun, / eta bide zuzen lurbira osoan; / baita zure mirabe Aita Santu N. ri, / gure Gotzai N. ri, / ta Apostoluen siñeske Katolikoa / aitortzen duten kristau zintzo guziereni.
- Ir. Gogoan artu, Jauna,
- Lag. Meza au ateratzen diegun Zure neskame-morroiak. (orain Jaungoikoari agertu zeñien alde edo zertarako emen eskeintzen diozun bereziki Meza au)
- Ir. Baita ere,
- Lag. Zure aurrean gauzkazun guziok eta gure sendikoak.
- Ir. Nere morroi-opari,
- Lag. Ta Zure etxeko guzian opari au / aurpegi onez ar zazu Jauna; / emaguzu pakea gure egunetan, / betiko sutatik gldendu gaitzazu / ta Zuk aukeratuaren artaldean sarrerazi. / Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Alaxe.

Mezerdia

(Apaizak belauniko egite bakoitzean, burua makurtu zazu Jauna gurtzeko; apaizak Jaunaren Gorputz-Odolak jasotzean berriz, begiratzuz esaiozu: "Nere Jaun eta Jaungoikoa".)

Aitari Kristoen Gorputz-Odolak eskeintzea

(Kantatu bezaiote Aldare-gañoeko Jaunari abesti bat "Per omnia saecula saeculorum" arte; edo bestela esan bitzate otoitz aukeratu)

- Ir. Au egingo dezuten bakoitzean, nitaz gogoratu zezate.
- Lag. Beraz, guk Aldareko Zure morroi,
Ta Zure Erri zintzoak, / gogora ekarriz Jauna /
Zure Seme Jesukristo gure Jaunaren Nekaldi santua,
/ lurpetik Piztea ta Zerutara Igotzea, / Zuri Jainko aundi ta arkitsu Orri, / Zerorrek eman diguzunetik,
/ Opari garbia, Opari santua, Opari itsalgabea /
eskenintzen dizugu; / betiko bizirako Ogi santua / ta betiko osasunerako Odola.

Ildakoen alde otoitzean:

- Ir. Oroi zaitte ere, Jauna,
- Lag. Kristau zintzo izanik, / pake-loan dauden Zure neskame-morroietaz.
(agertu Jaunari ildako zeinen alde eskeintzen dizun Meza au)
- Ir. Jauna, oriei ta Kristogan atsedean duten guziei,
- Lag. Toki garbi, paketsu ta atsegiña, / amaiezu arren. /
Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Alaxe.
- Ap. Per omnia saecula saeculorum
- Lag. Amen

KRISTOREN GORPUTZ-ODOLAK GURE JAN-EDARI

Jaunartze-aurreko otoitzak

- Ap. Oremus
- Ir. Ausartu gaitezen esatera, Jesukristok berak erakutsi ta egiñerazi zigun otoitza:
- Lag. Aita gurea, zeruetan zaudena: / santifikatua izan bedi zure izena / betor gugana zure erreinua: /
egin bedi zure borendatea / zeruan bezela lufean

ere./ Emaiguzu gaur gure eguneroko ogia:/ barka zaizkigu gure zorrak / guk geren zordunari barkatzen diegun bezela / eta ez gaitzazu utzi ten tazioan erortzen / baizika libra gaitzazu gaitzetik.Amen.

Ap. Per omnia saecula saeculorum.

Lag. Amen.

Ap. Pax Domini sit semper vobiscum (Jaunaren pakea bego beti zuekin).

Lag. Et cum spiritu tuo

Ir. Munduaren obenak kentzen dituzun Jainko-Bildotsa.

Lag. Gutaz erruki zaitte (bularra joaz)

Ir. Munduaren obenak kentzen dituzun Jainko-Bildotsa

Lag. Gutaz erruki zaitte

Ir. Munduaren obenak kentzen dituzun Jainko-Bildotsa

Lag. Emaiguzu pakea.

Ir. Nere Jaun Jesukristo, gauz ez izan arren, Zure Gorputz santua jateko asmotan nago. Jaunartze orregatik, ordea, ez zaidazula emen epai txarra ta betiko sua, Zure errukiz gorputz-animen babes eta osasuna baño. Ainta Jainko ta Gogo Deunarekin batean gizaldi gizaldietan Jainko ta Errege bizi zeran Ori.

Lag. Alaxe.

(Mezaurrean "Confiteor" (Nik, pekatari) esan ez bada, Irakurleak asi dezala Apaizak kalizekoa edatekoan).

Ap. Misereatur vestri omnipotens Deus et dimissis peccatis vestris perducatur vos ad vitam aeternam. (Erruki bedi zuetaz Jaingo Guzialtsua ta zuen obenak barkaturik, eraman zaitzate betiko

bizitzara).

Lag.

Amen.

Ap.

Indulgentiam + absolutionem et remissionem peccatorum nostrorum tribuat nobis omnipotens et misericors Dominus. (Gure pekatu guziak barkatu, askatu ta garbitu ditzala Jaun Guzialdun eta errukitsuak.)

Lag.

Amen.

Ap.

Ecce Agnus Dei, ecce qui tollit peccata mundi. (Ona emen Jainko Bildotsa, ona Munduaren obenak kentzen dituna.)

Lag.

Jauna, ni ez naiz iñor, Zu nere barnean sartzeko/ baña itzbat esazu eta nere anima sendatuko da. (iru aldiz eta bakoitzean bularra joaz)

Jaunartzea

(Apaiza Jauna ematen asten danetik, "Dominus vobiscum" arteraño abesti egoki bat kantatu ditek)

MEZA SANTUAZ ESKERRAK EMATEA:

Ap.

Dominus vobiscum

Lag.

Et cum spiritu tuo

Ap.

Oremus

Ir.

(eguneko esker-otoitza edo otoitzak)

Ap.

Per Dominum...per omnia saecula saeculorum. (Jesuskristo gure Jaunaren bitartez)

Lag.

Amen.

MEZONDOA

AZKEN-AGURRA

- Ap. Dominus vobiscum
Lag. Et cum spiritu tuo
Ap. Ite missa est (zoazte, bukatu da Meza)
Lag. Deo gratias (Jaungoikoari eskerrak)

(belauniko)

- Ap. Benedicat vos omnipotens Deus, Pater et Filius +
et Spiritus Sanctus. (Bedeinka zaitzate Jainko
guzialtsu bakarria diran Aita, Seme ta Gogo Deumak)
Lag. Amen
(orain kantatu bedi zerbait, eguneko jaiiaz edo,
Apaizak aldarea kendu arteraño; bestela Apaiza-
rekin batean "Agur Mariak" esan bitez.)

AGUR MARIAK:

(belauniko)

- Ap. Agur Maria... (iru aldiz)
Lag. Santa Maria Jaungoikoaren Ama / erregutu ezazu
gu pekatarien alde / orain eta gure eriotzako
orduan. Amen.
Ap. Agur, Erregiña,
Lag. Ama errukiorra: gure bizi, gozo ta itxaropena, a-
gur! / Zure deiez gaude Ebaren ume erbestetuok: /
Zuri aiezke, antziz ta negarrez negar-erri one-
tan. / Ba, bada, itzuli itzazu gure bitarteko on
Orrek, / itzuli gugana zure begi errukitsu oiek, /
eta erbeste onen ondoren erakus zaiguzu Jesus, /
zure sabeleko Seme bedeinkatu Ori. / O biozpera!

O errukior! O Maria Birjiñ gozoa! /

- Ap. Otoitz egizu gure alde, Jaungoikoaren Ama Done Orrek.
- Lag. Jesukristo gure Jaunaren aginduak irabaz ditza-
gun.
- Ap. Otoitza. Igesleku ta indar zaitugun Jainkoa, otska daukazun Erriari aurpegi onez begira ezaiozu; ta Jainkoaren Ama Maria, Birjiñ garbi ta ederra, bere senar Jose doatsua, Pedro ta Paulo Apostoluak eta beste santu guziak bitarteko ditugula, pekatarien onbideratzeko ta Eliz Ama Donearen askatasun ta izen onerako egiten dizkitzugun otoitzak, errukiz eta biotz onez entzun itzazu. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.
- Lag. Alaxe.
- Ap. Migel Goiaingeru Donea, burrukaldietan izan zaitte gure babes; ta etsaiaren gaiztakeri ta zirikaldietatik gorde gaitzazu. Arren, Jainkoak zapaldu dezala. Ta zuk, zeru-gudarien buru zeran Orrek, animak galduarazten munduan dabiltzan Satan eta beste etsai gaiztoak, Jainkoaren indarrez, inpernuko zulora amildu itzazu.
- Lag. Alaxe.
- Ap. Jesusen Biotz guztiz santua (iru aldiz)
- Lag. Gutaz erruki zaitte.

Baztarrika tar Ixidor

Lazkao ko beneditarra

FILOSOFI-SAILLA

MARCELINO MENENDEZ
PELAYO, JAKITUN

KATOLIKUEN ERREDU

A S M O A

Zergatik ote dabilkidan gai au? M. Menendez Pelayo aundia jayo zaneko eungarren urtea ospatzen da aurten. Gizon ospatsu, jakitun aundi eta katoliku leial ari urte oso-ko omen-aldia opa zaio. Bidezko derizkiot gu ere, omen-apurño bat beheren eskeñiz, erdikide agertzea. Gu, diot, bai; guk dabilkigun euskera adierazteko. Izan ere, euskerak -M.M.P.'k gaztelera ta katalanera, bi izkuntz oiekin parez-pare nai zun euskera, itzegin eta abestu, Ruíz Gimenez Ministro'aren aitorez Gazteiz'ko apaizgaiñegi'aren Jaialdietako itzaldian-, euskerak zor dio berea Menéndez Pelayo'ri: Jakin-bideetan aurrera dijoazen izkuntz garaien neurriko bear lukelazko aitorra.

Agertu bekio euskerak bere eskerrona, ta nik, bide batez, katoliku oso ua gorai patu dezadan, katoliku ikasi ta

Jakitunen eredu dalazkoa azaltzen saiatuz.

Asmo au egitaratzekoan bi zati nagusitan erdibitu det nere idazlana. Bigarrena urrengorako utzita, bijoia lenengo: "M.M. PELAYO JAKITUN " zalazkoa azaltzea.

LENENGO ZATI

MENENDEZ PELAYO JAKITUN

Aipa dezadan, gaiari bete-betean lotu nakion aurretik, gizakiok geienik bat izan oi geran neurritz gairdiko genula M.M. y P. Ala ote zan, ba, egiz? Ona erakusgarri zenbait. Emeretzi urte soi-soilik zitularik "Filosofia y Letras" eko Irakasle-izena jasoko baldin ba'zun, azalkizun bereizia "tesis doctoral" egiztatu bear-eta -arrigarria!- begira zer gai aukera zun: Latera-idazleen arteko nobelagintza edo "la novela entre los latinos". Edonorentzat gai zailla benetan. Izan ere, Marzelino beraren aitorrez, une askotan etenik arkitzen bait da "Satyricon" eta "Asno de oro"-oiek aztertu zintun bereziki nobelaen aria, gizaldiz gizaldi zati asko galdu zaizkalako-edo.

Ba'du azalkizunak beste alderdi zailla ere, emeretzi urteko gaztetxo arentzat baitipait. Zer? Petronio'k, "auctor purissimae impuritatis", izaki, derabilen gordinkeria. Bi arrisku oietatik (neke on'artatik eta arrisku ontatik, obeki) -Granada'ko Gongotzain Rafael'en iritzia da- Marzelino M. y Pelayo beste emeretzi urtekorik etziteken garaile irten eta ori kalte gabe. Begira kalte gabe irten zan ala ez, Prantzi aldeko realismoarekin berdintzen bait ditu Petronio ta Apuleyo, ezagutuz, mintzaeraz txukunago diran oraingoak berak pozoi kaltegarrikoa dakarkigutela barruan.

Bijoaz ezaugarri geiago. "La Ciencia española" idazten ogei urterekin asi zan. "Españi'ko siñausleen kondaira", berriz, ogeita ta bitik bostera idatzi zun. Ba'ditu onek bigarren agerraldian bosteun banako zazpi ale aundi. Berealaxe ekin zion "Españi'n barneko ed rrizti edo estetikaren kondaira" ri. Zertan jarraitu? Aski degu oi dan giza-neurritz

gaindikoa zala adierazteko,edo gutxienik ere,urrutira usmatzeko.

M.M.y Pelayo beraz,jakitun;intelektual,erderaz .

Izen ontaz jabetzeko ez da,noski,bear bearrezkoa pilosopu naiz-ta teologu izatea. Beste sail askotan ere irabaz diteke. Geiegi esatea ote litzake M.M. Pelayo ikasgai askotan zala jakintsu,jakitun edo intelektual? Adibidez,kondaira-idazle ta eleder-zale berdingabe zan bere berezko griñaz. Au edonork ezagutu dio naiz-ta bestela mintza Unamuno. Ezagutu zun irakasle ua,aundietsi eta maite izan zula,dio; M.M.Pelayo mutillak,orde,kalte aundik egin omen zitun bere azal uskeri aundiesalez,bere katalogo antzeko aldeketaz. Arek,Es pañi'ko siñausleen kondairagille alderdi-zale arek,i-kasle gazteeri berenez aztertzea eragotzi omen zien alperosaki errexa eskuetaratus.

"Antze ta Eder" artikuluan Orixe argiaren esanera,orde,"zer bildotsa Unamuno".

Ontaz gañera,aztertze edo epaille argia genun M.M.P. naiz kondaira,eleder,ederrizti ta naiz pilosopi-teologi gaietaz ere. Egi ontaz jabetzeko aren edozein idazlan iriki besterik ez.

Azkenik,pilosopu argia zan.

A) Pilosopu izatea zer da? Bergson'ek omen dionez,bakoi-tzaren oldozketa bereizi -besterenetik bere artan artu ezta-na-,egizko nortasuna,alako zer batean laburtzen da:Oñarri ta iturburu dan berez-ikuste edo oarpen argi argiz eragiñik inguruko guziekiko jokabide bakarra.Jokabide bakar au da,beraz,pilosopu danaren muña. Eujenio D'Ors'ek,ordea,zerbait geiago eskatzen du. Berez-ikuste ta oarpen argi ori,ikuste ta oartze utsean geldi bearrean,azaldu ditzala,erakutsi ditzala. Ez,da,beraz,D'Ors'entzat naikoa jokabide bakar ori barnean sumatzea idazlea pilosopu dedin,bestela bere kolkorako bait diteke soil-soilik pilosopu. Neurri auek M.M.P'ri ezarririk,pilosopu zala aitortzen digu ta aren pilosopu-irakaskintz guzia "Ciencia española","Ziñausleen kondaira" ta"ederriztiaren kondairan" daudela. Ontaz gañera,"Ensayos de Critica filosófica" ere bai,noski,naiz-ta D'Ors'ek ezetz;Jaun Manuel Fernandez'ek "Humanidades" en baietz dio ta -ni ere baietzkoan- li-

buru ontaik artu bear det nik geroxeago erakusgarri bat oso gogoko zitzaion Vives´i buruz diona,alegia.

B) Pilosopu ageri da "Ciencia española"´n.

Iru iritzik zirikatatu zuten,noski.

Lenena:Gumersindo Azcarate´k ziona:XVI´tik XVIII´rako iru gizaldietan zearo ito zala Españi´ko jakintza-eriketa.

Bigarren:Rivalla´k zionez gezur-ipui besterik etzan Españiko pilosopia.

Irugarren:Españi´n etzala pilosopi-irakakintza berei-zirik sortu,ta "Inkizizioa" izen zala jakintz-ikasketa oro gel arazi zituna: Perojo´k zion au.

Iru oien aurka,txantxetan ere,iru pilosopi-irakaskintza edo eraketa aztertzen ditu,bakoitza zenbait eta zenbait jarraitzallerekin. Vives´ena -gero azterturen degu apur bat-Lull´ena ta Suarez´ena.

C) Pilosopu"ziñausleen kondaira"´n ere.Kondaira sakon au teologiarekin zearo elkarturik dago,ziñauslerik geienak -lenenak baitipait- Elizaren siñiskaien aurka edo heroietatik bazterreraturik mintza bait ziran. Beraz,teologu ere,teologu zala ba´nioke,enindeke lenen ontan. Ain zuzen ere,Grabman aundiak Españiko irakaslerik argien aitortuz,goileku damaio teologi-kondaira-idazleen artean. Berebat Granada´ko Gongotzain Garcia y Garcia de Castro jaun argiak.

Au guzia onela,ziñauslerik geienak teolu izaki, pilosopia zebilkiten eztabaiden gai,arrazoia siñismena baño goragotuz. Ez uste,gero,nolanaiko kaskariñ ziranik asko ta asko. Buru azkardun izaki ta,beraz,bereko,ez da arrigarri bigurrikerira baztertzea. Buru azkardun ziñausle argi oien iritzi ta zergatiak azkeneraño aztertuz mintzo zaigu M.M.Pelayo. Ez diteke,beraz,pilosopu makala,nolanai ere. Ala baño, sistema edo eraketaz ez galde,essanen baitut gero zerbait.

D) Berebat pilosopu "Españi´ko estetika usteen kondairan" M.M.Pelayo´ren lan au bi itzetan zirriborrollotzeko, au diagoket. Lenen-lenen ederraren metapisika egin oi dula jakintz-idazlez idazle edo pilopuz-pilosopu,Palaton bere

kutunagandik asi-ta orainaldiko Kant eta Hegel illunzaleen iritziak aztertuz beroien ondorengo ezagunenganaño. Arrigarriro aztertzen ditu bi illunzaleen iritziak, bigarrenari orainaldiko Aristoteles deitzen diolarik.

Eder-jakintzaz edo ederraren metapisikari antze-jakintza erasten dio, edergintzale garaienak aztertzen ditularik -edo eder-lan berak, obeki -eleder eta musika, baitipait. Jakingarri da M.M.P. berak zer iritziren jabe ote zan eder-jakintzan. Benedetto Croce-ren ustez etzun M.M.P'k iritzi bereizirik eta jakiñik, idealismutik (eder-metapisika zale adierazi degu) empirismura bidean oinkoalako zebillela, baizik. Jakitun berak eman zun erantzun itazurrean eta guk ere zerbait aipa ditugun bi saillak bereiztetik dator argibide guzia. Eder-jakintza aztertzeoan metapisika-zale ta idealismu-zale dan bera, empirismu-aldeko ageri da antze-lanak aztertzeoan. Empirismu au, orde, azaldu dezagun zer neurritakoa dan. Ezta, noski, pilosopu-iritzi estua, ederlan edozeñi daron biotzikara sumagarri izaki, jario oiek atsegiñez sumatzea ta onartzea, baizik. Onela ulertuz, naiz metapisika zaletasun eta naiz empirismu zaletasuna, egi-egia da bi-bion artean dabillela M.M.y Piren iritzia bat eta beste bait zaizkio aztergarri ta, aldiz, atsegin ere.

E) Aipa dezagun "Ensayos de crítica filosófica" ere. Emen ere pilosopu argi ageri zaigu -J.M. Fernandez'ekin aitor dezagun, -naiz-ta D'Ors'ek ukatu kondaira uts dala esanaz-bere "Vicisitudes de la filosofía platónica en España" 115 orrialdetan adieraziz eta arego -nik uste- beste eun orrialdez "De los orígenes del criticismo y del escepticismo y especialmente de los precursores españoles de Kant". Bigarren ontatik ar dezagun, esate baterako, amar-bat orrialdeko zatia, zenbateraño aztertzen dun sakonki ta garai, naiz-ta alde guzietakoekin zenbateraño elkartzen dun eskuarteko iritzia ikusteko. Begira dezaiogun, beraz, adibidez eta esaten ari geranaren erakusgarri, zer-nola aztertzen dun Luis Vives'en pilosopia ta argi aski adierazi aren muña.

F) Luis Vives'en iritziak M.M. Pelayo'k pilosopukiro aztertuturik.

Kant'en bide-idekitzaille balitz bezela erakusten digu zenbat eta zenbat gaitan antzeko dirala adieraziz naizta doixtarrek Valenci'koaren berririk izatea zalantzaz jarri.

Vives'ek bi bidetatik jo-naia azaltzen du ezaguera-gailetan: nor beraz atarikoetatik barrura ta barrukoetatik atarikoetara, bestea. Bi-biok gerokoan Bacon'ek bat eta Descartes'ek bestea, aizatu ta ibilli bear zituzten. Vives bide-gurutze ontan arkituz asko nastu omen dira ari, naiz bat eta naiz bestea erantsi dizkiotelako. Korapillo au askatzeko Vives'en iritzi guziak batera bildu bear dira, iturburu bakafa bai dute: ezaguerari buruzko usteri edo teoria.

Egia da, onartzen du geren ingurukoan oarketa; baita gen barnean suma oi ditugunen oarketa ere. Batetik kant'en "Arrazoi Utsa" ren epaiketako aterapen, antzekoetara zun Vives'ek joera guzia. Bestetik, orde, siñismen bero arek eta -gelegikerien etsai izaki -gizadiaren usteeri zien begirape-nak eutsi zioten ondogean murgiltzetik. Aitzitik, Escocia'ko pilosopuen antzera igaro zun ondogea, gogape edo kontzientzia-rekiko usteri aren bidez. Egungoetan Willian Hamilton omen degu Vives'en antzekoen.

Berealaxe, oraiñaldiko au azaltzera jotzen du M.M. P.'k, berak ez ditula sortu esanaz, doixtarrek Irakasle-azal-kizunetan erabilli dituztela geiena, baizik, azalpen oiek. Lennen, egiaren ezagutzalle dan almena azter dezagun; "veritatis examinandae facultas", dio Vives'ek. Ontarako Kant'en tanke-rara bereizten ditu: "adimen" "mens" eta "arrazoi utsa" "dianoia, cogitatio". Gaiñ-gaiñeko almen dan Arrazoi Utsa' ren e-gitekoea au omen: gorputz zentzumenak eta adimenak ematen dizkioten gaiak erabiltzea. oldoztea. Nola, orde? "Forma sintetiku" edo diralakoan bidez. "Naturales informationes in omnium animis impressae insculptaeque notiones". Ez dira ala ere Platon'en uste berezko ta jaio-gabeak, naiz askok ala uste. Garbi erakusten du Vives'ek gorputz-zentzunmenengandik aften dala ezaguera. Ez dira, beraz, uste edo idea; oldozteko bide ta aurrerakizunak, baizik, "catalepsis". Ezta ere ez daude izan-be-tean; izan-bidean edo potentzian, baizik. Ez dira ezaguketak

edo ezagutzeak; borroien azi,baizik.

Kant'ek gai gorpuzki ta gai formala bereizten ditu. Au bera Vives'ek ere.

Gogo edo ispiritua gorpuzkiari erasten dion legami antzeko zer ortatixe sortzen da ezaguera, bai dio. Adibidez azaltzen digu au bera: sendatzalleak botikak jartzen ditun ontzien antzeko omen dira, zer oiek, forma oiek. Ala ere, irudia ez da guzira, Vives bera ezagutzen duanez. Ala dio: "Zerbait ba dala naiz ezetz, onela naiz bestela, egokitasun oiek ala besteak ditula diogunean, gure adimenaren iritzira epaitzen degu; ta ez, diranez-diran. Zerbait on ala txar dala, naiz, onuragarri ala alperrikako dala diogunean ere, berak diranez ez baña, guri iduritzen zaigunez irizten degu, naiz-ta, al-diz, zentzuen iritziak eta arrazoiarenak elkarrekin moko-moko gerta. Gauzetaz, beraz, ez degu diranez-diran irizten eta epaitzen, guri iruditzen zaizkigunez diranik esan nai. Protagera Abdirita'ren gisara, alegia."

Ontan ere Vives'ek antzera dioke gerokoan Kant'ek izadiari, gauzeri gure usteak "conceptu" erasteko ez degula eskubiderik.

Ba du Kant'en antzik aski Vives'ek aren "fenomenu" ta "numenu"ren tankerako zerbait bai dio. Batari "ukigai" edo "ukigarri" deitzen dio. Besteari infolako zentzumenez ukigaitz dan barruko, barru-barruko zerbait, barnean gorderiko indar. Bere itzez, "quid intimum, vis intus latens". Ta onen berririk ez damaigute ez gure zentzumen, ez "adimen" "mens" eta ez "dianoia" "arrazoi utsak" ere. Oneraño, beraz, Kant'en antzeko. Oinkada bat aurrera Hegel'en idealismu'an murgilduko, noski. "Nork jakin -bai dio Vives'ek- gauzen jokabidea soil-soilik gure usteen jokabide danentz? Izan ere, neurtzalle duten adimena beste neurririk ez bai dute gauzek, izakiek, "omnis mensura rei non est sed mentientis animi".

Auek onela diralarik ere entzun egi-ezaguerarik ukatu, etzun etsi, etzan "eszeptiku"; egi-antz edo probalidadearen aldeko, baizik. Sorkun edo kausaren eragiña ondorengoagan bear-bearrezkotzat zeukan. Sorkuna ezagutzeko bidea zentzumena oartzten dutenetik barna daukagula. Auxen da "lojika induktiba", Bacon'en antzera mintzatzen dalarik.

Egi-antz edo probabilidadea aztertuz, Barthélemy Saint-Hilaire'k dionez, berri gerta zan garai artarako ta aurrerapen aundi. Egi-antz, uste-izate, buruste, egi ziur eta egi ageri ez diran arren bestaldekoak baño taju obeko oldozketak omen dira Valentzi'arrarentzat geroko jakintz-aurreapenon iturburu. Ez, berriz, oinbesteraño eskolastikoen eztabaida ta zorroakeriak.

Au guzia onela izaki ere, ontzun ordurarteko Aristoteles'engandiko metapisikarik bantertu. Izan ere, Kant'ek "Arrazoi Utsa"ri "Ekintza arrazoi" erantsi zion bezela, Vives'ek egi gai dun "oldozketa-arrazoiari" ongintza gai dun "ekintza-arrazoi" erantsi zion. Ontaz gañera, Escocia'erekin eta geurkoetan Hamilton'ekin Vives elkartzen dun eta, bide batez, egi-ezagueraz ezin etsiarazten dion iritzia ere jakingarri da. Gogape edo kontzientziaren esanari itxu-itxuan eltzen zion Vives'ek, "juicio natural" deituz. Gogape orrek ziona gezurtakaitza izaki Valentzi'arraren ustetan, errex iges zezaloken egi-ezaguera ukatzeari, edo "eszeptiku".izateari.

Onelatsu aztertzen dizkigu M.M. Pelayo'k Vives argiaren erakusketak eta aren pilosopu-iritziak. Adibidez eka-rrri dot Vives'en "Prima Philosophia"ri geienik bat eman zion azterketa. Ez uste zatirik onena aukeratu diotanik, "Ensayos de la critica filosófica" liburuaren 164'tik 175'grren orri-aldera egokitu zaidana, baizik. Aurreraxeago aipa dezaket bes-teren bat. Oar dezagun, arrigarri dala sakon aztertzeaz gañe-ra, oinbeste pilosopuren iritzia elkartzea. Bera pilosopu ez danarentzat eziñezko.

G) Zer pilosopi-eraketa edo sistemaren jabe ote zan? Jarrai dezaiozun J.M. Fernandez'i galde oni erantzuteko. O-nek dionez, iru joera bereizi arki ditzakegu M.M.P.'gan.

Lenengoa: Vives'en eraketa. Onen aldeko da "Sciencia española" n, eztabaidari jarraiki.

Bigarrena: Aristoteles'i jarraiki "idealismo realista" Fernandez'en itzez. Ziñausleen kondairan" ikusbide zuz-oker guzien iturburu metapisika ukatzea dala, ontatik bai da-tozke Jainkoa, gogo, aukeramen, Jainko'aren gizadiarekiko ardu-ra ta abar, ukatzeak. Ontaz gero, metapisika-zale ta aldeko pu-éukatu gertatu zan.

Irugarren: bazterrera eziñezko zitzaion Palaton'ena; umanismo-aldeko bait zan eta ulergarri da. Eder-jakintza-usteak aztertzekeoan baitipait, maitemintzen zaigu Palaton'ekin. Gai ontan atsegiñenetakoa du eta bere ederlanekiko iritzirik ezin diteke Palaton'en joeraz antzu.

Nola elkarrekin konpondu? Vives, jakintza-bidez ezik, Aristoteles'ekin bat dator. Palatoñ berriz, ezin diteke bere ikasle argienarengandik zearo bereizi, M.M.P. berak "Palaton'en eraketa Españi'an barna" itzaldi gorai patu artan azeltzen duenez, naiz-ta Erdi-Aroan elkarrekin moko-z-moko jarri ba'zituzten ere.

Eraketa bereizirik ez genezake, orde, arki M.M.P. ren idazlan etengabea. Bidezkoago dirudit -Fernandez'ek dionera bilduz- pilosopi-alorrean (pilosopi-elkalderrian, obeki- uri-gabe antzo zala M.M.P. Ez ala ere ijito antzera, ludi osoa bere balu bezela dabillen aberaski agintedunaren antzo baizik.

Bestalde eraketa berri ta bereizirik ez asmatu arren -onuzkero oso zailla! berealaxe sartzen bait dituzte lenagokorenen batera- pilosopu jatorkiro jokutzen zan beti: lenen, azterketa edo analisis egiñaz eta bereala pilosopi-eraketa bakoitzaren bapide, laburketa edo sintesis ezarriz. Ez al degu pilosopu betearen jokabide? Batez ere azterketa edo analisis ori bete-betea sartzen da pilosopiaren muñean, edozer gauzen zergatiaz galdetu ta erantzuten bait du.

Zati au bukatzeko -orainartekoen ondoren eta azalpen nagusitzat- bijoa beste bein J.M. Fernandez'en iritzi tra logarria. Len aipaturiko lau gaietan jakitun izatea, onela el karturik erakustem digu "Humanidades" en: Kondaira egitekoan, epaitzekoan eta elederrez mintzo danean, pilosopu ageri zaigu la. Kondaira idaztekoan batbatera epaille, elederzale ta pilosopu dala. Era berean, epaitzen ari dalarik ere kondairagille, elederzale ta pilosopukiro mintzo zaigula. Itz gutxitan argi adierazi digu "Humanidades" aldizkariko idazle onek.

Oinbestez, zati ontarako naiko!

Gaztañaga' r Jexux
Donosti'ko apaizgaia

ERLIGIO-SENAREN ESNATZEA

Erlijiotasunaren azkortze-bidexkak aztertzerantz na-tortzu. Goitik begi-kliska batean begiratu dut guztia, ta i-kusiko dugu gizon eldua zelan fede-bizitzaren jabe egiten dan. Ezta erlijio-bizitza gizonaren nortasunetik bakandu di-tekean txatal bat bakarrik; bizitza onek giza-nortasun oso-osoan daroa. Erljio-bizitzaren alderdi guztiak ezagutzeko, al-diz, lenago erlijio-bizitza zer dan ikus bear dugu. Arlo on-tan Psikologia garrantzi aundikoa da. Agustin Gemelli dut, bere "Psicologia de la edad evolutiva" liburu oderragan, gi-datzalle.

Eztago erlijiorik, berak damoskun egieri fede-er-axi eztagiogun bitartean. Eratxitze onetan adimen egipena bearrezkoa da, ezta aski, ordea, naimena ere bearrezko baita. Goi-agertuko egitzaz fede egiketa egon dadin, psikologi al-detik zer dan edo eztan bearreko, ikarik eztugu zorrostuko e-men. Erljio-bizitzari bere baitakoi aldertik soilki so e-gingo dautzagu, bere objetibotasuna saieztuaz; ezbaida au psi-kologi-landan jakin iturri. Erljio-bizitza ta nortasunaren azkortzea eskutik doazala itzuriko dugu.

Erljioa baitakoi begiz ikusita, gauza guztien le-nen-erazle (causa prima) ta egille dan norbaiten ezaguera da. Jainkoaren naira menperatzea be ba-diteke. Danadala adimen ta naimen-aren egipenik gabe eztago erlijio-bizitzarik. Ba-ña eztira naiko. Biotzak be badauko euki bere arloa, ta kon-fianza, zintzotazuna edota biotz-emotea dozuz bere agerkunak.

Bestegandikotasunaren bearra be argi ta garbi dakusgu erlijio-bizitzan, ta beartasun onetan oldezkoa zerbaitxo dagonik ezin uka daiteke. Siñezgogor baiatzu, ikus azkorterako len-pausoetako agerkunak. Umea umil kukulduta aingeru irudiki otoitz itxuran jartzen bada, eztu ikusi-ikasia bakarrik, bere oldezko joera bat baizen. Ezta umea oraino, erlijiotasunerako bearrezko diran adimen ta naimen jardunen jabe, ta bestenaz, bere otoitz-egoerak, erlijio-bizitza daramaten guzien antzekoak dozuz. Umeak erlijiotasunerako joera bizi-bizia du.

Pausoz-pauso umearen azkortzea jarraiki ukusiko dugu bere erlijiotasunaren tantaitzea.

Umearen erlijio-bizitza poz eta bildur kukuka diñardu. Bere erlijio-yarduntzaren izakiak, eztira ametsak sorturiko notin edo personak baizik. Adimena biribiltzean ostera, ainko ta zero auzodi dan-dana goi-jatorrizko argiz girdir erditzen dauz bere adimenak. Zeruko Aitaren aurpegia, bere aitta edo aittittarena baleiteke mutikoarentzat, ta Ama Birjiñarena, amarena-edo. Lenen urteetako erlijio-bizitza azal-azalekoa dugu. Bene-benetako erlijiomena Jainkoaren izatea ulertzen eztaño, ezta ez asten ez ernetzen.

Argi ta garbi dakusgu mutikoaren erlijio-bizitzaren azalekotasuna, geriko urteetan, konturatu gabe ta iñoiz euki ezpaieban, galdu egin baititeke edozein erlijio kutsu. Len siñez-arazten eutsan zaarragoen esperientziak garrantzi ta eragipena beretzat galdu egiten ditulako izan daroa. Mutillak bere ikasi-bizitik xurrupe dagi, realista zoro izateraño, besteen bizi-ikasia zokoratu-ta. Umetarako erlijio-notifik orduanik ipuin barregarri yakoz.

Erljio-ikasketan mutillarentzat guztia kaltegarri liteke bere erlijio -ezpaitan galdeka doanengandik erantzun tajuzkoa ez artzea. Gizon elduengan ustea galduaz, bere ikasi-bizitik eztasaguna bastertzeraño doa. Urte onexek dira gazteak bere ezagutu-egarri bizian erlijio-siñes-gai guztia erdefiatzen ditun urteak.

Umea gaurgoitik bizarraroan mundu ezezagun baten aurrean daurkizu, ta ezer eztafila baitaratzean, guztia ezagu-

tzeko gurari bizi bat sortzen yako. Alde batetik len izan dana izateak kilikili mingokorra dagio barrenean, bestetik, bere ezean okilduta, bere biotz osoa kokatzeko beste biotz bat etedan galdeka ari. Inoren gan siñes baleza! Balciteke orratiño bere gurari bizi onen itxunantuan, sasinaixuren baten erlijiokeriaz bide-makurreratzea.

Bizarraroan sartunago ta erlijio-problema gordintzenago; lazapena, ordea, bere bizitzan gazteari garrantzizkoa ez tirudio. Zereko-zeren batek artega dabil, eztaukon zertxo bateb bearra; eztu ezagun, baña gabetasun orrek urduri daroa. Irrika onetan dagola dagerkio lendebizi mutillari erlijio-ideal en ederra.

Jesusek lilluratu egiten du gaztearen naimena; ta ezta onezkero zeruko Aita, bere aitta edo aittittaren antzeko, gizaki ametsgarri batena baizen.

Neskatrak aurreagokoak dira erlijio-azkortze edo azte ontan. Mutilla atzereago dator erlijio-bizitzara, ta arazo moral ta sozialak daroe. Au ordea, famili siñesleetan jayo ta ezitako gazte katoliko en artean bakarrik. Orretan be, yakingarri da, protestante en artean be auxe berau gertatzen dala. Protestanteetan be, gazteak adiñ-adiñez maite dabe Kristo, ta problema moral ta gizartekoek biatu erlijio-arazotazuna, aurrenen neskatxetan daurkigu.

Gaztarora ezker o, besteen batengan birloratua daku zen Jesukristoren elburua berengan niniarazten alegintzen da mutil katoliko. Eztu somatzen oraiño erlijioaren zerdana, ots, graziaren yardumena guregan, ta bere alderdi eragikorra yako ajolatsuen.

Baitarako itasuna (subjetibismoa) da soilki bizarraro erlijioari idukia damayona. "Dogma" en ikasteari uko dagitso, problema moral ta gizarteko en askatzea, begikoenik dula. Ta izatez ta berezkoa dan edo kritikari jaramonik egingabe, bere asmo oneik gallurreraño eroateaz ametsetan ari da gaztea.

Mutikotik gaztarora bitarteko krisis edo kinkan umetarako erliotasun baitakorra oso irabiatua izaten da. Badi tu oster a krisis onek otz-bero aldiak personatik personara, edo ta gizonez kotik emakumera be. Andrazkoek eztabez sakramen-

tu ta beste kristar yardunek beren balore reala edo substantziala artzen, beste baitarakoian baizen; ta gaztaroko atabururakoan burutik oñetara aldaturik dagozala konturatzen dira saminki. Sakramentu bizitzaren indarrak lilluratu egiten dira, kristau elkunek bidez lortua usteeben elburua, oraindik urrun baidakuste.

Atzipen onek, moral ta erlijio-erakundeak landu daberen mutilletan, umetarik gaztarorako kinka gorria erneten dau. Ezpen auen zergatia oster, politika ta gizarteko gertaketaz gainera aurrenik, katoliko deritzaienak euren elburuakin buruzki dabiltzala ikustea dugu. Erlijio-kinkak bere agerpen berezietan damoskun aldakera une onetan, gizonen gertakarien bidexka sistriñak ikuski, dan-dana gizonen gogara edo patuak gidatzen dau, burutzen du gazteak. Jainkoa baledi zuzentzalle, besterantzean ditezke.

Emakumeetan erlijioaren otzitzeak len kimen gutiaz egiten ebena nardatzera daroaz. Mutilletan, berriz, koloka une au, adimenaren jazkeraz apaintzen. Filosofi, politika ta soziologia ikasketan atsegiñez mulgiltzen da. Fede, Jainkoaren egipena munduan ta lege moral gaitzaz diñarduten problemak dauz onuratzuen. Erlijioak damoskun lasapena gutxietsi ta arazotasunari deus egingabe problema onek sen-arauz erabakitzea benetako grina da gazteetan.

Kinka onen aleak, beti ez tira, arean, utsak; erlijio, orobata edo ta Jainko-egarrria pizten dabe gaztearen biotzean. Baña Jainko au oraindik bere adimenak erdia duzu nolabait. Ezta erakartzen bere erlijioaren beste alderdi ta erro agerrien balioak: gogo-egoera zelan, alan onartungo.


Bizarraroko erlijio-bizitza betetasun ta umotasun gabe da. Bene-benetako erlijio-bizitza azkorketa buruan daukigu, ta barau gaztarokan azten da. Kristar gizonarentzat Jainkoa da guztia: bere bizitza, elburu ta bertorako bide bai. Ezta Jainkoa gizonaren beardun, baña bai gizona Jainko egiketaren mengo. Benetako erlijio-bizitzara eldu danak ondo baño obeto ulertzen dau.

Badauke oino gizaki eta natur-mallako uste ta baloreak bere aztarnatxoak, nortasun mardula garatu bitartean. Ordudanik ulertzen dau giza-almen utsez ezin leikela bizitzako jomugarik, ez ezagutu, ez burutu.

Bere bizitz bearrez eskasean, ezin leikez egundo gizonak, bere biotz ta adimena baketu ta norberen indar guztiarren beti artoga dirauke. Ta ortixek dakusgu, atea zabalik, bizitza ta bere mugen ta elbururatzeko bideen goi-jatorrizko ezaguera, bake zelaira daroaskun ezagutza, biotz-umil ta adimen erztiaz on artzeko.

Yon Kepa Guarrotxena

Arantzazu'ko teologilaria



GIZARTEZALEKERI - ARAUKETA

Gaur, edozein jakintz bidean, gero eta eraldaketa an diagoa dakusgu. Batzuetan nabarmenago, besteetan illuntxuago, baño. Orain, gizarteko arlotzez jarduki zer esan? Nabarmen al da eraldaketa aundirik? Nere gardiz, baietz esango nuke, ta aundia, azken urte auetan batez ere. Baña au arloaren landa izaki, gakiozan goien aipa ariari.

Gizarte-zalekeria edo "Sozialismoa" aztertzeko elburu dard. Orregatik, muiñari atxikirik, utzi ditzagun jardun bideak oro. Lenen, bere etorburua ezaguaraziko det. Arauketa au sortu baño lenago, Lakemenzalekeria edo "Liberalismo" a ludiant barna zebillen. Bai ondore kaltekorrak gizarteri egokitu zaizkiola! Bere xede au zan: norberak egizko dotriñaren neurri zuzena zanpatuaz, askatasunaren eskubideak bere tokitik at'ezarri.

Au da, askatasun bidean zuzentasunari jaramonik ez egin. Baña, lakementiar batzuk, beraz zekarzkin zituak ikuski, gizarteari laguntzera jo zuten; eta bai egin ere! Auek, orde jakiteke, beste bide bat artu zuten. Arrezkero, gizartezalekeriaren sortzea dazagu. 1825'garren urtea zan.

Marx'ek gogora arauketa

Ondoren berriz, Marx jauna gizartezalekeri onen eragille aundi ta beroena lez datorkigu. Bere arauketa edo "sistema" berria nork eztu ezagutzen? Onurakor ta egoki deritze it ba, artzaz zerbait adieraztea, laburkiro bederik.

Marx'ek asma arauketan iru gauz auetaz diardu gauzakizalekeri eraldaketa, gizarteko burruka ta "Plus valor" deritzan irititzaz. Ona emen bere arauketaren oñarri. Laburkiro, gizonaren kemenak edo Jaungoikoak gizon danari eman gogokortasuna gauzaki edo "materiarenkin" nasten du, gizartearen Izaki Coronekoa Laterria ezarki. Lenik, iru iritzi auek azter ditzagun zeatz-meatz. Ta ondoren, dagokien neurrian, os-teztuzko ditugu egizko dotriñaren arauz.

Dakusagun gauzakizalekeri eraldaketa nola gogalduzuan bere baitan. Bere aburuz, lur ontan dagozen izakiak oro gauzaki bultzadaren bidez sortu dira; orregatik, Jaungoikoaren izatea uka dagi, areago oraïndik, geroko bizitzaren itxaropenik ez du. Cero, gauzakia eraldatuz dualarik, eraldaketaren bultzada argi nabari oso iduri edo antz guzietan. Au da, goga i oikor, zuzen eta gizarteari itsatsi oiturak aldakuntza berdiña darakustela. Ona emen, bere iritzietao bat.

Ariari jarraiki, lagun-arteko burruka datorkigu bigarrenez. Gizarteko burruka au, Marx'ek, bere iritziaren arauz, bear bearrezkoa dala, diago; bide bidez, gizonen arteko berdintasuna iritxi nai du. Ta burruka onek diraun arteño, ez genezake pake zantzurik ikusi. Edestiak berriz darakusgu, burruka onek beti iraun duala gizartean. Orregatik, berejomuga gizarteko ezberdintasun au kentzea da. Orain bederen, dedilla onela, ta bere garaian epaituko degu.

Ta azkenez, "Plus valor" deritzan iritzia dagokigu a ztertzea. Au da gizartezalekeriaren miuña, egigea baiño. "Plus valor" iritziaren ezagutza, labur, onela adieraziko nizuke: Langilleari eman sariak ta lanaren aldiñak elkar duten aldia; iritzi onen arauz langilleari bere bizitzarako bear duan aña damaio bakarrik. Arlo onetaz zeoro mintzatzea egoki litzake oso. Ta onela fagigu gañera. "Plus valor" deritzan ontan bi kulatz nabarmendu ditezke: Erabilkunde aldiña ta aldatze aldiña. Erderaz, "valor usualis et valor commutativus".

Erabilkunde aldiña, edozein gauzaren irabazkiñean datza, norberaren beartasuna asebete dediñ. Aldatze aldiña orde, gauz batek bestegaz aldatzeko daraman gaitasunean. Berebat, Aristoteles ta Tomas Deunak berezgoa au oartu ta ezagutu zuten. Zerbaitengan nabarmentzen dira orde, bat bestearengandik.

Baña, Marx iritziaren arauz, aldatze aldiñaren oñarri lana da soilki. Gero, aldatze aldiñaren neurria gizonak lurrean dagine ainbat lan izan bear nai ta ez. Dirudunak langillearen lana erosten duanez, berarekin egia elkartez, oni dagokion neurrian eman bearko lioke, baña ez dagi orrela; bere bizitzarako bear aña bakarrik damaio baño. Pegira iritzi oñen muiñ anker ta egigea.

Eleiz-iritziaren arauz

Baña, ba'dakust, irakurle, zure begi zorrotz eta oarlea areago doala. Beraz, nere asmo ere orixen da. Orregatik, eskuartean darabilkidan korapillo au azkatzera natorkizu.

Gauzakizalekeri aldaketari buruz, gauz batzul, oartu bearrak dira. Lenen, ludi ontako izakiari, izatea ez datorkio gauzakiaren bidez, filosofiak darakusgunez. Adibidez, Jaingoa eta gizon-animak, zer ikusirik bai al daukate gauzkiarekin? Ez diteken gauza orixe. Gero, ludian gerta-jasoak gauzakiaren bultzadaz datoztela, edestiak argino darakusgu ezetz. Kistartasunak alegia, gauzakiari zor al dio bere izatea? Gizon zentzudunak gauzakiarengan ez, gogaiengan baño dakus.

Goazen aurrera ere. Gizartean dakusgun ezberdintasuna ez daiteke kendu gure oldez. Aitzitik, bere gogo zaletsua izatesgoaren aurka doa. Oartu gaitezen beraz, "Jaungoikoak eman adimenak ezberdiñak dirala, bai asmamen, bai osasun, bai indarrean; eta berebat, ezberdintasun ontatik berez datorkigu ezberdintasuna aberaskietan" (Rerum Novarum) Marx' ek berriz, gizarteko burrukaren bidez gizartean pakea ta lasaipena esarri nai ditu. Beretzat, ezberdintasuna dala jazarraldi auen iturburu, dasa. Baña, edestiari jarraiki, joan gizaldietan, gizartean pake ta baretasuna dakusgu burruka bidera jo gabe.

Ta orain, "Plus valor" deritzan iritziari buruz mintza gaitezen. Lenengoz, iritzi au gogamenaren aurka doa; nork ez dazagu, aldiñ aundia daukaten gauz batzu, gizonaren lanik nabarmendu gabe, adibidez, ikatzarri, urre ta abar; edo besterik, aldiñik gabe, naiz langilleak bere kemen guztiak lanean jarri. Gero, aldatze aldiñaren oñarri ez da lana soilki. Beste gai bearrezko bat ba'dazagu gauzen irabaskin ta gaitasuna norberaren bearrerako. Onela izaki, aldatze aldiñaren ne-

urria, lanak ez-ezik, ia bazkiñak darabaki. Ona emen, Marx'ek ezagutu etzuan gai barrezkoena; besteetaz lez, ontaz ere peit egin zuan.

Gizartezalekeri-aburu

Lenen, gizartezalekeri onen xede damaizut: "Gizonen aberaskiak, guztienezko bilduaz, norberaren jabetasun bakarrezkoa kendu dagi." (R.N.) Ta onela, gizonari berez ta legez dagokiona gizartetiarrak ez dute onartzen, ostera, lan dagiten gizientzako biutzearren. Ta aberaski auen jabetzat, ardibanatzeko, Laterrria dazarrite soilki.

Baña, au onela izalki, langillen bizitza latz eta nekagarria dagite. Langilleak iñoiz ez dagi lan besteentzako bere bearrerako baño. Orregatik, bere lanaren bidez, nekearen-nekez, irabazi duan saria zuzenez dagokio berari.

Areago oraindik, "langilleak, batez ere, sendiarekiko jabetasuna daramanez, lanarekin irabazi duan saria, bear bearezko zaio bere sendia dagokion neurrian azitzeko" (R.N.) Gizartetiarrak orde, langillen saria guztienezko biurtuaz, berai gogozko ta bearezkoena zaiena egiteko azkatasuna kentzen diete. Ta auek ezik, gurasoei dagokien bete bearra eragotziz, "berezko zuzentasunaren aurka doaz, ta aldi berean, sendia lur jota uzten dute" (R.N.) Au zuzengabeaz gañera, nolako jazarraldi ta nastapil dakarren gizartean!!!

Gizartetiarrak daramaten jo-muga gizon guztiak berdiñak egitea da; goien dakusgunez legezkoa ez-ezik, izatezgo beraren aurka datoz. "Bizi geraneño, gudan iraungo dute neke-oñaze ta lanbideak; Jainkoak gizonari, oben egin ostean, esan zion ezkerostik datorkigu jarauntzi nekagarri au: "Bekokiko izerdiz jango duzu, berriz lur biurtu arte guztian, lurrez egiña bai zera". (Gen.3) Ba da, orde, bizibide au ongitu lezaken zerbait. Gure gorputz-atalak, berez ezberdiñak oso, elkartzen diran bezela onera gizartean ere dagiteke errez; adibidez, dirudun eta txiro, nagusi ta langilleak elkar lagunduaz. Zein egite eder ta zuzena! Nai ta ez, bati bestearen bearra edo laguntza dagokio; "ez datorkigu aberaskirik, lan egin gabe, ta berdin besterik, lana aberaskirik gabe" (R.N.)

Gizartezalekeriak gizonci ez dagieke gaitz ezik, ezertxo ere. Eleiz Ama Doneak egia bide duala, "atzo, gaur eta beti gaitzetsi du arauketa au; ba, bere lokune larriena orri da, gizonak gezurrezko iritzietatik aldendu! (PIO XII'nak.)

Esan iritziaren aldakera

Orain arte, gizartezalekeria bat, ta iritzi bereiziarekin dazagu. Baña, Leo XIII'ñak "Rerum Novarum" azaldu zun ezkeroztik bi zatitan erdibitu zan. Baña, "besteak bezela, Eleizaren aurkako kutsu berdiña adierazten dute" (PIO XI'n "Quadragesimo anno").

Bat, ikusi arauketera azkosaz leunagoa dager. Aren ondore, negargarriak ikusi orde, beste bide bat artu zuan. Areago, "bere iritzia askotan Eleizarekin bat dator". (Q.A.) Iritzi onen aburuz gizarteko burruka beste era batera gogaltzen du. Ark baño leunago dagi oso. Gizonaren kemenak ere ez ditu lege austen, ta gutziago berari dagokiona kondu. Ala ta guztiz ere, "Eleizak darakusanakin ez datorke bat, ta bidegabe litzake biak berdintzea, beren xedeak ezberdiñak diranez" (Quadragesimo Anno).

Bestea berriz, ezberdiña oso alde guzietatik Eleiz-irakaskintzarekin. Guzien-zalekeria edo "Comunismoa" deritza. Nork ez dazagu gudozte anker au, gizarte osoa leize zulora daraman au? Arauketa au gizartezalekeriarengandik datorrenez, bere muiñ, Marx'ek asma iritzia da. Au orde, bere erara darakus baño. Oro bortxaz daragi; onela, gizonen ogasunak orontzako biurtu ditezen. Alde guztietan indarrera jotzen du; gizonen eskubideak ez ditu aintzat artutzen. Orain bertan, Hungria'n jazoa nork dakus ondo? Or ba, zer zitu edo ondore kalgorrak dakarzkion gizarteari.

Iritzi auetaz, Aita Santuak oro diote: "guzienzalekeri aburua berez donge izan ezik ezin diteke bere barnean bizi" (R.N.)

Eleiz-ezaubide gizartezalekerikiko

Azkenez, nere eta Eleizaren iritzi zuzena damaizut irakurle, orain arte diardugun guztietaz. Zure adimena, ba dakust azken itza edo egiaren zai dagoela.


Gizartetiarren irakaskintza iñoz ez diteke batu Eleizarenarekin. Naiz biak, gizonaren zoriontasuna opa izan, arek besteari dagokiona ez dagike. Gizonak bere zoriontasuna billatzeko, nun Jainkoarengan ezean? Au da zorion bidea, gizonaren azken xeda. Zoritzarrez orde, beste askoren billa dabiliz. Gizartezalekeriak ere orixe opa du, egi bidetik alden duaz bere xede edo zoriontasuna, lur ontako lasaitasunean ezazri.

Orregatik, "Arauketa au guztiz ezberdiña ta aurkezkoa da kristau egiarekin"(R.N.) Iñor ez diteke izan Jainkoaren seme ta gizartetiar garai berean; bat edo beste. Ta gizon guziak jomuga bat daukatenez, au da Jainkoaren naia egitea, Berarengan arkiko dute egizko Zoriontasuna.

Gogoan eduki ditzagun Aita Santuaren iritziak gizartezalekeritzaz. Betidanik, lan dagite nolabait bere aurka, ta batez ere azken urte auetan. Entzun ba, azkenez Pio XI'garren aolku eder ta zuzena: "Norberaren onginaian dago gizartezalekeria ez onartzea; areago, oroi zaitzte, gertazalekeriaren aita lakemenzalekeria dala, ta bere ondorengo guzien zalekeria.

Aranzadi'tar Pelix An.

"Villaro" ko Sakramentinoa



— ADIMEN —

GOITARREN —

BEREZITASUNA

Ludi-zear nioa ikusmiñ,egarbera egoz ... Erletxo loretik-lore bezela,lurretik ortzira,eguzkitik illargira,eztia asegarriren billa... Izaki loreetan Jaunak ixuri duan esku zabaltasuna xurgatu naiaz ... Bañan lurkoiak ezin ase naute. Berne-giroak aitziañ aidatzen nau ta ... ustekabean gizonaren gan erkitzen zaizkit lasaiki ikusmin-egoak ... Orra lurbira e rregea,adimendun aberats okitua,Jaungoiko emakorraren ixpilu bizia. Zeru-jauregitik jaulkitako bitxi-kutxa,gogo-adimen jabea.

Gizon aberaski onen aztertetan asetzen du zearo ene barne-miña. Or tinkatu nai nuke gaurko ikus-misketa,ega ukaldi batean adimen altsuetaraño igo nadin ta berezitasun oieza-bidez,Jaunaren gizonarekiko oparotasuna ezti goxo bailitza miaztu dezadan.

Gauza oroetan besela,emen ere izan-mallazko gorako zurubia daskugu. ~~Es da izanlan onen xedea bakanki igotzea, bañan orpoak sendotzeko adimen arrunta-xume izatezgoberrian atseden artuko degu, oldaykiago adimen goitarren aberria eldu gaitenez. An erakiko degu, aldegunean, gure egotza malkar aietako bistatzen berri jakinaz. Eta Jaunaren esku-zabaltasuna bereziki oietan esur-namitu ikusirik,bere elburu ta lenaia barneta geseake.~~

Adimena-Ikurkizuna

Gizonaren gogo-iturritiko ur-xirri-pa edo almen gogozkoa da adimena. "Berezko adi-gaia lurkoietako izabaita du lenen eta ezaupide onek eskutik darama Jaungoikoarenganaño"(1). Bere bete bearra, oarmenak oparo daskeinkion argaiak lantzean datza. Onela zentzu gaiak landuaz, gogai orotikor arnaria berez dakarki adimen zugaitzak. Bañan ez uste adabaki edo eraskin antzo ditsaskiola emaitz au. Egipen bizi, barnekoiaren indarrez damaigu adimenak gogai igallia, bañan beti oarkin edo zentzumen agintzapean.

Zentzu-azaupide zear diarduaz, irudiki ta oarkiak artuaz lurkoi patsa kentzen die adimen tolarean... Baserritar izkera agirituko dizut; zentzu-malla goitik dagerkigu adimena, bañan emen tinkatu bearna du bere orpoa. Tolareak sagarra bezela, oargaiak artuaz, adimen zur-esian ertsiki estutzen ditu ta ortarako duan indar bereziakin lurkoi kutsua ezabatu... gogai biurtuaz. Gañera orokor eta beartasun txertu dizdiratsua damaie. Baitetsi dezagun bada jakintsuen esakera, ez dago adimenean, oarmen seme izan ez danik.

Adimena, dio Mercier'ek, egige edo alezko mena da (intellectus potentialis) ta beste landako bultzakai zirraratzailea bear du adi-lanerako suspertu dedin. Adimen egikor eta egigea berez langilleak dira, egipenaren urreneko erro ta oñarri, bañan bata bakarrik konpondu diteken bitartean, besteak landako osakai bat bear du lanerako itzarri dedin. Bigarrenaren lagun bearrezkoa, bera errailetan zentzubidez irartzen dan eraki adigala da. Bi arazki egilleak damaiote almen egigeari lanerako erreztasuna, alkarren leian ustartuaz: irudimen eta indar bakantzalle ezgaitsuak (intellectus activus).

Adilan-zurubia

"Ezaupide arazoa aztertzen badegu, izakia idoroko degu bere euskai erabakitzaile antzo ta bera gabe egipena berez urtuaz deusik ez dakur. Adikizuna buru egipen eta aurkezki edo landakiaren alkarpidetzea da" (2). Eta Mercier'ek: "gogapenaren buru lan guztia bikoitz onen alkartu erazian datza ta ortan diardu adierroen (principia) gidaritzapean".

Oarki bidez datozte gogaiak, bañan oarki ta irudikiak ez dira adimen aidatzalle sollik; adi-iñarkunean bidezko

arazki antzo diardute. Oarkizuna erne bezin laister adimen langillea dager oar-irudikia argituaz ta eraki irarria, adimen egigean josiaz. Antzaldaketa onek adimen egigearen erraiak naroki gaztetzen ditu ta arnari bikain bat damaigu: verbum mentis - eraki agiritua - gogaia-.

Berriz diogu, bada, eskolastika guztiakin : Zentzu ezaupide ta adikizuna kidekoak dirala bere lankeran ta bateko osagalluak bestean ere idorotzen dirala, malla ez berdiñean izan arren. Eta Toma deunarekin: "Bada adimenean indar berezi bat intellectus agens deritzaiona ta irudikia zearo argi-aldatuaz gogo biur arazten duana" (3). Onela damaigu, une berean gogai emaitza.

Adi-mailla. Ezberdintasunaren zergatia.

Adi-arazoa lerrotua dago, zeatz ezpada ere. Idatz lanaren mamira urreratu gaitezen orain.

Arbi erein antzo ta azaletik sollik gizonaren izatankera ta adi-araua aztertzen badegu aurki dagiguke oztogure jakin miñean, bereza ta babai ugarienakin. Ezta argi bereziren bearrik gure arteko adimen ezberdintasuna eskuz ukitzeko. Badira erraldoi jatorrak, arrano antzo eguzki-izpi bidan zear goi aldera joaz, lañotza jaurerrian kokatzen diranak. Baita baldar iñotzoak ere arraxtaka tirri-tarra, lurrari ditsazkiotenak. Bata ta besteen adi-lanketan zerutik lurre-rañoko bitartea dute. Ala ere adi-gorputzeko soinkiak berdiñak dituzte zenbatean, naiz barrukoiaik naiz landakoiak. Nundi ko zipotza degu, bada, ezberdintasuna?

Alperrik. billatu naiko degu landako oarki ta irudikietan. Auek beren iza-baita bakarrik beginatatuaz, mami berdiñekoak dira noretzat eta zuretzat. Irudiki gaitan jakintsu ta baldarrak "zeru" berdiñean gaude, baña bateen ezaupidea besteen galaz-esi zear. dijoa, dirdakin burnizko txinparta bailitz. Eztago, bada, irudikietan ziri onen oñarria. "Gañera, diago Balmes'ek, beste zerbait ez balitz bear, aulki gañean makurtuta, bere jabeak lurrean dagian lerro okerrari zirkiñik gabe begira dagoan katuak, Newton edo Lagrange'eren kideko ezaupidea luke; auek bezin ondo ikusten bait du, baita iruditu ere begiak istean" (4).

Adimen sallean malkar-ibarren iturria, baita erbe^gtean ezin liteke jaio, orregatik geren barneko adikera arkai^ztzetik dariola esan bearko. Adimeneko adar bietan; egikor eta egige denez errotzen da sendoki gizonen ezberdintasuna ta buru-langille auzen giñean dagozke bere eskuean daurkez-^zkigun gogai emaitza.

Ziur eta garbi diago Derisi^k: "Ez dala adimena izaki ta berekikoak bere errailetan sortarazten dituana, bai-^zta-landako gertakizun itxuraz jaurtiaz, egungo gogai zaleen lege^z. Baizik ostez izaki ta berekikoak adimen jaurgoen sar-^ztzen diaranak, egipenari erbotasun eta ikurra emanaz" (5). Ez naiz iritzi onen leikide. Soillik diot: Adimen olan sartzen diran gaikien aldakizuna, bere indarraren giñokoa izango da-^zla. "Jaungoikoagandik dator adimen argia". (6) Bañan ez dira ixpillu guztiak izaki artzalle berdiñak. Ezta adimen orok ere Jaingo iñartza batasun txortan gorpuztuaz, adimen lanari txin^z partaren jeikia irartzeko. Ain zuzen ere, gizon bakoitzak bere barnean du neurria ta ezarri zionak soillik aldatu le-^zzaioke izatezgoan.

Laburki: lur-azalari txillarra antzo josita dirau-^zten ipurtargiak goikalde irritsez burrukan biderdian ler-^zdagitenak eta jakintza gallurrean zerutar ozkirri-kilima^z atsartzen dutenak, alkarrekiko bitarte sustraia adi zugaitza^z ren bikaintasun edo aultasunean dute, zeru azpitik bakarrik^z aztertzeoan. Eta bizimen Iturriari so egiñaz beren naimen^z neurrigabeen.

Adimen goitarrak tasunki errotikoak.

Adimen goitarrak jakintza gallurrean gañez dagi-^zten izar ñiñriñirlariak dira. "Besteekin alkar-joan darama-^zten alderdia aztartu nai izatea, esango digu Balmes^k, Jain-^zko ezkutukiaren zergatia eskatzea da. Berak bait damaigu^z batzuei bestei ukatua" (7). Atxurtu dezagun ala ere, soro^z au al degun giñean.

Jakintsu izateko jokera ta ayurri orrekin jaio^z bear da, esan oi degu askotan. Ezin genezake ukatu adimen^z oien berezko gaitasun egokiena. Ala ere bekoki izardiz ur-^ztatu bearra izan zuten azia, errotu ta zildu zedin, atsanka

albetan elduaz mendi gallurrera. "Goi argiak, ikus-senak, Balmes'en aitorrez eztu kabirik alper-ontzian, ez diraki gogai sukarririk buruan ez badatza. Adimen argi ta ikuskizun-sena oitura ta legiñez lortzen dira"(8). Berezko zirri-bofo ariñean apaingarririk ederrena sortzen duan margolaria, ezta trebetasun ortara alper-aize babesean eldu, baizik diarkizun lor, nekagaitz bidez.

Jakintsu bekokia dizdira arazten duten tasunki errotikoak eta adi-zugaitzaren igali elduak ez dira zerutik ebia lez jetsiak. Buru-baratzako iñorkin biltzea bearrezkoa izan da liliturgia ninitu zedin; bide-zearreko eragozpide iñauzte arego, tontorreko ozkirria patxadatsu atsartzeko. Orain kiskalki daude zeru-galtzairuan, urtu-zorian. Amor-eman ezaren eta adi-leiaren ordain betea!

Trunditurik so dagigun une batean adimen auen eder tasun lilluragarriari, berekiko bitxiak banaka banaka jaulki eraziaz. Toma deunaren ardurapean lotuko gera bidexigor oni, bera bait degu lagunik zuzenena ta eskura xeeke damaizkigun adimen goitarren tasunkiak ikusiko ditugu.

A) Bakuntasuna.

Berezitasun onen mamia ikusteko, goazen bere sustrai ta iturrira, Jainkoarengana. Bera da egizko adi men bakarra, gizon-bideen bearrik ez duana. Gauza guztiak betiko une batean gofai eta gogai bakun bakarrean dazaguzki: izate-barnean (in sua essentia).

Emen datza ezauñide goikoena. Jainkoa daukagu artu bearra eredutzat, gizonen adi-lana neurtzekotan eta auen jokera ari begira txirbildu, eztago esan bearrik iturri alguztidun babes surrean daudenak izango dirala, ur garbiena daskeinkigutenak eta Jainko bakuntasun antz osatuagoa dutenak. Eztago arkaitz bertako ur-negarra baño aratz, gardenagorik.

Ain zuzen ere Jainko borondatez eta norbere alegiñez, adimen iturri babeseagokoak adibide bakun orren jabetza geiago dukete ta gogai gutxiagoen bearrean dirateke. Ori da adimen goitarrekin gertatzen dana. Jainko eskuaren ugaritasuna naro artu dutenez bakanak baño bikañagoak dira beren gogaiak. Gogai bakar batzuen zear eta goitar argi ba-

kunkor orren indarrez dakuste dena. Ez dute eragozpen aundirik beren ezaupidean. Aixa ta aideso gogo-uts bai lira aberki ezkutuetaraño ega dijoaz txepel ta txatxuak gure bal dakeriz lurrean diraugin bitartean.

B) Argitasuna.

Bakuntasun gallurrari muiñ eman ezker adimen goitarren erregetza osatua egon oi da. Onen mirabe ta menpekoak dira beste tasunki guztiak. Mendi ganetik ibar aldea zeatazki dakusgun antzo oiek beren jarleku altsuetik dakuste adi-lillurapean, jakin lardiko zulo ta zirrikurik ezkutuenak. Bergson'en itza arira ekarriaz: "gauza guzien iza-taupada sakona oartzen dutela" dasakegu. Eguzki zirtatzalle, gau illuneko illargi, ezkutuki askoren giltza oi dira. Orra argitasuna, bakuntzaren ondorio leñurutsua.

Beren egiñak aztertu besterik ez degu, argitasun leñuru-esian zurturik gelditzeko. Bañan gure kideko adimenak ezin dezakete ezagun argitza onen ondoa ta baliteke argia illuntasunez izentzea, ero jokaldi batean. Orixe bera diot gauza oroetako ezaupidetaz, ez bait gera denak aspil berdiñekoak, barkatu itza. Entzun Balmes'i: "Maiz gauza bat oroki begiratu bearrean, bertan bera uzten ditugu atal batzuek, garrantzi gutxieneko buztankiari elduaz. Edo dena batean dakusgunean ez gera oartzen alkargo ertsia dutela ta ori efortik kentzen badegu adi-etxegintzarik arrigarriena, txepelkeri burugabeen biurtuko dala" (9).

Adimen goitarrak bakarrik dira erru onen kutsu gabekoak. Goi-argiz ta ikusmen-senaz une batean dakuste dena. Eta lurbira guziko arrigarrikeri ederrenak ikuskizun-sen onexen semeak dira. Une bateko txinparta-pizten igalirik sonatsuenak dakarzki ta berealala lengo atsedan kabian gordetzen da. Besteak ez dakustena agirikoa zaie. "Eskein egiozute lerrobo (lerro biribil) bat. Bere begi sorgiña onni jostean biribilla, oñarri astindua aunditzen dijoa, egun txinta eguzki aurrean aña zabaldu ta edatu arte. Begira, zer argitsua besterik etzan. Geroxeago ortzia dizdiratsu dago urre ta zillar-mataz erraietan; ugolde sukoiak estaltzen dute zerualdea sortaldetik-sortaldera, egotik iparrera" (10)

Tasunki onen anai ta uztarri berekoa da azkartasun ta erreztasuna ere. Guztiak gorputz bateko soinkiak bezela dira ta giño berdiñean artzen dute bere zañetako bizimena. Izate berean batürrik argitasuna deritzaio alkargoa eratzen dute ta egiaren azterketan jarri oi dute bere agintea.

D) Batasun ta sendotasuna

Orainartekoak oroituaz errezkí sumatu genezake adimen goitarrren batasun ta sendotasuna, tantaiaren burua besterik ez bait dira. Zuztar, gervia ikusi-berri zera.

Ez dute batasuna gogalpen estuaren emaitza, baizik oñarri batasun berezko arnaria. Ortik dator guztia, azaletik enbor, adar-ostro ta loreak antzo. Bere eskuan dago adimenerregetza ta berak sortarazten du gogai aberrian gudari-talde esigaitzena, menpekoen indartza guztia batuaz ta tasunki bakoitzari aburu ta xede baten jabe, elburu bakarren jarralle egiñaz. Ondorioak goitik mintzatzen zaizkigu.

Tasunki guztien esku-lana derizkit berriz sendotasuna. Ezin ditezke aiek bakarrik idoro, bata besten euskaiak izanaz. Alkarren leian damaiote jakin-orpotzari ondope sakon sendoa. Jakintza ta ezaupide orok bear dute oñarri arkaizkoa, aroaren burruka amorratuari ayer egiteko ta etsai purrukaturen alegiña uxatzeko. Orregatikan etziran murriz jokatu adimen goitarrak sendotasun onen billa, ezta amor-eman ere etxegintza saioan arkaitz gogor, bizi, zikoitz, amestua pilpiraz besarkatu arte. Eta orain zurrunbillo ta zirimol-erautzi zakarrak arralapada bildurgarria bere gain txirbildu arren ez dagite zirkiñik. Ludia ludi dan bitarteko dirake.

Oztopo batek galazten digu bidea, ustekabean. Zerbait adimen altsuak egi-arkaitza oñarritzat artu bearrean, burupen aizetsuan eraiki zuten eta derriorrezkoa izanez, geroak arpegi asperkatzallea erakutsi bezin laister, oienak ezuan. Nola diteke? Entzun azkeneko aldiz Balmes'i: "Tamales ezta beti bear dana aurkitzen eta urduriegia da gizona gizaldien eskuetan uzteko berak eman nai luken asmakizunaren idorokundea. Aurkitzen ez badu azalitzuratuko du ta egi zear ibilli bearrean buru-utsezko bideari ditsazkio. Buruauste ta mieketa bidez bere adimena zorabiatzen du ta azkenik,

gogalpen utsa zana galtzairuzko egia derizkio" (11). Egiak ez du bearketa aundirik izan oi orrelako txatxukeriak ezaren eta azkizunaren maiztar biurtzeko. Eztezu edestia begiztu besterik.

Jainko-xedea

Arazo erabakia ezta izango nerean, idazlan berak dadarkiana baizik. Ikusi dezunez adimen goitarrak gure malla goitik daude alderdi orotan. Iza-baita berdiñak bagera ere, berzitasun oni begira lau orritan gelditu besterik ez degu. Oi-azaren eta Jainko aburu goienekoen erdikide dirala, ao betear baitetsiaz. Ain zuzen ere, bete bear eta jainkotiar xede altsu baten jabe dira. Lurreratu diran ezkeren jo-muga izendatuaz dakarte bearrez ta ezin ditezke oroen jokera neurrian zenbatu.

Jaunaren egite oroetan lez, emen ere gurekiko esku-zabaltasuna dakuskegu. Gizon-ortzedi gau beltzean jarri ditu, illargi, izar eta eguzki izanaz, bere leñuru lurrintsuarekin gure bidexigor eta jarrai-tokiak argitu ditzaten. Gizon batzuen gaizkapena besteen eskuetan utzi duan lez, adie-gaietan ere alkarbearreko legea jarri digu ta adimen goitarrak dituzkegu gidari zuzenenank.

Joxe-Austin, Pasionistea
1^ogo urteko urtzilaria
Mellid (Coruña)

-
- 1) Summ.Theol. I,q.84,a.7 ad prim.; I,q.39,a.8.
 - 2) O.N.DERISI, Los fundamentos metafísicos del orden moral, (Madrid 1951),41 or.
 - 3) Summ.Theol. I,q.44,a.3 ad tert.
 - 4) J. BALMES, El Criterio (BAC Madrid 1948),623 or.
 - 5) O.N.DERISI, Los fundamentos...,43 or.
 - 6) Summ.Theol.III,q.5,a. 4 ad secundam
 - 7) J.BALMES,El Criterio...,654 or.
 - 8) J.BALMES, " ... ,655 "
 - 9) " " ... ,626 "
 - 10) " " ... ,621 "
 - 11) " " ... ,629 "
-

Erabili-itzak

Gogai orotikor=idea universalis
Lenen adi-erro=prima principia
Iza-baita=essentia
Eraki adigaiia=species intelligibilis
Eraki irarria=species impressa
Eraki agiritua=species expressa
Euskai erabakitzalle=sustentaculum determinans
Izaki=ens
Aurkezki=obiectum
Aidatzalle=excitans
Bidezko arazkia=causa instrumentalis
Egikor=agens
Egige=patiens dentale
Baita-landako gertakizun itzuraz=aicut phaenomenum trnascen-
Tasunki errotikoak=qualitates fundamentales
Gaitasuna=dispositio
Ikus-sena=inspiratio
Diarkizuna=labor continuus
Bakuntasuna=simplicitas
Lerroboa=circulus
Oñarri batasuna=fundamenti unitas

OARRA: Idatz-lan zorotik atera ezkerre itz auek beren indar guztia galde lezakete. Orregatik,otoi dagizuk,arren, bebe baratzen aztertu ditzazula.

LANARI SARIA ZOR

Jaungoikoak gizona irazan eta Atsegin-Baratzan jarri zun, bera au zaitu eta landu zezan, miñ eta neke gabeko lanaz zaituzezan. Bañan Adan'ek Jaungoikoak debekatutako sagarretik jan zuanean, eriotzera eta bizitza-nekearen bidez osatzera beartu gindun. "Eure bekokiaren izerdiaz jango duk" (Gen. 3, 19)

Jaungoikoak Adan eta Eba'ri, irazan eta Atsegin-Baratzan jarri zituanean, "Azi ta ugaldu zaitezte" (Gen. 1, 28) esan zion. Beraz, gizona bizi bearrean da, bere, egitekorik nagusienatakoa bizitzea da. "Bizitza, guztien eta bakoitzaren eginbear nagusia da eta ontan uts-egitea bere burua ereiltze a da izan" (Rerum Novarum). Gizona, bada, bizitzera bearturik dago, ta "ontatik gizonari bizitzeko bearrezko ditun gauzak lortzeko eskubidez berez datorkio; gauza auek, orde, beartsuak lanaren bidez saria irabazirik besterik ez ditzateke lortu" (R.N.) Adan'ek oben egin zun ezgerotik ba, gizona lan egitera bearturik dago, ta ez nolanai egitera ere. "Eure bekokiaren izerdiaz jango duk". (Gen. 3, 19) Neke, ta izerdiaren bidez, alegia. Idazti Santuak Job'en bidez onela dio: "Egaztia egarako jaio dan bezelaxe, gizona lanerako". "Kristaudiak irakatsi denez -dio Leo XIII'garrenak- lur ontan, gizonari lana bere izatez dagokio, beretzako garagarri da ta ausartasunez artzea itzurazko; lanetik era-bat aldentzea berriz kondarkeri ta egin bear nagusienetako baten zapuzte". (1889-X-30).

Lana, zer da? "Bakoitzak, bizitza, ta bizitzeko bear ditun gauzak lortzeko bere indarraren erabiltzea da lan-egitea". (R.N.) Bestela esanik: "Jaungoikoak eskeintzen dizkigun aberastasunak, gizonak bere natura ta bizitz bearraren

neurrian erabili al izateko, adimen eta gorputz indarren ematea". (Malinas'ko Araudiak 87'an).

Egungo gizonaren egokeran lanak lau doai bereizi ditu:

1) Zigoratasuna: Jaungoikoak gizonari egin zun obenaren zigortzat ezarri baitio, lenago atsegin-lana zuna, neke-lan bihurturik.

2) Norberetasuna: Norberarena baita ta gizonaren zitu. Beraz, ezta "materi", ta alakotzat ezin diteke erabili. Gizatasuna du beregan, gizonaren daralik. "Lana bakoitzarena da"-diq Pio XII'garrenak. "Norberaren indarren erabiltzeaz egiten baita" (1941-VI-1)

3) Beartasuna: Jaungoikoak, gizona, egin zun obenagakit zigorkatu zun ezker, oni, lana bearrezko biurtu zaio. Ta, "kristaudiak irakatsi denez, lur ontan gizonari, lana bere izatez dagokio". (Leo XIII'nak, 1889-X-30).

4) Bidetasuna: Lana norberaren bizitza irabazteko ta gizartearen aurrerapenerako bide bai da. Lanak norberaren bizitza du, orde, len jomuga, "bizitzarako bear dana langabe ez baiditeke irabazi" (Pio XII'nak 1941-VI-1) benazko lanari guzien ongia berez darraikiolarik.

Orain lanaren zertasuna buruan irukirik eta beraren jomugari begiratuki, lana, emen artzen dugunez beintzat, elkarte bat, elkar-artze bat dala aitortu bear. Elkarte batek orde, berez bi ertz bereizi ditu ta biek dute emen zer-egin edo zer eman, ta zer zrtu. Bi ertz auek langillea ta nagisia dira. Ark, oni, bere adimen eta gorputz-indarrak eskeintzen d dizkio, etekiña guztiz nagusiarentzat gelditzen dala; ta onek ari, saria damaio. Lana bada, Leo XIII'garrenak dionez norberarena ta, bestalde, bearrezko izan dalarik, auek daskaten erakoa izan bear du sariak. Alegia, norbaitek nadusi onen edo aren onerako egiten dun lana, norbait orren berorrena da, ta bearrezko gañera; lana, iza ere, gizonentzat bizibide bakarra baida. Beraz, nagusi onen edo aren izenez lana dagiñari, gutxienik bere hurua itxurazko bizikeraz zaintzeko lain dan saria zor zaio.

Au onela izan dala, "demagun, langillea ta nagusia sariaz elkar datozela, naiz-ta, orde, beren gogoz sariaren e-

rabakitze ontara etorri, langille ta nagusiaren gogoia, naturaren araubidez, zuzenbidez datorren eskubide batek gaintzen du, ta eskubide onek, langille neurritu bati ematen zaion saria bere bizitzarako lain dedilla daska. Inoiz, ordea, langilleak, ala bearrez edo nagusiaren bildurrez, lan gogofagorik artu ba'leza, eta nai ez arren nagusiak indarrez-edo ezarri ba'lekio, bidegabe dagio ta bidegabe onen aurka zuzen-bideak diar dagi"(R.N.)

Lan egitea, au da eman diteken sari txikiaren lenmugagai; bañan ez da bakarra. Langilleak bere lanaz sortzen dun etekiña, berak bizitzeko biar dun saria baño aundiago bada, langilleari etekiñaren neurriko saria zor zaio gutxienik. Etekiña, au da lanaren ondoren langilleari zor zaion sari tikiena mugatzen duna.

Izan ere, langilleak, bere indarrak lanean erabiltzen ditula, indar auk lanaren bidez aultzen, urritzen dijoazkio; sariak, bada, gizonari lanean galtzen zaizkion indar auk berritzeko lain izan bear du. Etekiña, orde, indar auk berritzeko bear dan saria baño ugariago bada, ta nagusiak etekiñ onen ugaritasuna geienbat langilleari zor diolarik, saria ere gutxienik etekiñ onen neurrian eman bear dio.

Jaungoikoak, gizonari, irazan zunean, naturan indar bereizi batzuk jarri zizkion eta, indar auen bidez, gizona sendi-buru izatera zuzendu zun, "azi ta ugaldu zaitezte" zio-larik. Gizonari, bada, berezko zaio ezkondu al izatea ta ezkontzea bera. Berez, naturaz, indar bereizi auen bidez ta Jaungoikoaren aginduz, gizona ezkontzara zuzendua izan da. Langilleak, orde, ezkontzara zuzendua dagon langille onek, bestalde, bizi bearra bere lanaren sariaz bete bear du. Baña, lan-sari onek, bere bizitza zaintzeko lain bakarraik ematen badio, gizon oni ezkontza-bidea erabat ixten zaiola argirik dago. Ezkontzeko eskubidea, orde, gizonari berezko zaionez, inork ez dazaioke ontan beaztoparik jarri. Berez, gorputz eta adimen indarrak lanerako nagusiren bati eskeñirik dauzkalaba, onek langilleari ain berezko zaion eskubide au egiteetara eramateko lain dan saria eman bear dio.

Au argitzeko, len aitatu ditudan Leo XIII garrenaren itzak azaldu ditzadan. Onela zion: "Nai-zta langillea ta

nagusia sariaren erabakitzaera beren gogoz etorri, langille ta nagusiaren gogoia naturaren arau bidez datorren eskubide batek gaintzen du, ta eskubide onek langille neurritu bati e-maten zaion saria bere bizitzarako lain dedilla eskatzen du". Pottier'ek dionez, eta berez, Aita Santuaren itz auek: "Langille neurritu bati ematen zaion saria bere bizitzarako lain dedilla", aurrez, Aita Santu berak ematen ditun erakunen-gandik bereizirik ez dira antu bear. Zera, alegia, "gizonak naturaz ezkontzeko eskubidea daukala"; ta "naturaz sendi-burus sendia zaitzera beartua dagola".

Itz auek buru ditula Keane jaunak darraio, Aita Santuak, "langilleari ematen zaion saria bere bizitzarako lain dedilla" esatean, gizona, dan bezela, guzion dugun bezela artzen du, bere indar, gogo ta asmo guzietaz, ogeitabost edo sei urtekin ezkondurik eta bere garaian iruzpalau semeekin biziko dan gizon ori, alegia. Beraz, Aita Santuaren itz auek gogoratzean, guzti au buruan euki bear dugu; ta au gogoan izaki, langilleari sendi-saria zor zaiola aitortu bear.

Idazleek sendi-sari au aitortzean, Leo XIII'n "R.N." eskutitzetik oiñarria aituaz, lau arrazoi ematen dituzte. Ona emen:

1) Aita Santuak dionez, langille neurritu bati dagin lanaren gatik zaion saria, bere bizitzarako lain izan bear du. Emen, sariak langillearen bizitzarako lain izan beardula esatean, sendiaren bizitza ere adierazten dugu, gizonari berezko baizaio sendi-buru izatea. Langilleak, orde, bere ta sendiaren bizitzeko, ezkontza ondorengo amabi-amabost bat urteetan beintzat berak irabazten duan saria besterik eztu; andrea aurren zaitzan arazoturik baidago. Naturak, bada, beste eskubiderik ematen ez diola, natura onen beroren indarrez langilleari sendi-sari au dagokio.

2) Lanaren xede ta elburua langilleari bizitz on bat eskuratzea onartu ezkerro ba, sendia-dala-ta, geintzuenak dituzten bearrak, sariaren erabakitzean ezin ditezke aaztu. Lenengo arrazoiarekin alderdu gutzi du onek; aurrekoan langillearen bearra zan oiñarri, oraingoan, berriz, bere bizitza.

3) Nagusia bere lan-tresnak zaitu ta berritzen leiatzen bada, langillearen bearrak betetzen are geiago beardu leiatu.

Lan-tresnak zaitu ta langillea bazterturik uztea ezta arrazoiz jokutzen dun gizonarena. Ta gañera, nagusiari, langilleak ematen dizkioma, sendia baita.

4) Leo XIII'nak darakuskigunez, langilleak gaurko naikotasuna biarko arriskuarekin, gal-zoriarekin elkarturik badu, ez du berazko lasaitasunik. "Naturaren arauak jarraiz" langilleak, sariaren zerbaít gordez, bere ta sendiaren etorkizuna bide ziurrean jartzea ere nai luke Aita Santuak. Ezer gorde baño len, orde, bere ta sendiaren bearrak osatu bear ditu.

Guzi auen sendogarri, ona emen Pio XI'nak zer dion: "Bi auek, -langillearen ta bere sendiaren bizitzea- lanari berez datxiskio, ta emendik, garrantzi aundiko ondorenak datozen... langilleari, bada, bere ta sendiaren bizitzarako lain zor zaio". Ta Pio XII'nak: "Langilleen sariak beentzako ta bere sendiarentzako lain bitez".

Malinas'ko Araudiak, berriz, 136'en zenbakian onela dio: "Langillearen eta sendiaren bizitza ta ustegabeko minartze, eritasun, zartzaro tan-ezaren" seguroa" beregan ditun saria da, nagusiak langilleari zuzenbidez gutxienik zor diotena". Ta aurrerago 137'an "...sari ttikien onek zuzenbidearen eskubide guztiak ez ditu aitzen, sari ttikien au ugaritzea zuzenbidez daskan arrazoirik bada. Eta au langilleak oi baño etekiñ ugari, obe ta irabazgarriagoa lortzea da izan. Beraz, langilleari sendi-saria zor zaio, ta benazko sendi-saria dedin, sendiaren bear guzti auek osatu bear ditu.

Bañan sendi-saria esatean, erabatekoa, iruzpalau seme ditun sendiari bere beartasun geienetan dagokiona, ala aldakorra, sendiari bere beartasun guzi guzietan dagokiona artzen dugu? Sendi-sari aldakorra, sendiaren beraren ugaritasun, osasun eta beste beartasun guzien neurrian ematekoa litzake. Beraz, bearren eran ugariago edo urriago bear luke izan. Erabateko sendi-saria, berriz, langille neurritu ta on baten bizitzako beartasuneri dagokiona da, beartasun auetan langillearen sendi-burutza ta seme batzuen azi bearra ere adierazten dala; ez, orde, sendiari itxuragabeko bearretan dagokiona, gizonari au ez bazaio eguneroko. Sendi-saria aitoritzean ez dira, ba, bear auek adierazten.

Onetzaz gañera, aurrerago aipatutako Aita Santu Leo XIII garren iztetan bada beste esakun oargarri bat. Begira zer dion: "Langille ta nagusiaren gogo naturaaren araubidez, zuzen-bidez, datorren eskubide batek gaintzen du". Bañan "naturaren araubidez" esatean, Aita Santuak zein zuzenbidez itz egiten digu? "Conmutativa" az ala gizartekoaz? Ontan, batzuk bata, ta bestek bestea diotelarik naiko zalaparta ibilli da. Eta emen, bada, bi talde auen arrazoiak eman, eta bata edo bestea onartzea bakoitzaren aukeran utzirik, lanari amaia emango diote.

1) Sendi-saria zuzenbide gizartekoaz eskatzen dutenak beren arrazoiak onela dakarte:

Norbaitek ematen duna, artzen dunaren berdin izatean datza zuzenbide "conmutativa" ren oiñarria. Beraz, sariak lanaren kideko bear du izan. Lanaren neurria artzeko, orde, lan onen etekiña ta langillearen beartasunak gogoan eduki bear dira. Eta saria, bi auen neurriko bada bidezko da izan. Sariaren neurketa ontan, orde, langillearen beartasuna garrantzi aundiagoko dala, sariak gutxienik langillearen beartasun au betetze aiñekoa izan bear du; izan ere, gizonaren len-eginbeafa bizitzea izan dalarik, langilleak berez du bizitzeko bear duna, lanaren bidez lortzeko eskubide; ta beartsuak gañera, bere lanaz saria irabazirik bakarrik lor dezake bizi al izatea. Langilleak, bada, lanean erabiltzen dun indarra sariaren bidez osatu bear du. Beraz, etekiña nolanaikoa dala ere, langilleari gutxienik bizitz-sari au zor zaio, etekiña ugariago dala, orde, gutxienik oni dagokiona eman bear zaio.

Bañan, langilleak lanean erabiltzen dun indarra, galtzen dun indarra langillearena da, ta ez sendiarena; bestalde, gizonak bere burua zaitzeko agindua erabatekoa du, sendi-zaitzekoa, berriz, balizkako, ezkonduko balitzkoa, alegia; ezkontzea edo ez bere eskuan dagolarik. Lana dagiñak, ba, lan onen bidez bera bizitzeko eskubidea du. Beraz, lana dagiñari zuzenbide "conmutativa" az bere bizitzeko lan bakarrik zor zaio. Sendi-saria, orde, zuzenbide gizartekoaz. "Bañan langilleak bere ta sendien bizitzari dagokion saria artzen ez badute zuzenbide gizartekoa beterik dala ezin esan". (Divini Reemptoris)

2) Sendi-saria zuzenbide "conmutativa" az eskatzen dutenak, berriz, onela diote:

Lanari dagokion saria da langilleari gutxienik zor zaiona. Lana, berriz, ontan gizonak erabiltzen dun bizitz-in-darraz neurtzen da. Bañan indar oni zer dagokio? Naturari begiratuki langilleari ez-ezik sendiaren bizitza. Izan ere, indar au neurtzeko, berau bide bezela zuzendurik dagon elburua ez diteketo baztertu; indar au, ba, berez ezkontzara zuzendurik baitago; naturak gañeraeskubide au geienetan erabiltzea eskatzen du. Gizonak, bada, ezkondu ezkeru sendiarenganako betebearrak osatzeko bide bat bakarrik du: bere indarren erabiltzea, alegia. Beraz, langillearen indar emate oni dagokion saria sendi-saria da. "...neurtu dugu... langilleari beretzat eta sendiarentzat "estricta justitia" z dagokion saria" (D.R.).

Dana dala, edozein langille elduri eskuratu bear zaio sendi-sari au, bere kidekoen eran lana ba-dagi beintzat. Ta irakaskizun auen aurka doan edozein oitura erabat zapuztu bearreko da. Inoiz, ba, "gizonak irabazten dun saria utsa dala-ta, amaztea lanera beartzea, itxura gabeko bidegabekeri litzake ta guztiz baztertu bearreko". (Malinas'ko Araudiak 80' n zenbakian). Izan ere, amaztearen eginbearrik nagusienak, ta batez ere aurren zaintza, oso galdurik geldituko bailirake. Sendi guzia dago, orde, beren bizitza osatzera bearturik; seme-ek, bada, azi orduko, egin bear ontan aitari lagundu bear diote. Amazteak ere, bere eginbearrak bete ondoren, jakiña, ta ez auen galera, etxe inguruan-edo emakumeari dagozkion edozein lanetan saiatu bear du.

Otaegi'tar Joan Bautista An.
"Villaro" ko Sakramentinoa.

— GEROARI

BEGIRA —

Nere aurrean, idaz-mai gañean, iru pedagogi-idazti fauzkat: Diccionario de Pedagogía, Curso de Pedagogía, Educación y equilibrio. Iru idazti auek nere lantxoaren iturburu dira. Irurak erderazkoak eta euskerazkorik alerik ez. Era onetako lanarik ez dut bein ere irakurri euskeraz, ez-eta berrik, idazlan soil bat béderen, iñolaz argitaratu ote danik. Cai ontan beste askotan bezela gure izkera zearo ez-ezeguna ez bada arlote da beintzat.

Zer dala-ta ori? Euskaldunak irakasle onak izateko egokiak ez diralako? Bai zera! Nere iritziz Loyola'ko Iñaki Deuna Katoliko-irakaslarien artean garai-garaionetakoa da. "Gogo-Jardukizunak" ta "Azterketa egiteko bidea" k ala adierazten dute ta irakaslari bizkorra azaldu zan Jesus'en Lagundia eraiki ta antolaztean. Gure egunetan Zaragüeta da (Ori-tarra) Españi'ko ta baita ludi guziko irakaslarietan ospatuen eta entzute audienetakoa.

Orta, zeineri erru ori etsi? Euskerari? Ez orixe, euskaldunori baizik, euskera bear dan aña landu ez degulako. Begira nola dion Axular'ek, antziñako euskal-idazleetan audienak: "Baldin egin balitz euskeraz hanbat liburu nola egin baita latinez, prantzezez, edo bertze izkuntzaz, aiek bezain aberats eta kunplitu izango zen euskera ere: eta baldin ala ezpada euskaldunak dute palta ez euskerak", Onekin zer adierazi nai digu?, laburki: gizaki oroen asmo ta odolzkizun adierazteko egokia da euskera, baldin lantzez bada.

Bakoitzak bere baratza landu beza, ori baita erre-xena. Asmo onekin egin dut idazlan au ta berberakin egingo emendik aurrera, J.L. idaztiko ditudanak.

- - -

Txomin Agirre apaizak "Kresala" ren amaieran bi arrantzale zaafen (Txanogorri ta Zardin-Zar) alkar-izketa soil ta zoragarri au erraiten digu:

- Eta mutilla? (Batak besteari galdetzen dio)

- Mutilla? Argiagorik eta ikastunagorik eztago errian, katonà be badaki ta!... Ara zer esaten deutsutan (belarrira inork entzun eztaigun): gizon aundiren bat izango ote dan susmoa daukat.

- Guk eztoigu ikusiko: guk besteak joan diran bidetik joan bear dogu laster..."

Guraso denak gutxi gora bera, noizbait euki oi dute Artòberok eta Sardinzarrek euki zuten olako alkar-izketa. Ez da arritzekoa; danak amets dagite beren aurrak gizon aundi ta izendatuak izango ote diralakoa; ots, geroari begira egoten dira aurraren azi-aroan.

Baña, gauz arrigarria, gutxi artzen dute ortarako bear diran bide guztiak. Maixuaren lana dala-ta alde batera uzten dute semearen edukazioa. Erri-xeak, egia esan, ezin-bestean.

Irakasleari dagokio ikaslearen adimena lantzea ta yakintasunean aurreraztea; gurasoari ostera edukazio ematea. Ala ere auek askotan ez tute ortarako bear diran biderik eukitzen, adibidez, denbora, yakintasuna, t.a...., ta irakasleari ematen die eskubide ori.

Irakaslearen lana iraunkorra ta etekingarri izan dedin len esan degun lanari beste au iratxeki bear dio: kristauari ta gizonari dagozkion birtuteetan aurrari zuzentzea, ta birtute auen oñarri giza-bizitzak eskatzen ditunak diranez, birtute auek erakustea. Begi aurrean dezu zergatik. Gizarterako edukazioa bear bearrezkoa zaio: gizartean jaiio, azi ta moldatzen da ta gizartean biziko. Bearrezkoa zaio

beraz, irakasleari ikasleak gizarterako egokitzea gizapidearen bidez.

Edozein aur, mutil, aurretik dakigu urteak joan urteak etorri, nolako bizimodu eramango duen: danak gizarte osoaren barnean biziko dira, ta danak gizarte bemeizi baten zati: Eliza, aberria, sendia t. a.

Kontuan eduki bear ditu irakasleak bi bide aukeraren gizapiderako ta giza-bizitzak eskatzen dituan birtute bidean zuzentzeko.

Iraskintzak erakusten digunez gizarte birtute egoki ta bearrenak, bertzeak bertze aukerak dira:

ADISKIDETASUNA. Adiskid ak dira askotan ikaslearen salbaiderako edo ondemandirako. Sei edo zazpi urtetatik ezitzen da lagunak billatzen ta taldeak egiten. Alabaña ez dute danak odolgiro ta ayurri bereizia lagunartean jarduteko, korakor asko biribillatu bear ditu ortarako, batez be berkoitasuna (akats au barne barnean sartuta baitauka aurrak) erausi ta aidetasuna ta xalotasuna.

ZUZENTASUNA. Gure gizarteko gaitz aundienak zuzentasuna falta dalako datoz. Eliz-Amak gizarte gaitako Enziklika orostan birtute oneri importantzi aundia ematen dio, batez be nagusi ta langillen arteko artu-emanetan.

LAGUN URKOARENGANAKO MAITASUNA. Bakoitzari zor zaiona ematea zuzentasunak agintzen digu. Karidadea arengo dioa: lagun-urkoarekin bat egitera. Ta aurrari, ain berekoa izanik nola eraman ainbesteraño? Nere iritzian biderik onena, Eliz osoaren (Mystici Corporis Christi) dotriña eder eta bikaña irakatsi araziz.

Birtute aukerak aurrari irakasteko bide egokiena ta erraxena irakaskintzak dionez, jolasketa edo kirola da. Bere zentzu guziakin jolasera joaten da, ta atsegingarri zaio naiz neketsu izanda ere.

Joalasean errax konturatzen da bestearen laguntza bearrezkoa zaiola ta askotan menperatzen du bere naia lagunnen adiskidetasuna ez galtzearren. Irakasleak ondo zuzentzen badu aurraren joera au, lan ederra egin lezake gizartearren.

H. Miguel Santiago, F.S.C.

Estudios Salesianos - Tejares - Salamanca

KULTUR-SAILA

PIO BAROJA

ZANA

Oraintxe larogei-ta lau urte bear lituazkean, bizi-rik gerta balitzaiguke Pio Baroja euskaldun eta ospetsuak. Zarra degu dagoneko bere eriotzaren berria, baña ala ere bidezko ta naiko berri deritzait askoentzat, guretarra degun gizon oni eta bere idazlan astunari buruz euskeraz jardun apal au egitea; naiz ez izan, beraz, ni ontarako lagunik aukerakoena, ezin bai ditut irakurri izan ez idaztiak ezta ere Pio Baroja'ri buruz or ta emen azaldutakoak, bear aiña beintzat.

Aitortz onek bigunduko zizun, irakurle, emen arki bear dituzun utsune errukarriak barkatzerako. Ala uste det.

Iru zatitan agertu nai det emen Pio Baroja'ren nortasuna:

- 1) Gizona
- 2) Idazlea
- 3) Kristaua

Iru azalpenak ondo eskeñi ezkerro Baroja nor dan garbi jakingo zenuteke, baña nik ere ez jakin eta ez dagoanetik eman ezin.

- I G I Z O N A

Donostiar degu Pio Baroja izatez. Gurasoak ere euskaldun jatorrak. Aita bertsolari; ama Naparru aldean, Beran, "Itzea" baserrian jaioa. Bai anai ta arreba bakarra zitun: Dario, gaztetan joan zitzaigun; bizkorra omen zan oso ikasgaietan. Rikardo, bigarren anaia margolanean izen aundikoa. Karmen arrebak bakarrik landari berriak eman dizkio bere jatorriari: Julio Caro Baroja, etnografo ospetsua Madrid'en eta Pio Mejiko aldean Karmen'en seme ditugu. Ona emen Baroja abizenaren zuaitz-adarrak.

1872 urteko abenduaren 28 an jaio zan Pio, karlisten bigarren guda garaian. Urte gutxi barru Iruña'n degu famili osoa. Emen asi zitun bere ikasketak Baroja gazteak; gorriak ikusi ta igaro bear izan zitun Iruña'n, alkar-gorrotak odoletan askatuta zebiltzaten aldi bildurgarri aietan. An-go urte illunakoñatz sakona utzi bear zuten Baroja gaztearen irudimen zorrotzean; geroago, batez ere lenen idatzitakoetan garbi somatzen omen da an sortutako biziaren irudi samin gazteak, Dostoiwski ta Poe idazle pesimista aitatuekin zer ikusia ematen dion arnas ituna.

Medizina ikastera Madrid'era bialti zun aitak; emengo estudiante-egun zaratatsuak ere gero "Las aventuras de Silvestre Paradox" liburuan ezarriko zituan. Madrid'en karrera amaitu ezinean Valencia'ra abiatu ziran famili osoa; emen eskuratu zun tituloa, baña sendalari-bidea nun erabili etzuan oraindik. Bein "La Voz de Guipúzcoa" periodikoan Zestuako erriak sendalari bearrean jasotako eskaria irakurri du ta emen degu berriro bere jakintza lan biurtzeko asmotan.

Bizi-modu berriak etzijoakion nolabait ondo, bere ala Madrid'en baidakuskigu, ogi zaltzen oraingoan, mediko gaztea. Jardun onek diru-bide aundirik ez baña bere idazlanetarako laguntza bikuña eman omen zion: ikusmin bizkor eta zo-

rrotzez gendearen griña bereiziak aspertu zitun ogitegiko artu-eman ugarietan; gero nobeletan sortuko dituan personak emen ezagutuak zitun...

Azkenik 1898'n Pio Baroja'ren bizitzak literatu bideetatik joko zun. Ordurako periodiko eta illeroko alde batzutan artikulo banakak idatziak zitun; auetxek zabal zioten bide berri aukeratuena. Urte ontan Paris'en arkitzen degu Pio Baroja beste senbait idazleekin naastuta.

Garai artako idazleak kondairak oso zakar dagerskigu, Paris'en izanduak batez ere. Menendez y Pelayo jaunak bakarrik igaro omen zuan ekaitz aldi ura garbi eta zuzen. Pio Baroja'k ere emen artuko zituan noski, ur zikin aietako zipristiñak, aurrerakoan bere idatziak beteko dituzten lotsagabekeriak.

Emendik aurrera Pio Baroja'ren bizitza idatzi ta idatzi igaro zan; urtean bi edo iru liburu. Azkenengo urteetan burua galtzen omen zijuan eta au nai ta naiez azaldu bear bere idaztietan. Bi urtu inguruan gaitzak makurturik zekarren idazle urtetsua eta azkenik Madrid'en 1956'ko urrillaren 30 il, "materia baztergabe betikorraren itxazoan murgildu", berak idatzita utzi zuanez...

"Itzeako gizon gaiztoa" deitzen omen zioten Beran mutil kokorak eta kalean azaldu ala denak uxatzen zitun inpernuko sorgiñak baño ariñago uxatu ere... Guri ere sarritan Pio Baroja mingotz, asarre, gaizto eskeiñia izan zaigu; ezta ori egia. Adiskide xamur jatorra zan gizartean; esatean eta izatean gezurrak eta zozokeriak, oiek bai ezin ikusi zitun iñola ere; gorroto bizia zeraman beti bere barnean azal zuri utsezko gauzentzat, eta iñolako mugarik gabe agertuko zizun idaztietan bere gogamena, nolanaikoa izan. Egizaletsuak eman dio Baroja'ri askoen aurrean izate gaizto etsaikor ori.

Pio Baroja'ren euskalduntasuna azaltzeko une egozia deritzat oraingoa, YAKIN'en irakurleari gogoko zariola koan. Sarritan aitaturia izan oi da Baroja'ren euskaldun izatea. "Txapel dula dagerkku beti", zion baten batek euskaldun jator zala adierazi naiean. Euskalerriari maitasuna dariote Baroja'ren zenbait liburuak; agerpenak ikusi besterik

ez dezu... Ontan ere ordea egizaletasuna euskalzaletasunaren gañetik; (egizalea txapel dun ez euskalduna). Ikusgarriak bai ezin obe jasoko ditu mundu guziaren aurrean, baña ain ongi ez daudena itz erdika poliki ez tali? Ez orixe! ... "El País Vasco" irakurri, (Baroja-ren idaztietan, gaitz-gabeko liburu bakarra auxe), emen ikusiko dituzu Donosti erriari eta botatzen dizkionak.

Arrazoirik gabe ere bai batzuetan: euskarari buruz diardunean esate baterako. "Eundik amar ere etzirala -zion noizbait- euskeraz mintzatzzen ziraden euskaldunak". Askotan ezartzen ditu bere liburutan euskeraz esaerak. Maite zun nurbait bere aita bertsolari jatorrak erakutzitako euskera zaarra, baña Madrid aldetik errukarriegi azaldu zitzaion gure izkera. "Illetak, il baño ere lenago kanta zizkion", esango luke Arrue jaunak.

Rafael Sanchez Mazaz idazleak oso egoki esaten digu, "Baroja-ren euskal agerpenak baso belarraren lurrun bustia dariotela, ... gure sukalde zaarretan elur aroan ikus oi diran sagar mardul usatsu pitzatuak bezin goxo-gaziak diradela"...

II I D A Z L E A

Eriotz ondoren zertxo bait bata bestearen kontra ezta baidan ditugu kritikosk Baroja-ren gai oni buruz. Batzuek geigi aipatu dute idazlaria, besteak berriz makuftu. Emen ere erdia ez ote dan egokien...

Idazten, geintsuen ustez erderak izan ditu onenetakua dala ezin uka genezaioke. ;baña Baroja-ren nobelak zerbaiten premia ba dute: "jokera", nobela gintza, arkitektura-ren premia. Dostoiewski-ren antza nabari degu lenago donostiarregan biziaren irudi beltzean. Gertaerak batabestearen atzean ondo ezarrita, gauzak leun eta zuzen daramazkian Dostoiewski-ren arkitektura ikusgarria nai luke Baroja-k. Berak esaten du: "Nobela idatzi aurretik zati guziak lotuta irudi ta gertuko banituzke entun inola ere bukatzerik"...

Orregatik batasun gabekoak dituzu Baroja-ren nobela geintzuenak. Gauzak etorri bezela bial oi zitun eta orrek itzaltzen du askotan irazlearen irudia.

Bestela bere agerpen garri, eder, zoragarriak, ikusmen sakoneraño azterle eztena aitortzen dute, eta irazlea bikañemetakoa. Au ere iñork uka ezen mere ustez. Ez ote ditu Baroja-ren gogamen eta itz naasi gaiztoak begi asko itxutu idazlea kritikatzera?...

Geienen iritziak, esan det, Baroja idaz-erti-lanean erder-literaturaren gallurretan ipintzen dutela. Alaxe da izan ere. "ABC", 31-X-56 egunerokoan arki ditzazuke Pio Baroja il berriari buruz gaurko idazle ospetsuenen iritziak.

"Azkenengo urteetan idazlerik onena, ta Cervantes ta Galdos lagun ditula, gure izkuntzaren iruko berdingabea". Gelegi esan du Juan A. Zunuzegi jaunak. Bere ikusmen zorrotzak aztertu dituan gauzen, nortsuen eta alderdien barnea garbi azaltzea, dute Baroja-ren idaztiak benetan zoragarri, entzungarri, baña idazleak bearresko duan zerbaiten premia ere aitatu degu.

Baroja-ren idaz-lanak aintz goikoenak darizkio Azorin jaunari: "Euskalerriak izan duen margolaririk bikaina". "Gure literaturak beste iñun ere ez du lerro oien bitotz ikutua..." Gure itzaso, mendi, baso, zelaiak izan ere Baroja-ren liburuetan bisi-bizirik daude, baña ez Euskalerrri bakarrik; Londres, Paris, Sevilla, ... eta beste erbesteko zenbait paraje ere eskeintzen dizkigu zeatz eta ondo egoki.

"Las inquietudes de Shanti Andia" irakurtzean itz auek idatzi zitun Azorin-ek: "Gauzak etapersonak obeto azaltzeko ez det uste gauza danik erdera".

Baroja-k etzitun filosofian, soziologian edo beste jakintsu-gaietan gauza berririk asmatuko, baña literaturan beintzat merezi duana eman bear zaio; ta gutxi ere ezta, naiz askoek bestela uste izan.

Zeatztasunak, gauzak ingurutik barnera ta barnetik idaztira diraden bezelaxe erakartze orrek eman dio batez ere gure artean alako izen ospetsua. Askoentzat bere gizalditar idazleetan Baroja da ospetsuen. Oraindik-orain gazte artean gelegi irakurtzen zaio.

III KRISTAU A

Idazle kontuan ez ta bai ari dira kritikoak Baroja'ri buruz; kristautasunari dagokionean ez, emen ez dago otezkorik. Argi ta garbi esan zitun esatekoak mundu guzian aurrean eta ez det uste iñorentzat berri izango danik emen esan dezaketen ezer ere.

"Don Pio el impio" izendatzen zun Baroja'k bere burua. Gizartean beti jator ta zentzudun azaldu zanak idaztietan ixuri zizkizun, agian, bere griña txarren beazun gaizkilleak. Amaikatxo kalte egiñak dituzu Pio Baroja'ren idaztiak irakurle artean.

Lenago ere esan degu 98'ko idazleak ia denak aldi artako ekaitz zakarrak kutsatuta eskeiñi zaizkigula. Pio Baroja izango da bear bada oziñ loi ontako idazlerik lotsagabeenetakoa. Iñoren kontra asteko etzuen batere bildurrik izan. Eleiza katolikoa, apaizak, jesuitak, santuak, Ama Birjiña, Kristo berbera denak zikindu zitun bere luma ariñak, poliki zikindu ere... Zenbait irakurle lilluratzeko ain poliki.

Iñoiz baten batek esaten zidan, Hugo Wast'en liburuak baño askoz ere egokiago litzaigukela Baroja'renak euskeratzea... "Bat edo beste kendu ezkeron onak omen dira gañerakoak"... Norbera ere konturatu gabe gaitzaren eztena polito sakoneratzea, ori da, ori. Onen zuzen ta ixil azi ona ere iten jakingo bagenek...

Baroja'ren nobeletan birauak eta zatarkeriak zenbatu eziñak dituzu. Apaiz eta prailleen kontra batez ere idazkira datorkien bakoitzean askatzen ditu goxoak: tripazale, arroputz, zikin, aul, eta eztakit nik zenbat onelako pekatu bizkarreratzen dizkigun... Kristau zintzoen kolkotik ere naiko parre egindu. Alde gaizto gabeko gizonik ez dago munduan Baroja'rentzat eta berak alde ortatik bakarrik ikusten ditu komeni zaihonean. Loyola'ko San Iñazio, Santa Teresa, Kristo bera ere ostikoka dabilta bere idaztitan .

...Kristoren bizitza kondairan ezartzeko ez omen ditugu bear ainbat argibide, "aldi artako kondaira-gilleak ixil-ixil bai daude". Gezurra Ebangelioak. Gai ontan ere

sartu zitun bere atzaparrak, mundu guziaren aurrean uka ezin dagerkigun Kristo'ren bizitza ukatuaz. Beraz etzun dotriña askorik jakin bear: beste batean Ama Birjiña sortzez garbiza ta Kristo'ren Ama miraritsu garbi izatea berdintzat dauzka.

Nietsche izan du irakasle ta jaun. "Niesche, Buda, ta Kristo, iru gizonak berdintzea, gure Niesche gelegi makurtzea litzake; beste oiek mundua nastu besterik ez dute egin. Zenbat kalte ez ote dituzte egin onelako biraoak darioten liburuak, egingo ere zoritxarrez edozeiñen eskuetan utzi ezkerro.

Gauza oiek esan ditunak esan bearrik ere ez dago kristau aginduak zapalduko ditula. "Erlijioa ta gezurra biok bat". Eleiza ta Aberriarentzat ditu gorrotorik gaiztoenak. "Jainko gabe" esango diotela? Orixe du izenik maiteena "el impio Don Pio" k... Orrelako zapi zikin Baroja'ren idaztietan nai baiño geiago dauzkagu.

"Ez dakit nola kalte egin dezaioken ainbeste astakerik iñori, zerbait ikasi duanari beintzat. Ez jakiñeri bai; baiño kalterik aundiena noski bere buruari egin zion Pio Baroja gizajoak"... J.M. Garcia Escudero'n itzak.

Pio Baroja'ren eriotzak kezka asko sortu ditu kristau biotzetan. Alkar-maitasuna degu guk "gure agindua", eta maitasun orrek batez ere Eleizaren etsaiaren alde jokatu bear, premi aundiena dutenen alde.

Alako zatarkeri kristau, apaiz, santu ta Kristo'ren biotzari zabaldu ditunak ere anima illezkorra zuen; eta anima aorrek zoriona irixteko gure eskuaren bearra. Zer egin degu kristauak, apaizak....? Egunen batean erantzuna eskatuko digu Kristo'ren biotzak.

Imanol Unzurrunzaga

Arantzazu'ko teologilaria

— ESKUALDUNAK

PARIS'EN

Parisen naiz soldado. Laborari seme, kanpoz lazo, barnez uzkur, beldur batek hartu ninduen jakitiaz hiri-nausirat nindutela altxatzen soldado. Parise zen enetako hiri ikaragarria, hiri galdua, jantza ahinek eta ikusgarri galgarriek zain fuinetaraino usteldia. Badu bi urthe han nagola, eta orai badakit, nun nahi bezala, Parisen ere badela orotarik. Gaizkia bada lore, ongiak ere baditu bere lili charmegarriak.

Parise maite dut, eta luzaz Parisek atchikiko du ni baitan orhoitzapen berezi bat, Parisen kausitu dutalaketz Eskual'Herria. Hiri-nausian -nork erran?- badire dotzena bat mila Eskualdun, eskuaraz mintzo direnak. Erraiten ahal dugu Eskual'Herriko herririk haundiena Parise dela; hala hala Parisen dagola Eskual'Herriko gazteriarik ederrena.

I. Nolaz honbertze Eskualdun?

Pariserat juaiten diras sor-lekuan ez delaketz heindako lekurik? Ez. Lekia frango bada eta etchiak husten ari dire. Eskual'Herriko legia da, bereziki laborantzan, ez ditakela bizi bere kopetako izerdiaren gustuz baizik. Beraz gaitza hau da: gaztek nahi dute geruo eta gutiago penatu, rinarta, eta ihes egiten dute herengo lohi eta pastarrerri.

Errechkeria aurkitzen dutea Parisen? Dudarik ez da. Gehientsiek, leku hautak harrapatzen dituzte. Sos ederra egiten ahal dute biziki izerdirik gabe. Alainan fama hunak dituzte Eskualdunak hiri-capitalian, seriosak eta langileak di-relakotz. Ohore zaiote Pariseko familia haundi eta abeatse-neri Eskualdun baten ukaitea coziner edo zerbitzari. Eskualdun bat heindako ontasun bat da.

II. Nola ihardesten dute beren eginbideeri?

Badire Pariserat juaiten direnak beren plazer eta josteta tzarren hobekio gordatzeko. Horiek, biziki denbora gabe jendetasunaren azken herrunkarat erortzen dira. Bainan gehientsiak juaiten dira herriz kanpo, diruaren eta biziaren idabazteko. Anitzek laguntzen ere dituzte Eskual'Herri-~~aren~~ an utzi beren familiak. Erlisoneko eginbideeri erotik atchikiak dira. "Eskualdun, fededun", erran zahar hori ez daukate lehengo modakua. Apez eskualdun bat, Larre apez-a, badute beren zerbitzuko. Apez hori da Pariseko Eskualdun guzien ertorra. Apez-etcherik ez da, bainan bada "Eskual'Etchia".


III. "Eskual-Etchia".

Zer da "Eskual'Etchia"? Izenaren araberakua du izana. Etche haundi bat da, Pariseren erdi erdian, Eskualdunek berek eresia edo erosten ari. Biltzen ahal dira harat, bereziki igandetan, beren etcherat bezala. Atsegin zaut igande arratsalde oroz ikustia gure Eskual'Etchia ilroki bethia, hementchet andana bat kantuz, lepo zainak hantusk, gure aire chaharretan, hantchet beste andana bat jokuan pinta-erdia pariatuz, hortchet beste multcho bat, airos edo serios, beren asteko plazerren edo miserien kundatzen, gure ertor maitatua, batetik bertzerat, berri galdez. Zinez egia da: Eskualdunak urrunago eta elgar atchikiago.

IV. Hitz batez:

Ezin uka eder dela honbeste Eskualdun eta bereziki Eskualdun gazte, Parisen bizi, artalde bat bezala, beren "Etche"aren eta apezaren inguruan. Ezin uka ere Eskual'Herria husten ari dela gazteriarik ederrena badoalakotz urrun, sor lekuari eta lan dorpeari ihes: Eskual'Herriaren geroa ez da Parisen bainan Eskual'Herriko lur idorrean. Eskual'Herria salba dezagun, lana maitatuz. Eskual'Herriaren deia ardiets dezagun, Jinkoak bakotchari eman daukun kurutzea karreatuz airoski. Jesu-Christoren Kurutzea lore dadiela gure eremu akitgarrietan, haren itzal gochagarrian bizi diten, mendeak direno, Eskual'Herriko haurrak.

Irola Arnand
Beloke'ko beneditanoa



HUNGRIA

DALA-TA...

Lazgarri ta giza-ezkoak izan dira 1956.ºko udazkenean Hungria'n gertatuak. Gizonei ta erriei lots goaitkarriena sortu bear liekenak. Erri eta biotz zuzen guzien ezespene gogorrena irabazi dutenak. Gizadi osoa bat egin da, alderdikeri oro gainduz, gertaera laido garri auk pizturiko aserrea azaltzearren. Gizon guziek baitan daramaten zuzen-izpi orrek lotu ta batu ditu asmo ta iritzi guzietariko buru-biotz oro.

Gerta-herri dira yazo auk xestu detzadan. Ontaz ugari jardunak dira errati, aldizkari, ta egunkariak. Amaikaxo itsaldi, batzar, elizkizun, ta bestelako aserre-azalpenak ere egin dira an-emen gertaera auk dirala-ta. Biotz-barren guziak ikutu ta zauritu dituzte yazo auk. Giza-legezko deriskiot. Eliz-Amak berak ere agindu ta eratu izan ditu era ontako zenbait ekitaldi. Gorputz Baten atal geranez egoki ta bidezko deriskiot Europa-Sortaldeko ei gure onginal ta biotz-entipen barnekorrena agertzea.

Enatorkizu, alere, aienez. Errez biotz-unkitzen gera gizonak, errez ta aisago aaztu ta oztutzen, ordea. Uste gutxi amaiot nik biotz-asperen oei, yazoaldi auetan batez ere. O-deietarañoko miñ-deiak jaso dituzte gizon, batzar ta erri aunitzek, baño... pentsa ote dute guzi oek bere etxe ta auzoko arazoak ain zuzen ote dabiltzen? Gogartu ote dute biar beren etxe-barruan gerta ditezke la berdiñak edo-ta gorriagoak?

Denok dakigu. Miñ ta biotzondoko barrenkorrago damaio egungo gizarteari ama alargun bat bere semetxoa besotari illotz dularik ikusteak, millaka gizaseme Siberia'ko lantegietara derriorturik dijoaztela jakiteak baño.

Asko ta asko mintza zaizkigu gertaera auetaz. Atzo bertan era berdiñean eta basatiago joka ziranak ere mintzo zaizkigu... zeñen iguingarri "zuzentasun" itz ori oen agotan! Beste asko bildur-ixillean babestu dira. Batzuek deadarka, bestetsuek ixil, denak bildur. Hungria Errusiaren atzaparretan odol-jarioan... Europa ta Amerika ikaraz begira, amorrukeñuz begira, baño iñor ausartu ez sapelatsaren aurka!

"Egi" dan Aren ordezkoa ere mintzo zaigu. Iñoiz bezin zorrotz ta larri mintzo ere! Nolako begirune ta biotz-zirrara sortu dituzten Aita Santuaren itzak! Amabost egun barruan lau aldiz lertu du bere biotz aitakorraren miñ astuna. Iru idazki ta errati-dei bat. Zeazki mintzo da. Nabarmen nabarmen jarri ditu egungo gizarte-jokabidearen akats-sustraiak. Badakite gizadiaren agintari ta gidariak nondik ta nola joka beren eginbideetan.

Eztie Aita Santuak erri bat edo besteri itz egin, ludiko erri guziei baizik. Gizadi osoak entzun du bere itza. "Zueri, bada, erri maite, gizon ta emakumezko, jakitun, langille, antzegille ta baserritar, edozein enda ta errikoel mintzatzen naiz..." Erri-aginteei itzik ere ez! Erri-xea baita beti gudaen ondorioak bere larruan nabaitu bear dituana..." Zuen asmo eta nai barrenkorrenak zein eta nolakoak dituzuen zuen agintariei jakinarazi dezaizkiezuten".

Azken eguerritan, urtero bezela, gizarte osoari mintza zaio egundoko errati-dei batez. Ots aundikoa izan da osok Ludie osoko egunkari, aldizkari, errati ta tele-erratiak jarduri izan dute. Emanik duan politiko-itzaldirik mardulena omen du azken au. Ontan ere argi ta zeatz mintzo da. Eluke kristaurik egon bear errati-dei au irakurtzen eta gogoan artzen ez-tuanik.

Lantxo onen oñarritzat artu ditut itzaldi ta errati-dei bek. Aipatu gabe erabiliko ditut nere gixa.

Aita Santuak dionez gizartea goaitu eta artegaturik dabil azken urte auetan. Nora jo edo zeri eldu ezta dabil. Ez aurrerapenak, ez teknikak, ez aberastasunak ez dakarkioten pakerik ez zorionik. Azkeneko gertaera auek geiago sakondu dute oraindik gizartearen ondoreza au. Amaika goialdi ta buru-naaspillo sortu oi dituste onelako gertaerak bear bezela argitzen ez diranean. Kaltegarri gerta ditezke animaentzat guzieren buruak dagien galdegiñ zorrotzak erantzun beterik gabe itoko bagenitu. Gertaera autzaz argi pixkabat egitera nator, bada. Jaungoikoaren jokabideen aztarna gertaera auen barnean somatzea, dut idazlan onen xeda.

"Pakea Zuzentasunaren ondore". Pio XII garrenaren ikurdeia. Bere ametsa, bere asmo irrikiena, bere jardun eta neke guzien elburu ta jomuga. Pakea, erri-arteke pakea, gizonen pakea, gizadi osoaren pakea. Pakea, bai, baño, ez indarrezkoa, ez bildurrezkoa, zuzentasunaren ondorekoa baizik. Erri agkotan pakea, edo pakearen antzeko alako zerbeit badagola dirudi, baño ezta giza-legesen neurri bideak eta zuzentasunak ezarritakoa, guda-izkilluz, erbesteaz, ta era ontako bidez lor tutakoa baño.

"Pakea, eskatasuna! Eguntan beren indar guzia artu duten itz ikaragarriak. Mintza, barrea ta zertu itzazute!" Deadarka diardugu Aita Santuak, Hungri Errian gertatuak jakinda. Jainkoak gizonei ta erriei izate-muñean irarritako leia ta oldeak ezin litezke odolez ta izkilluz ito ta lurpera! Jainkoak Kain'eri zuzenduriko itz aiek egun ere beren indar guztia dute: "Zure anaiaren odola deadarka ari zait lurretik". Jainkoak -dio Aita Santuak- bakoitzen obenak erioztza ondoren zigortzen ditu, baño bizita ontan ere zigortu izan oi ditu agintarien eta errien bidegabekeriak, Kondaira bera lekuko.

Ondo asko adierazi dute azken-gertaera auek erriak, sendiak, bakoitzak, naiago dutela lanaren eta sendiaren pake-giroa beste edozein aberastasun gañetik. Baño oni uko egiteko prest daudela ankertasunez edo beste guda baten ondorioz ordaindu bear balukete, ot s: ondapen, dolu, karzel, eta e-

riotzez. Begiko dute gizonak eta erriek pakezko giroa, baño naiago beren barruko askatasuna. Zertarako aurrerapenak, zertarako bestelako aberastasun guztiak, gizonak oldez maite duten altxorrik baliotsuena kentzen bazaie? "Vox populi, vox Dei", esan oi da, ots "Erriaren naia, Jainkoaren naia". Erriak oldezko duana, Jainkoak irarria nunbait, ziurki ere. "Jainkoak errien ta giza-izatean irarritako legeak entzun bitez erri bakoitzaren barne-kanpoan, ta batez ere erriak berak agintea eman dienen artean. Aginte bat, berari dagokionez, bizitza ta askatasuna bederik lortzen saiako ezpalitz, naiz-ta beste elburu asko burutu, bere eginbearraren muiñean pot-legike".

Pakearen ezartzeko ere zeaztu ditu Aita Santuak bideak. Len ere gizadia guda ikaragarri artan mulgildurik zebillenean, ots 1942^{ko} Gabonetako Errati-deian bost puntu ezarri zituan errietako aginteen joka-bidetzat. Orain ere Europa^{ko} errien alkartzea eskatzen du batez ere, eta ONU batzar nagusiaren indartzea.

Etengabe darabilzki Aita Santuak "pake ta askatasun" itz auk. Baño beste zerbaiteren ondore bezela. Pakea eta askatasuna altxor baliotsuak dira, baño urko-errien eta gizonen bekaitz eta naikerien artean joka ta zertu bear. Orregatik ezin litezke gizadian zertu ta gatzatu izadi-gañetiko Taju baten ondore izan ezik. Erri bakoitza bere naitara jokatzan bada, bere naikeriak beste neurririk eta legerik ametitzen ez badu, beren eta besteen gañetik Ezer ez baderizkiote, nolaz erriak elkartu ta asmokidetu?

Onetzaz ugari ña luze mintzo da Aita Santua. Baño oen oñarritzaz diardukegu oraingo, ots, "eskubidetasun, zuzentzasun eta askatasun" aren iturburu dan Orretzaz; Benetako Pakearen iturri dan Orretzaz.

- - - -

"Jainkoa, Jainkoa, Jainkoa!"...

Onatz Aita Santuak sugarretan biotzondotik jaulkitako izen gorena. Gizonak ta erriak beren burubide ta eginbi deetatik landa jaurti duten Jainko orren izen deuna dakar Pio XII garrenak une larri auetan. Itz onetan dakus berak

gizarte-arazo guzien giltza. Gizonek saztu ta eortzi duten Jainko ori tinkotu nai luke berak ludiaren biotz-biotzean! Etxeetan, euparantzetan, parlamentuetan, Biotzetan batez ere Jainko alguztinduna tinkotzeko arrenka eskatzen dio gizadiari. Dagokion maila gorenean ezartzeko Jainko orren izena.

Eztu sarritan "Jainko" itz onek asken alditxo oetan bezelako begirunerik sortzen. Ez begirune soilik, ala-olako kezka bat edo ere bai. Erriak, gizadi osoa bildur da... etorkizuna lañotsu dager. Eztu egungo egoerak ez orporik, ez tajurik. Legeak, aginteak, eskubideak, gizonak, erriak... biar bertan deus-er izan bait litezke! Oro koloka, oro irristalo! Gizadiak erladi urduri bat dirudi oraintxe. Erriak pakea dute amets; ta guziak leporaño izkilluz josita. Legak asmatu-ala austen dira; gaur ar-eman eztuenean, ta biar elkar atzamarka; gizadiaren gidariak biar erri-arteke pakearen alde batzarretan itxilluz, ta etsi giza-lege sustraitzuenak oinperaturik urkoerrien eskubide legezkoenak zapaitzen! Indarra beti garaile!

Zerbaiteri elda naiean dabiltz gizonak. Lege ta batzarretan itxarboen osoa galdu dute Alderdikeria ase ta goaitu dira. Pakea besterik eztu nai egungo gizonak. Zeri edo nori elduko amets onen lortzeko? Zoritxarrak odeiak aruntz jaso arazi die egungo gizonei bereb begiak pakea ta zoriona ekarri al lezazken Orren deika. Gizaditik urrun ote Jainko ori? ...

Nolako gogo-larritasun ta buru-naspillak sortu oi ez dituan egoera artegatsu onek! Galdegin zorrotzak dagizkie baitak gizonei unealdi oetan, baita osoa artega-giro ontan murgiltzen dutelarik. Nolaz gizartearen jokabide arrigarri ta zentzugabeko aukerik zalantza gorrienenan murgildu ez? "Existencialismo" edo Orixen izkeran "Izaten-aburu" dalako ori, etzan Guda-ondoko artega ta nazka-giroari emandako erantzun bat besterik izan.

Izan ere, egungo ta betiko Kondairari so egiñik alako nazka edo kezka bat nabaitzen du gure baitak. Indar itxuen joku naastu bat besterik ez bait dirudi giza-kondairak. Batez ere Kondairan barrena Jainkoaren atza somatzen ez duanak nabaitzen du iruzur-edo dalako ori: zentzurik gabeko gertaerak besterik ez dakuski; adurrak, edo griñak sortuak geienik. Ezta bertan ez adimen-azterrenik, ez asmorik, ez tajurik.

rik somatzen. Gizonak ta erriak beren griña ta irritsez norabiderik gabe bultzaturiko abereak dirudizkie. Zerk deragie bada,erriei ta gizoniei beren egiñetan? Zer da errien kondaira? Ba al du onek norabiderik? Ba al du zentzurik? Ba al du asmo-gidaririk? Onelatsuko galderak sortzen die kondairak gizon oei.

Ta zer nabaitzen du egungo pentsalari batek azken urte auetako ta arestiko gertaera auetaz oldoztean? Itz uñitan laburtu du Aita Santuak egungo pentsalariei giza-kondairak sortzen dien gogo-nahaste ori...Alde batetik teknika-alorrean buruturiko aurrerapen arrigarria,ta errien ta gizonen ondoeza sakona,bestalde. Arrokerizko ametsetan ziardun XX'gn. gizaldiko gizonak bere burubideetan,jakintz eta teknikaren aurrerapenak ikusita,baño naiz-ta berandu,oartu da erriarteko ar-emanak iñoiz baño etentzer arkitzen dirala,ta gañera bere aurrerapona duala eriotz-izkillu bildurgarriena!

Ondo dakizki Pio XII'garrenak egungo teknika-aurre-rapenen berri,ta iñork baño juntuago daki ere teknikak ekafi ondapenaren zio-sustraia; gizona Jainkoak adierazitako egi betikorretatik aldendu izatea,ta Jainkoari zegokion mailan Teknika ta Yakintza ezarri izatea. Agerian jartzen du Aita Santuak teknikaren ondorio tamalgarri auek len Positivismo izenez eta egun Realismo izenez dalako aburur oietan dutela iturburua. Realismo ta Materialismo aburu auen atsez kutsaturik dago egungo gizona. Espaitu onek ez Jainkorik,ez erabateko baliotasunik onartzen;gizona jainkotzen du,ostera,ta gauz guzien neurri ta erizpentzat ezartzen. Estu obenik ez griña okerrik ametituen,gizaki ta Estaduen aulkeri ta akatsak Teknika eta Aurrerapenak zuzendu al letzazkela usteki.

Auxen da,ba,XX'go gizartearen arrokeria zizkatzen duana: pakea eta zoriona tinkotzeko bearrezko oiran bideak artzeko gai ez izatea;giza-baitaren premi sustraitsuenak asetzeko biderik ez arkitzea;gizonak ta erriak jaso ta zoriondu bearrean,sekula baño giza-ezago aldatzea,Teknika orren atal bat biurtgeraño. Gizon eta erriei garrantzi aundi-
dieneko zaizkion arlotan berak jainkoturik seduzkan Teknika eta Aurrerapenak pot-egiteak damaio miñik larriena. Bera baita gizarte-giro onen egille ta eramalle batean. Antziñate arekin eta berak ondarez utzitakoekin erabat ausi-leiaz zi-

arduten gizonek beren aurrerapen-eginbideetan, teknika ta jakintzaren bidez gizona "osotu" ta antziñateak bere aultasunean sorturiko Izaki barregarri oietzaz zearo "eraberritu" nairik. Bi alditan jauzi zaie gizaldi ontan beren ametsezko Babel-Dorrea... irugarrenez eoriko ez ote zaien ikara dira! Nola tajutu naspillo-uts dirudin gizarte-egoera au? Ona Aita Santua mintzo:

Teknika ta Aurrerapena bide ta bitarteko besterik eztira; joka-arau ta elburu absolutotzat ezin genezazke iñola ere artu. Elburu auek jarri bear dira maila buruan. Teknika ta Aurrerapena auekin datoztenean On eta Pake bidetik dijoaz; auekin austean, ordea, ondamen-bidea daramate. Balioak gorde bezate dagozkien mailak, ta orduan teknika ta aurrerapena ondamentzat baño gizonaren eta errien zoribiderako egokienak gertako dira.

Gauzak ontara balebiltz elizkieke egungo pentsalariei gizadi ta kondairaren ikuspenak orrelako ezpai ta kezkarik sortuko. Kondaira naasi ta illundi baño, eresi bikain bat litzaieke. Jainkoa lekuskete Kondairaren Irule gertae-rak oro Xede baten araura ariltzen. Ludi ontako gertaera ta gauzak oro giza eran, giza-erizpenez auzitzen oituta gaude, ta onetxek eragozten gaitu beste era ortara begiestera. Ez gaitu oraindik Jainkoagandiko ats orrek kutsatu, ta orretxek garama Jainko aundi orren asmo ta xede betikorrak geron ipur targiz neurtu ta argitzera. Itsukeri zoroa gure au!

Amaika bat gizon biurtu oi da Jainkoaren buruzki bere jokabideen herririk eztakitelako, bere xedeak suma ezin dituztelako, Jainkoaren eta gizonen burubideak kidetzen ez diralako: nun da, ba, Jainko ori? Nun da On uts dan Izaki ori? Nun gizoni ta erriei pakea ta zoriona opa dien Ori? Ba al du giza-kondaira onek Jainko-aztarnik? Soma al diteke ludi nahastu ontan Adimen Zuzen baten arrastorik? ...

Zer dala-ta, orduan, indar ankerra beti garaile? Zer dala-ta beti basatienak, biotzgabeenak, maltzurrenak, gaiztoenak, naiz gizon naiz erri, atsegiñ eta zoriontasunean igarri? Zer dala-ta zuzenenak, errukitsuenak, asmo ta borondate onenekoenak anker gaizto oien oinpean beti egon bear? Tajuzko ote zuzentasuna, ontasuna, gaitz eta maltzurkeriaren menpeko izatea? Zer dala-ta...

Era ontakoxe galderak zegizkioten Agustin Deunari siñesgabe ta kristau aunitzek Barbaro-taldeak latin-erri guziak menperatzen ari zirelarik ikustean. Bein kristau-erlijioa ezarri ezkeru, Jainkoaren Jaurerria lur ontan garaile bai litz. Kondairan barrena Eliza ta Jainkoaren Jaurerria zorikidetu bai litzazke. Kristau asko zalantzan jarri ziran siñesgabeek maltzurkeriz ta irriz zegizkien galde ta maxioei erantzun eziñik : nun dezue ba Jainko ori? ...

Zori artantxe asma ta burutu zuan Agustin Deunak giza-kondairari buruz jardunik dan idaztirik sakon eta namitsuena,ots,"De Civitate Dei" deritzana. Gutxi azkortu da ordutik historiarekiko kristau-oldozkera. Bertan eman bait zituan kristau-burutaenezko Kondaira bat eratzeko bearrezko ziran oiñarriak.

Orduan ere kristau-erriak,erneberri artean,bera zetoztela zirudin. Nork-eta barbaro-erriak erasota. Erlijio, kultura,aurrerapena,ta edotariko balioak deuseztera zijoaztela zirudian. Denak bildur ziran,jakitunak,legegizonak,elizgizonak...

Onatx guri ain goaitkarri ta ulerkaitz zaizkigun gertaerak Agustin Deunak nola argibidetu. Alegi batez diardu: Kristogan datza jatorrizko obenetik kondairan barrena nabarmentzen dan "bikoiztasun" ori,ots: lurreko Estaduen jarraipena,eta Jainkoaren Jaurerriaren etorrera,aldiaren amaian garaille gertatuko dan Jaurerria. Bikoiztasun ori bi Uri aundi en bidez adierazten du,ludi ontan elkar erasoka diardutenak: bat zerukoia,lurkoi bestea.

Lurreko Uria ludi-barnekoa dezu,ludian jokatsen da ta bertan ezarririk dauzka bere elburuak. Berak sortzen ta ereintzen ditu gaitz ta bekaitzak ta gudak. Bere x-deen garaipiderako darabilzkian bideak ez damaikiote ajolik. Bere semeak atsegiñetan bizi dira lur ontan.

Zeruko Uri,berriz,naiz-ta ludi ontan jokata ezta bertan orporik,geroaren itxaropen ta anetsez diardu. Bere semeak arantzetan ta negarrez bizi bearra dute,baño nolozpaiteko garaipenaren uste osoan.

Nabarmen agertzen da bi Uri oetako jokatzearen bi-xigotasun zolia. Batetik Uri lurkoia gorroto eta indar basatiarenena; zerukoia, bestalde, maitasun eta pakearena. Lur ontako gudatan eskubide eta zuzentasunak garaile gerta bali-
tez, ainbat obe Jainkoaren Urirako, Jainkoa bera baita bere semeetan irabazi duana. Zuzentasuna, aldiz, ondatua baledi, aleun etekin aterako ditu Jainkoak ondapen ontatik bere semeentzat; onerako onartu du lur-ondapen au: badituzte bere semeak beren ordaiñak ta negarrerako obenak; jasan bezate din ki beren errua, ta erruaren ondorea (Agust. Don.). Aldiaren azkenean Zeruko Uria betiraunean tinkotuko da garaile; Lur-
koa, berriz, betirako ondatua izanen da.

Zein beste egunotako Kondaira ere ontara epaituta! Jainkoa azaltzen da bere Seme Kristoren Erregetza ludi ontan ezarri naiean, ta bestalde gizona naiz lagun naiz aurkako. Ez da besterik Kondaira: Jainkoaren eta gizonaren eskubidetasu-
naren ondorio bat. Gertaerak ontaka begietsiz nor buru-bio-
tzez Jainkoaren aurka altxa? nork bere Izen gorena iguintzen?
nor bere baitan itomintzen? nork gertaera oro adurrari eras-
ten? Onela dakusanak Jainkoa dakusake bere asmoen araura jo-
katzen, naiz-ta jokabide auek maiz giza-adimenarentzat uler-
eziñak gerta. Jainkoa agertzen da histori osoaren azi-indar,
jomuga ta giltza. Esta ez adurrik, ez grifa itsurik, ez norae-
zik. Jainkoak darama Kondairaren leusa. Gertaera bakoitzak,
gizon bakoitzak du bere txokoa Jainkoaren burubide auetan.

Auetzaz aazturik bizi gera. Gauzak gerta bezela auzitzen ditugu, Jainkoak bost ajola damaigula. Jainkoa ozto-
poarri bat bezela jaurti dugu gizarte-arazoetatik. Bego Jain-
ko ori Elizetan! Politika, teknika ta jakintz-gaietan gabil-
tzen geron gisa ta araura. Gizonak Jainkoz kanpo ta aske jar-
dun nai badezakete... ez gelegi arritu giza-kondairak daraman
norabideaz! ...


Itzul bitez gizonak ta erriak bazterturik daukaten Jainko onengana. Gizartearen goraberak daramatenek, eman be-
zaiote Jainkoari dagokion mailla. Gizadian pakea ta zoriona
erein-lanean diardutenek tinkotu bezate leenik gizonen biotz
eta errien legetan Jaungoikoaren agindu santua. Ikasi beza-
te Hungria erretik... Oar bezate bere aundi-naia beste lege-
rik oztutenak bertaraino irixi zezaketen!

Auxen da Pio XII'garrenaren leirik biziara. Ontan dakus berak arazo guzien giltza. Jokabide onetik datorkioke gizarteari ain bearrezko duan pakea. Beste jokabide ta erabaki guziak itxurazkoak lirake,aldakorrak,labantsuak. Egi eta Zuzen dan Jainko ortan ezarri ez bitartean,aizeak orbela bezela gabiltzake. Pakea eta zoriona gizonak bere egitez lortu bear dun altxorra da,baño Jainkoagandikoa soilik,iraunkorrak ditezen. "Da nobis iilam quam mundus non potest dare pacem", otoitzen du egunero Elizak,ots:emaiguzu munduak ezin eman digun pake ori".

Eskubide,Zuzen eta Pakearen iturri dan orri bedi egun eta beti kondaira eta gizadiaren argi ta arnas-emalle. Zertu beza Berak Aita Santuak 1957'gn.urterako gizarteari opa dion pakea.

"Jainkoa,Jainkoa,Jainkoa! Izen mintzo-eziñ au,eskubide guzien iturri,zuzen eta askatasunaren iturburu,entzun dedilla parlamentu eta enparantzetan,etxe eta lantegietan,jakitun eta langilleen ezpañetan,prensa eta erratietan. Bedi Jainkoaren izena,bake eta askatasunaren izenkide bezela,gogo oneko gizonen ikurriñ,erri eta nazioen lokarri,bedi guzien osasunerako lanean ari diranen anai eta lankideen ezaugarri... Entzun bedi batez ere,bere izena eliz eta biotzetan,Jaunarenaganako dei goren bat bezela,bere alguztitasunez giza-indar aulaz lortzen ain zaila dans burutzera lagun dagigun".

Iñaki Bastarrika
Arantzazu'ko teologilari



AITA SANTUAREN DEIAREN OIA RTZUNAK...

Cabon surretiko egunez mundu zabalera bidalitako Deiak abegi ona izan dizu gizarte-malla guzietan, naiz Elizaldetiko naiz politiko-aldetikoetan, naiz katoliko-arteko naiz protestante edo beste erlijio aldetikoetan. Kristautasunaren Egia etzaio inholare gizarte-aro bateri edo gizarte-alde bateri ertsitzen, aro gabe edo aro gañetiko ta orokor baituzu. Kristautasunaren Buru dan Jesukristoren ordezkoren Deiari egin zaion arrera lekuko bikaña dugu surreko egi sakon orren egiztatzeko.

Ona emen, "Ecclesia" aldizkaritik euskerara itzuli-ta arrera onen berri.

- - -

Errati bidezko zabalkuntza.

United Press'k : Deiaren 30.000 itz zabaldu ditu, ingleseraz, prantzeraz, españeraz, ta portugerez osoki emanaz, ta onetzaz gain laburpen eta iruzkin zabal bat.

Associated Press'k: 20.000 itz; alemaneratutako textos osoki eta ingleseraz, españeraz eta prantzeraz zatirik garrantzitsuenak; 3.000'tik gorako iruzkin.

N. C. W. C., Ameriketar Katolikoek Batzarrak: 10.000 itz errati-telegrafi bidez; ingleseraz texto osoa, ta la-

burpen-ian eta iruzkiñak.

International News Service'k: ingleseraturiko textoa, ta laburpen bat.

Reuter'k: 5.000 itz, eta ingleseratu-textoa.

Agence France Press'k: 10.000 itz, ortxe-ortxe; prantzezeraz texto osoa, ta laburpen bat iruzkin-egiña.

D. P. A., Alemaniar Agenciak: urrutizkiñez textoren 4.000 itz une bertantxe, gero errati-bidez osoa zabal-tzen zualarik.

A. N. S. A.'k: laburpen oso bat bidali du itale-raz, prantzeraz, ingleseraz, alemaneraz, españeraz, ta portuge-raz.

Deiaren oiartzuna itxasoz aruntzko aldizkaritan.

United Press, Agencia'k: Aita Santuaren errati-de-
lak sortu-biotzkada ta iruzkiñak jasoz, gero zabalkundee
aundia eman zion, garrantzizko gauzari bezela argitarapen be-
robia emanaz.

Washington'en, Gobernuko berri-emalleak, Aita San-
tuaren Deiaren zati zenbait, gaur egungo gertaera garrantzi-
teuskin zer-ikusit aundia daukatenez, bereiziki aztertutak
itzango dirala baieztu dio United Press'i.

Uri artako egunkariek toki bereizi ta nagusia e-
man diote Deiari. Daily News itxaropenetan dager jauntxoek
arretaz eta ajolaz irakurriko dutelakoan agiria; siñestunek
beren kristau-elburuak gordetzera eragintzeko kristau-egiak
indarririk aski eztaukatela esaten badute oiek, beren bizitza-
ko errurik gorrienenan itotzen dira.

Washington Post'k, Deiaren zatirik jakingarrienak
argitaratu ditu lenengo orrialdean, Aita Santuaren argaskia
lagun duala. Aldizkari berak, Aita Santuak egungo arazoei
buruz egin dituan oarrak eta eman-arauen egikortasuna garan-
tzi aundiko jotzen ditu. Bide batez, Washington Daily News'k,
Aita Santuak gogoaren balioetan siñisten dutenen indar-ba-
tzearen bearra dala-ta, ippintzen dun garrantzia adierazten
du argi; L'Evening Star, batez ere Aita Santuak O. N. U.'ri

zuzendu dion aolkuaz diardu, alegia, etsaien erasoai eusteko indartu dezala bere aala.

Nueva York'ko aldizkari audienetako lenengo orrialdetan, esate baterako New York Times eta Herald Tribune'n Aita Santuaren Deiarri toki bereziena eman diote. New York Times'k au baiezten du, alegia, Aita Santuaren emezortzi Gabon Deietatik aurtengoa bereziena omen da, indartsu ta kementsua, ta arritu añaako argitasunez kutsutua. Gobernu baten menpeko izateko toki guzietan pake-itxuran eriotza erein egin oi duten oien arpegiko oiala kentzen du Aita Santuak; eta menderatu nai zituzten erri oei gorroto ta iguin zerieten Gobernu anker ori dala-ta. Arazo guzietaz ezaguera sakona daukan Aita Santu onek, leia zorrotzak eraginda, baña jakituriz, aztertu ditu egungo buruauste ok. Gaur egun, arrisku gorrian ikusten dituzte gizonak berezko ditun balio edo eskubideak oro; gaurko mundu ezain ontan, pakea salba dedin, giza-eskubide auek gogoraraztea Aita Santuari zor diogu.

Daily Mirror'k au idazten du: Aita Santuak gizadi osoari itzegin dio, erriak oro jauntxoan nausikeritik, zoritarretik eta etsipenetik gorde ta zainduak ditezen.

Canada'n, katoliko-aldizkariz gañetik toki nausi bat opaldu diote Deiarri Montreal-Matin'k, Montreal-Gazette'k Toronto Globe'k, Montreal Star'k. EE.UU. 'ei eman bear zaien bultzada zein oargarri eta bearrezko dan oartzen da Aita Santuaren Deian; Aita Santuak, bereiziki pakearen giltz izkutua balioan dagola uste duten auei zer gertatuko zaien esan die, Leterriak ezpaitira aski guziera.

Oargarri da oso Mejiko'ko aldiakari aundiak, El Universal eta Excelsior'k Deiarri eman dioten zabalkuntza, Aita Santuaren argazkiz apainduta, giza-emakumeei pake-zale-tasunera solku emanaz. Aipatutako bigarren aldizkari orrek onela dio lenengo orrialdetan: "Moral mallan Aita Santuak duan ospea gogora ekarriz, bere itza uneoro baña batez ere jaijaladi nagusietan, edo Kondairako unerik gorrienetan munduari eman dionean dardara sakonak sortu ditu. Berak gogoratzen dituan jokabide-sustraiak, eta zabaltzen dituan erakutsiak, kristaudian artukizunik ez dutenen biotzak ere ikaratu ta arazotu egin oi ditu..."

Aita Santuaren Jaiotz-Dei onek edesti-arauz ere badu balioa. Ezin egokiago gogoratu Jesusen Jaiotza, gizonei zor zaien begirunea eraberritu bearra dagola biotzen sakonean jositaz baizik; eta ontan, liburu santuei darien argitasunez jokatu da.

Lagu burkogensako maitasunak eta borondate onak bakkarririk, oiñarriz arturik, iagon dezakete pakea: au da esangai nagusiena Brasiltar aldizkarien idazpuru eta iruzkiñetan, esate baterako O Globo'k eta Diario da Noite'k; tarte zabala eman diote Aita Santuaren Deiarri.

Argentina'ko aldizkariak ere zabal jardun dira Deiaz. Laburpen luzeak eskeiñi dituzte goizeko aldizkari guzietan. Prensa'k onako idazpuru au dakar lerro gizenetan: "Pio XII'garrenak dei dagio mundu askeari pakearen lortzeko elkar tu ta batu dedin". Nación'ek: "Guzion arriskuari bekiki eman dezaiola aolkatzen dio munduari Kristoren Ordezko Nagusiak".

El Mundo'k eta ingleseraz irartzen dan Buenos Aires'ko The Herald aldizkariak, Aita Santuak EE. UU.'ei buruz esan duanari garrantzi aundia damaiote.

Filipinas izaroetako aldizkariak Manila Times, Philippines Herald, Manila Chronicle, Manila Daily Bulletin'k, Aita Santuaren erakutsiai eman dieten garrantzi arrigarriak beste egunkariengandik bereizitu ditu oso.

EUROPA 'n .

Inglaterra'ko Daily Herald Laboristen aldizkariak O. N. U. dagozkion zatiak bereizten ditu. Daily Telegraph Conservadoreen aldizkariak "desarme" dalakoaz diardu bereiziki. Liberaleen Manchester Guardian'k Europeitar Alkartasunerako deia jotzen du garrantzizkoen bezela, eta Times'k car bat dakar bere Erroma'ko kronikari asiera ematerakoan: "Pio XII'garrenak munduari zuzendu dion Errati-Dei au bere Aita Santutzako Deirik gogofena dugu; Kristaudiarentzat dei bat izan da, gizonaren eta gizartearen balioak galbidera daramazkiten joera okerren aurka joka gaitezen.

Yorkshire Post'k, O. N. U.'ri buruzko gogorapenak Juno ometzako ditu, onako au cartuz: "Iruzkiri au, EE. UU.'en

garaipena nai dutenek aaztu ezin dezaketen oarpen bat da. Egiz. O. N. U. 'k bere izen-ona galduko du, bere agintea erri argalei ta bere agindua betetzeko prest daudenei ezartzeko lain ikusi badeza bere burua.

Esan-nai sakonekoak dira Sartaldeko Alemani 'ko aldizkariak idazpuruak: Frankfurter Zeitung 'k onela dio: "Aita Santuak "aereo-indarren neurribidea" eskatzen digu". Die Welt di Amburgo 'k: "Europeitar Alkartasuna eskatzen du Aita Santuak". Sueddeutsche Zeitung 'k: "O. N. U. 'ren sendotza ta "desarme" 'a eskatzen du Pio XII 'garrenak.". Colonia 'ko Koelner Anzeiger 'k: "EE.UU. 'en indarberritzeaz ta "desarme" az etengabe diardu". Bonner Rundschau 'k: "Batasunak soilik iagon dezake pakea". Aldizkari auetan eta besteetan iruzki-ñak gaztiazten dira Gabon-osterako.

Suiza 'ko aldizkariak Deiaren zati aundienak argita ratu dituzte, eta erratiak Vatikanokoarekin batean edo beran duxeago osorik eman zuten.

Belgica 'n katolikoak aldizkariak, esate baterako Die Standaard, Gazette van Antwerpen, Het Volk, De Nieuwe Gids, Libre Beilgique, La Métropole, La Cité, Nieuw van den Dag, auek garrantzi aundia eman diote Deiari. Soir, Lanterne ta Meuse, aldizkari askeak eta liberalen Het Laatste Neuws ere Dei onetzaz ari izan dira.

Beste onenbeste egin dute Holanda 'ko katolikoak De Volkskrant, eta conservadoreen De Telegraaf 'k, naiz-ta labur ta motzago.

Prantzi 'ko aldiakari ospetsuenak atsegiñea eta baieztuz artu dute Kristoren Ordezko Nagusiaren Deia: La Croix 'k osorik argitaratzen du, ta azalpen bezela oar bat inintzen dio. Beste zenbait gazetatik au irakurtzen dugu: "Pio XII 'garrenak, gure siñismenaren misterio arrigarriak begien aurre ditualarik eta adimen zorrotzez, giza-izateari zor zaion begiruneaz ta mugaz mintzatu da; egungo zenbait gertaeretan Jainkoaren eskua ikusi ta erabaki billa zein iturri jo ikasi dezagun, pentsamentu egokiak kristauarentzat.

Le Monde, arratsaldeko aldizkariaren lenengo orrialdean toki berezi bat eskeiñi zaio Deiari, Pio XII 'garrenaren

itzaldietatiko kementsuena dana baieztuz. Hungria erriak ja-
san duan naigabezko bizitza asieran aitatu ondoren, Aita San-
tuak O. N. U. ren eginbeurrari buruz azalduriko agiria dakar,
alegia, O. N. U. k guda eraso-naia galerazo egin bear zezake-
ala, edozein aitzaki dutelarik bidetzat. " Gogo-mallan -dara-
io Le Monde k- egi ertsiak esan dizkio munduari eta egungo
gizarte aurrartuak artu dituen arrisku bideak naigabea sor-
tzen diote, kristau begiz ikusten baitu orc".

Erriarteko politika-mallan, Aurore, eskubi-aldekoen
aldizkariak au idazten du: " Errati-bidez entzun aal izan di-
oten guztiak arrituta utzi dituan zindotasunez, Aita Santuak
erri guziei dei egin die, azkenaldi ontan zenbait tokitan ja-
so diran eraso-kiñuei bekoki emateko erabateko eta alderdi-
keri gabeko batasuna sortuaz.

Figaro k dionez, munduko buru-austeak erabakitzeko
idaroki goitikoak eskeñiz agertzen du bere indarra Aita San-
tuak. Eliz Katolikoaren Buruak politika-auziak itzuri egin
ditu, bere aalean; baña Comunismo a politika utsetik gora di-
joa. Materialismoagan oñharritua dagon filosofia da; krista-
uen Moral a ta gizakiari zor zaion begirunea erraustera ma-
kurtua dago.

Zaletasunez bereizi dute Portugeraako aldizkariak
Aita Santuaren Errati-Deia, Noticias eta A Voz k texto osoa
zabaldu dute. Garrantzi sundis apaindua azaldu diete irakur-
lesi O Seculo k, Diario de Noticias eta Diario da Manha k.

Irlandarren aldizkariak ere berdin jokatu dira,
iruzkin luzea emanaz eta idazpuru negusiz eta txikiz apain-
durik.

Gorasarre-sorta ontan Errusitarren aldizkari ta
erratiak ditugu bestelako, ezbairik gabe. Moscu-erratiak Aita
Santuaren Deiak "Kristau-arnasik" estsakala esan du, "Deia
pakezko alkar-bizitzaren (coexistencia pacifica) aurka dijo-
alako", eta "erri-elkargoen politikari onaspenu eman diola-
ko, ta erri batuet elkarrekiko ar-emanak estutzeko dei bat
bieldu dielako".

Hungria erria komnista jauntxoek egin-erailketak
zeruetara jaso dituzterengendik jaiotako iruzkin oneri etas-
te, bide batez, iruzkinik zor. Burrengeri bait litzake.

Tiki Berriartua k itzulia, "Ecclesia"tik. Arantzazu.

JACQUES LECLERCQ'EN LIBURU BĀTI BURUZ (L'enseignement de la Morale chrétienne)

Gure garai ontan, gizaldiak gizaldi egundaño ikusi ez diran larrialdi ta aldakuntza aundien ikusle jarri gaitu Jainkoak, aldakuntzak, bide berrial azaltzen zaizkigu edonon, bai izadi illaren eremuetan, bai gogoaren mendean daudenetan. Gaur dana jakin nai da, dana aztertu, dana azpikoz gora jarri, dana ikusi. Onela ondar gañean jasotako amaika etxe lurra jotzen dakuskigu, eta nork jakin askotan arkaitz gañean jasotako gazteluen oñarriei ere ikara eragiten ez diogun? Alde guzietan ase-eziña ta jakin naia nabaitzen da. Gaitz au, gaitza bada, ezta kristau batentzat beldur izatekoa; biziaren ezaugarri izan liteke; eta ez gaitu beldurtu ta goganbeartu bear, ta bai Eleiza Ama deunaren esanean diarduan bitartean, postu ta lasaitu.

Berri-nai du au, ase-ezin au Eleizaren seme zintzoen arteraño iritxi da, eta erlijio-gayai berai ere ez die partatu. Ar dezagun gaur gure jardungaitzat erlijio-gaietako zail bat, kristau-legearen irakas enari buruzkoa; baño zail oni buruz idatzi ta esan dan guztia bildu eziñean, idazle batengan bakarrik jarriko ditugu gure begiak. Au Jacques Leclercq ospetsua izango degu, Lovaina ko irakaslea berau. asko idatzia da batez ere kristau-bizibideari ta kristau-legeari buruz; baña bere berriztu-naia bereziki "L'enseignement de la morale chrétienne" izeneko liburuan erakusten du; liburu ontan azaltzen du argien gai ontan bere gogoa; orregaitik beroni jarraikiko gatzakio, berau artuko degu lan ontan gure aztergaitzast.

liburu onek aldekoak eta -ura koak, txalo-jotzailleak eta etsaiak ezin ditu Guztien on-iritxirik ez du lortu, ezta Eleiz Ama deusean ere. Erroman gaitz-iritxi garbirik eman espadiote ere, beintzate bester. -arazi egin dute. Aztertu dezagun zerbait berria, eta azkenean jarriko degu gure iritzia.

1. Gayari eza.

Indik sortu zaio Leclercq Jaunari kristau-legea irakasteko bideak, berriztu naiya?.

Kristau-legea, kristau moralala, gaurko ~~ikas~~-liburuetan erakusten dan erakoa, Lovaina'ko irakasle onen aburuz, ohera bearrean dago. Lenbiziko lerroan galdera au egiten du: ¿Bai da kristau-legean korapillorik askatu bearrezkorik? Kristo'z gerozko emeretzi gizaldien buruan, ez ote dedu ezagutzen Kristo'k guri irakatsia, eta ortarako idatzi izan diran ainbat liburuk ez ote digute esanala guztia esan? (L'enseignement de la morale chretienne, p. 7)

Beste liburu baten ere, "Essais de Morale Catholique" izenekoan, kezka beraxe darakus: "Bear bada, liburu onen idazpuru, izena, irakurtzean, irakurleak arriturik bere baitan esango dute: Kristo'ren buruz enseyukarrean aritzeko, oraindik osotu gabe, zeaztasunen baten bearrean, ote daukagu lege ori?".

Ezagun da gure idazle onek gai ontan bide berriren bat artu-bear aundia nabaitzen duala, eta kezka orrek zirikatuturik ageri zaigu bere liburu osoan.

Aurren ekarri degun galderari gure idazleonek baiezko erantzuna ematen dio, "Bai kristau-legeari buruz eztabai da-gairik ba-da oraindik, eta ez bat bakarra, asko baizik". (p. 7) Rein ta berriz ekingo dio esaten: "Gure aldi ontan, zillegiztia, moralala, ezin-egon baten dago". (p. 9) "Kristau-legea nola irakatsi, gogo-biotzak nola ezi ta zuzendu, orra, bear bada, Eleizan dan buruausterik, arazorik miñena, aundiena... Guztiok ikasi ta ikusten deguna da kristau-irakaspenari gaur jaurtitzen dioten gaizki-esanik garaiena zein dan: alegia, ez dala gogoak berotzekoa. ez dala zirikagarria". (p. 9-10).

Kristau-irakaspenak, itxura baten, zaar kituta, buruz ikastekoa baizik ez tala dirudi; ez dala surik, ez alaitasunik, edo gogoberorik ematekoa. Irakaspen onek goibe aundizkoa, baña dana oi diralako itzez, orain gure agotan ez darabiltzkgun itzez ematen digu; gañera gure gogoetatik urruti diran gai asko darabiltzki. Jauregi zaar bat dirudi, lenaren oroigarritzaz eder derizkiog-un eta ikertu oi degun jauregibat, bere barnean bizitzeko gogorik ematen digun jauregia." (p.10).

"Gure eskoletan eskolatu diran gazteak eta gure itzaldi edo sermoen aditzalleak "esi-legea" iritxi bear gure legeari; eragozpenik asko jarri ta aurrerapiderik gutxi ematen duan legea. Ez dute, noski, nabaitzen, ez, beren biotzetan gora-nai ta aundiago-nai zindoena pistuko dizkien dei berorik" (p.10)

Orra zerk daraman Lovaina'ko irakasle au bere ikuskera berrian jartzera. Leclercq jaunaren asmo ta gogoa zea-tzago ulertzeko, au gogoan idukitzekoa da. Kristau-legeak, oraingo aldietan irakasten dan erazkoak, ez du gog-biotzak beotzeko surik, ez du aurrerapiderik ematen, ez da zirika-garri. Bere itzez esateko, "indar gutxikoa da, askortasun gutxi emateko, ez dirudi oldarrera ta garaitzara zirikatzeke legea, neurritz ta senaz ibillirastekoa baizik" (p.11). Orra zerk keskarazten duan geienik gure idazlea. Kezka orrek ematen dio berari su eta garra gure egunotan irakasten dan zillegixti edom moralaren zuzendu bearrak erakusteko; kezka orrek dara-bil bera kristau-legearen irakaspenak nola berrintu azaldu nai digunean.

2. Lenari begira

¿Onelako negargarrizko egoera ontara nondik eta nola etorri ote gera? Ona nola jalkitzen digun Leclercq jaunak gaitz onen zortzea: "Erdi-arean berandu arte, kristau-irakaspena dana era batekoa zan, oraingo iritxiz lorriña, naastua, liburu santuak muantzat artuta emana. "Lectio sacra" zan teologia irakasteko ia biderik bakarra. Idazteunei, liburu santuei atxikiz irakasten ziran gañerako ikaskisun eta egi guztiak, ayen itzei jarraituz. Amairugarren gizaldian, ordea, eskolastiko diralako jakintzak beste bide bat ekarri zuten,

ikaskisun bakoitzaz zail bana egiten zigutela. Toma deunaren aldiari, bai berak eta bai besteak, ikaskisun guztiak, gai guztiak erabatera, elkarganik berezi gabe, eman oi zituzten, aren "Summa" k erakusten digun bezela. Ikaskisun oiek berezitzea eta zailitzea XVI garren gizaldian burututako lana da. Seminarioak eregi ta eleizgizonen ikaskintza arautuaz batera".

"Orduko erlijio-irakaskintza zearo eleizgizonentzat egin zan, apaiezen gauza, apaizgaiak eskolatzeke asmo utsetan eratur. Asmo orrekin, kristau-legearen irakaskintzak, moralaren irakaskintzak apaizak arimazaitzarako gai egitea artu zuen elburutzat... Batez ere, garbai-sakramenturako, aitortza sakramenturako".

Beste alde batetik, teoloji moralaren edo eleiz-zillegiztiaren atzera-aurrerak aldiari aldiko goraberari dagokitenak dira; eta ayek obeki ulertzeko, noizkoak diran gogoan izan bear. Orduan kristauak nastegabeko, fede ta gogo bateko erri bat egiten zuten. Guztiak ziran katoliko eta etzuan inortxak ere fedean ez bairik. Beraz erlijio-gaietan Eleizak etzuan inor federa ekarri bearrik; ekanduak zaitu ta zuzentzea zan bere eginkisun bakarra. Kristauen siñiskaiak jakindekotzat zeuzkaten guztiak; fedek agintzen zuana egitea, pekatuetatik urruti irautea, orra or artu bear zan neketa". (p. 219).

Orduko gizaldiak ikuskisun au ematen zualarik, moral edo zilleguztiak alde bat utzi zuan kristautasunean egi guztiak elkarri eutsirik eskintzen duten erabeteke ikuspegi sundi-ederra, eta noiz zer egi bear dan jakitea jarririk, zer dan pekatu ta zer esta, beste ardurarik etzuan izan. Eta onela gertatu da gure egunetara arte.

Baña esta au kristautasunaren muiña. "Badirudi zarritan, dio gure irakasle onek, moralak, zillegiak ez ote duen beste agitekorik, gauza bañ noiz dan pekatu erabakitzea bairik, eta ori fedea izan, baña onerako maitasunik eztutela, inpernura juan nai ez dutenentzako. Aitortzera datorrenak esango balu bezela: "Ni aragikoia naiz, nerekoia, lasakeri-zallea, arrokeriz-pustua, eta nere gaiztekeri orretan jarraitu nai det, ori pekatu gabe egitekoa bada beintzat. Esan, beraz, neri noiz zer eta noraino dan pekatu, eta nik ez det egingo pekatu ori; baña ortik gorakorik ez eskatu neri" (244)

Orain bestelako aldietan gaude. Orain olako irakaskintzak pekatuen berri bakarrik ematekoak, ez du inor asetzen. Kristau-legea bere osotasun betean, bere edertasun eta indar guztian erakutzi bear degu kristau-erlijioaren mami ta guna gure jardunbidearen argi ta oñarri jartzen degula. Ebangeliora itzuli bearrean gaude. Onelako esaeraz inaurririk dago Leclercq jaunaren liburua.

3. Kristau-legea ta kristau erlijioa

Kristau-legeak, orain erakusten dan bezela begiratzten badiogu, gure idasle onen iritziz, kristau-guna galdua dauka. Ori dala-ta, ez du lenagoko aldietan izan zuan indarrik.

"Kristo, dio jaun onek, lenbizikorik, salbatzalle degu, eta salbasioak berakin gauza asko ditu, guziak elkarri dagozkitenak, eta gure bizi guztiari, eta bai, gure gogo guztiari ere bide berri jakin bat erakusten dienak. Salbazioa oraingo eta geroko biziari dagokiok gauza bai-ta" (p.18)

"Kristo'ren egikizuna etzan izan erakuste utsa. Kristo'kgizona bere izatean barne-muñetaraño berriztatu ta aldatu nai du; berriztatze au gizonaren bizi ta egiñenetarañokoa da" (p.18).

Graziak barnean egiten duan berriztatze oni agerian azaltzen dan jardunbideak edo ta egiñenak erantzuten diote, ta oiek aren agergarri dira. Testamentu Berria irakurkeran, gauza au nabarmenduko zaigu: graziak gure bizian eragiten duan berrizkuntzak gure egikerak bere-berez berriztu bear dituela, Kristoren jarraitzallea bere ageriko bizikeran izango dala ezagun, alegia, bere jardueran, bere biziari buruz artzen duan burubidean. Testamentu Berriaren idazleak, Kristo'ri jarraikirik, antza dutenez, ez dute sekula gogotan artu, etzaie inoiz burura etorri, gure barnea berriztatzeke bizirik izan litekenik ere, ezalera egertu bear eztuanik... Kristoren erlijioan dana da gure biziaren onerako" (p.18-19).

Oraingo irakiskuntzan kristau-erlijioak duen alde alaigarri, indar emalle au, lorrindurik, moteldurik, ageri zaigu. Or ditugu alde batetik, siñiskaiak, buruz ikasi ta buruari bakarrik itz egiten diotenak, gure bizitzarako indarrik, ez argirik ematen digutela. Bestetik, or degu zer dan zillegi

bakarrik galdetzen diogun zillegizti edo morala, Kristorekin zer-ikusirik gabea, Kristo'gandik bizirik ez indarrik artzen ez duala. Ara, gure kristau-legea ikasteko liburuak eta anatomi-liburuak bateratsu joten dute: anatomi-liburuetan baditugu kapitulu batzuk soin-ezurren berri emateko, beste batzuk sain-kirioendako, beste batzuk urdail-esteentzako, beste batzuk arnas-bideentzako; kapitulu bat ere ez gizon osoaren berri emateko, eta gizona zer-nolakoa dan beste iñondik ez lekikenak, eztan gauzen bat iruditu lezake. Baña gizona zer dan edozeñek dakialakoa uste degu; anatomi-eskola gizonaren berri dakitenentzako da. Orrelatsu gertatzen da kristau-legearen irakaspidez ere. Kristauerlijio zer dakigulakoan ari gera. Baña kristau-erlijioa ez da sekula zearo ezagutzeakoa; gizaldiak-gizaldi, bakoitzak bere alegiñez esagutzen sayatu bear du, eta atalka, arauka, zatirik zati ikasiak ez digu on andirik egingo, bere barne-muiñ osoaren jabe egin gabe, Kristo'ren gogoia ta Kristo'k biziari dagokion zuzenbidea esagutu arte" (p.27-28)

Gaurko zillegistiak, moralak, bakoitzaren egikunei eta noiz zer zillegi dan azaltzeari geyegi begiratzen dio, eta kristau-erlijioak berekin darakarren indar bizi-emalle ta barne-berritzallearen bearra du. "Kristau-legea ezin izan gizon prestu, zindo baten lege utsa, erlijio egikun batzuk gañeratuta. Kristaulegeak gizonaren barnea aldatu ta berriztu bear du; artarako gai dala ba-dakigu; baña gaitasun ori nola ta nondik duan ere azaldu egin bear da" (p.35).

(Jarraitzeko)

Sendi Deuna'ren Abelin
Begoña'ko Karmeldarra

— ANTZE TA ELERTI —
HUGO WAST-EN

IXIL-GORDEA

Ez al duzu zure barne ortan eleberri edo zeozertxo ren bat idazteko zirikadarik sumatu? Egi esan, lotsatzen naiz aitatzen ere baña, beñ otu zitzaidan neri eleberri edo ala-olako zerbait egitea. Ta bururatu bakarrik ez, baita skin ere ekin nion. Adoregearen legorteak ordea, bereala igartu zun landara jaio-berria. Izan ere, biotzak eraginda sartu ni eleberri-soroan eta biderik arkitu ez, sartu ordukoxe galdu!

Geroago egin dut topo Hugo Wast, otsaundiko elebeñi gillearen idazti batekin, idazpurutzat "Confidencias de un novelista" daramanarekin alegia. Irakurri ta atsegin izan zait. Ezta retorikalari bezela egindako liburua. Era ortako iztiak euki oi duten sakontasunik eztu bearbada izango. Badauka ordea, beste zertxobat, ots, biderik izkutuenak ere ederki dazaguzkin gidariaren argitasun ori.

Ongarri izan zait neri, ta besteeri ere onurakor izan dakiekela oso-ta, noizean bein edonori ernetzen zaizkion idaz-gogoak utsean erori ez titezen, bere gogai garaienak ematea egoki derizkiot.

Egilleak, liburuaren azalean dagerrenez, iru atale-tan zatitu du bere idazlana: eleberria nola asmatu, nola egin eta nola argitaratu. Gaurkoz lenengo atalari lotuko naitzaio.

ELEBERRIA NOLA ASMATU

Lenengo atal onen irakurburuak dion bezala, elebeñi a asmatu egin bear da lenen, asmatu. Ta ortarako bear-beaño

dugun tresna'asmamena da. Ona,bada,eleberrigintzara jo nai dunak'ezin aaztu dezaken egia: irudimenik eztaukan eleberri-gillea'errorrik gabeko zuaitza bezelaxe da. Ta odolak men ori esku-erakus ezpadio,alperrik dabil: ondore onaren oiñarria bera falta zaio.

Irudimenaren lana'bi eratakoa dala esan diteke. Aurren-aurrenengo'eleberri-gai bat sortu (irudimen sortzai-llea). Ta gai ori sortu ondoren'aunitz jazoeretan zabaldu, ots,eleberriaren askapen (desenlace) izango danaren aziak'beren barnean daramazkiten gertakariak asmatu ta zuzendu (i-rudimen zuzentzaillea). Bi lan auek derriorrezkoak dira. Eleberriaren muiña asmatu dunak'aundiena eginda daukala uste izan dezake,baiña bai zera. Dakiola idaz-lanari,ta orduan dargerkioke ustearen gezurra. Beti idoroko ditu utsune asko. Ka tearen osotasunerako'beste aunitz gartza jarri bear izango ditu. Ta utsune oiek betetzea'asmamenaren zeregiñ da.

Baiña eleberri-mota orotan bear ete irudimena,galdegin dezake norbaitek. Ta baietz,darantzu Hugo Wast-ek. Bere iritziz'iru aldratan bereiztu ditzakegu eleberriak: gogai-eleberriak (azalkizun bat dutenak),ingurukoari ta gizakereri buruzko eleberriak,eta azkenik'azpikeri ta arriskuetazko eleberriak.

Lenengo ta irugarren motako eleberrietan irudimena bearrezko dana'berez agiri da,lanik aundiena bere gain baitago. Baiña bigarren motako eleberri askotan,esate baterako, edesti-eleberrietan,ain ete da ba derriorrezko asmamena? One lakoetan'kondairak berak ematen dula guzia uste izan diteke. Uste okerra aldiz auxe! Bekiote kondairagille soil diranak mueta ortako eleberrigintzari ta zer erdiko diguten? Geienetan,Hugo Wast-ek dionez, "revoltijo de fechas,nombres,sucesos, que en el mejor de los casos puede revelar una abundante com pulsa de archivos,pero ninguna imaginación creadora y ordenadora".

Edesti-eleberri bat moldatzeko'ezta aski kondairagille izates. Ortik ere bear izango du noski,baiña bearrezkoago da irudimena ori baiño. Asmamena duzu eleberrigillearen isar. Walter Scott eraguna kondairagille zan,egi da,baiña baita eleberriakila ere,eta,irudimendun. Eta ala eman al izan sistigun bere edesti-eleberri miragarriak.

Edesti-eleberrietan guzia kondairatikoa dala uste izan dezakegun bezala, arriskuetazko ta ingurukoari buruzko eleberrietan'oro irudimenak damalakoan egon gintezke. Ezta oster, orrelakorik. Geienetan, ia beti, eleberrigilleak'izata-sunaren arrobotik atera oi ditu bai giza-ereduak, bai zenbait gertakari. Ala ta guztiz ere ordea, orsiñago esan bezala, as-mamenak du lekuri buruena.

Eleberrigilleak ortaz, ezer onik egin al izateko, irudimen iori baten jabe bear du izan. Ta nork dakizki asma-menak bere barnean dauzkan ixil-gordeak? Arrigarriak dira goi arnasak ernaituta'men jator onek eman oi ditun uzta bikañak. Eta aunitzetan'nundik norakoak diran idaleak berak ere ezta-kiala. Irudimenak bere bide gordeak dauzka, ta ez-ustean eramaten gaitu ikuskizun argi ta ederrenetara.

Asmamenez eta barne-indar ixillekaz osaturiko sen zurgarri ori da eleberrigillearen gidari. Eize-zakurra bere usaimen zorrotzarekin erbiaren atzetik bezelaxe doa idazlea ere elerti-soroan aurrera. Ta sen orrek eraginda jarriko du onako ontan zertxe au, arako artan beste ura. Baiña tajuz beti, agitz egoki guzia. Benetako eleberrigille diranen doai arrigarria!

Egokitasuna'garrantzi sundiko da oso, ta gertaerea ongi zuzentze ori ondea (fondo) izan ezarren, gauza buruene-takea da. Ondek berak baiño obeto erakutsi oi du kerak (forma) eleberrigillearen seta. Kera esatean, ezta Hugo Wast azal-kera (forma externa) esan genezaken aretz ari, barne-keraz (forma interna) baiño, au da, jazeeren zuzentze ortaz.

Gertakariak ongi zuzentzetik egiketa (acción) jaio oi da; obeto esan, orixe bera da. Ta eleberri batean egiketa bear-bearreko da. Eleberriren bat irakurtzen ari geranero, es al gera guziek egiketa nun sumatuko ibiltzen? Izan ere, orixe zaigu atsegiñ.

Ikuspegi ontatik begiratuki, Txomin Agirre-k bere "Garoa" ke zenbait atalbururen asieran dakarzin elezketa lura ta gogaketa amaigo aiek es al genituke akats joko? Oietan luzarregi eten oi dula egiketa derinkiot. Lenengo irakurraldietan irakurtzeko utzi ta aurrera jo izan oi nun nik.

"Jazotzen" ari dan zeezeren gose izan, eta luze etsita'arexen billa joan.

Hugo Wast-ek puntu ontan'etzala jakitunen irizkide aitortzen du. Giza-jakintzaren adarretan maixu diran aunitzek ez omen dituzte egiketaz eiotako muiña daukaten eleberriak ederresten. Naiago dituzte jakintza-zatiz erabat jositako eleberriak. Eztira ordea, orrelakoak erriaren gogoko. Ta amai-ka aldiz jende arruntaren epaia izan da onetsiago eleberri-kondairan zear.

Orobat dio eleberri psikologikuetaz. Joan dan gisaldiaren azken aldean tankera ontako eleberriak'sekulako aizea zeukaten. Eleberria filosofi-sailleko atal bat besterik etzalako teoria ere asma zuten da. Ustego onen arabera, idazti bat benetako eleberri izan zedin, gogo-azterketa egin bear zan bertan, zenbait auzieri buruzko eztabaida agertu, gizarte-ustegeunak (sistemas sociales) epaitu. Idazle askori' igespide polita gertatu zitzaizen eleberriazko gogamen (concepción) au. Izan ere, irudimena antzu zegoneko garaia izan ura!

Eztu Hugo Wast-ek psikoloji egin bear danik ukatzen: "Aún los cuentos de hadas deben ser psicológicos". Egin bear da, bai, baiña egiten ari danik jakin-erazi gabe, eleberriaren aria gertakarietan zear luzatzen doan bitartean. Ba-dira ori ederki egin dutenak; esatera, Bourget frantzitarrek bere " El demonio del mediodía" n . Baiña eleberrian zear psikoloji egin bear dala zuzenestetik, eleberrigintzaren muiña psikoloji soil eta utsean datzala baieztara, ba-dago alde ederra.

Edozein motatako eleberrietan egiketak daukan leen tasuna'eztezake inork ukatu, leentasan ori eleberriaren zertasunetik beretik jaiotzen baita. Onela zertzen du Hugo Wast-ek eleberria: "Representación de la vida, mediante descripciones de ambiente y pintura de caracteres". Len-leenik, "Representación de la VIDA", " BIZIAREN irudizketa", biziarena. Ta biziari zein tasun dagokio obeki'igidura, dinamismua, egiketa baiño? Ain zuzen ere ortantxe datza eleberriaren muiña: bizitasunean. Bizitasunak sortu oi du liburuaren irakur-miña.

Baiña utzi ditzagun alde batera ontan ere uste okerrak. Askok'aurrenengo atalburutik bertatik asi ta odol_

ixurtze ta beste izugarrikerietan murgildu ezkeru, oro bapo dagolakoan egoten dira. Aunitzetan ordea, onelako gauzak nazka sortu besterik ez tute egiten. Ez, aurrera-miñ ori beste zertxo batek erne oi du. Ta zertxo ori bizitasunean bertan dagon tasun bat da.

Zenbait eleberrien balioa bizitasun ontatik dator. Nere iritziz orregeatki balio du ainbeste "Kresala" k ere. Sar gaitezen bere orrietan eta sartu ordukoxe sumatuko dugu atsegin aundi batez arrantzale errietako arrain-usai berezi Ori. Ta nolakoak gero an agertzer zaizkiguz giza-emakumeak? Eztiekigu egi makala Txomin Agirre-k "bizi-biziak dira, Arranondoko sardiñak legez" idaztean. "Bizi-biziak", bizi-itxasotik atereak, barne-muiña bera bizitasunez eginda daukaten giza-emakumeak. Ona emen eleberri bikain orrek irakurlearengan sortzen dun arduraren zergatia: bizitasuna.

Ta beste zenbat eleberrigillek ez tute garaipena lortu beren idaztieri dariokien bizi-lurrun ori dala-ta? Noren irudimena ez tute lilluratu Dickens, Eliot, Pereda, ta beste zenbaitzuen eleberriak? Askotan gauzarik egunerokoanek jaulkiko dizkizute: "Una niña que mira llover, una viuda que dobla sus manteles, un marinero que cose un botón de sus pantalones, porque no tiene madre, ni mujer, ni novia". Gauzarik egunerokoanek... baña nola jaulki gero!

Ba-da garaille irten al izateko beste bide bat: norbere lekuko gauzak edestu. Maiz agertzen omen da orren aurkako akats au ere asleen artean: idazten dutena urrutierrietako kutsuz orniturik edo eman nai izatea. Parregarri ixuditzen zaie inguruan daukaten gauzen izentatzea. Beraxe gertatu omen zitzaion Hugo West-i ere. Onela die berak: "Si necesitaba mencionar una calle, encontraba ridículo nombrar mi calle; si quería referirme a un árbol, parecía insulso decir un tala, o un algarrobo". Ta gibebez ortxe dago garaipenaren giltza. Izan ere, zer dazagu obeto eleberrigilleak bere ingurukoa baiño? Ezer ez. Orrexen margozteak jantziko ditu bere idazlanak egitasun eta bizitasunez. Bestalde berekitasuna (originalidad) nai dunak zertan arkitu aukera ohea?

Eleberriak barne-zirrara eragin nai badu, biziaren

bear digu. Ba-dira ordea emen ondo bereiztu bearreko bi gau za: egizkoa ta egidiña (verosimil). Egizkoa "noizpait" jazo dana dugu; beraz baita "bein edo bein" jazo dana ere. Egidiña berriz "geienetan" gerta oi danaren antzeko dana. Gertaera onen bidez adierazten du au Hugo Wast-ek berak.

Bere gaztaroke ipui batean, "Loca ...!" idazpuru-tzat zeraman artan alegia, bai omen zan sei seme zeuzkan a-largun bat. Sei seme euki emakumeak eta idazle asi-berria-rentzat bat ez beste guziak gaiñez egon! Ura lana! Nola ken du gere gaiñezkoak?

Iñoiz zerau entzun izan omen zion amonari, bere jaioturia zigorkatu zun - izurrite batek zortzi seme zitun alako amari zortzirak lapurtu zizkiola bata bestearen a-tzetik. Ta ortixek artu zun idazleak korapilloaren askabi-dea.

Kutsatu izurritez bere ipuian ere bost seme ta lurpera eramán ditu. Egitan gertaturiko izurrite ura baño bigunkiago jokatu zan bere ipuikoa beintzat eta ... "Disminuyendo un poco la velocidad del flagele y el número de los cadáveres" bide aretz balia zit-kela uste izan Hugo Wast-ek ...!

Irakurri dio alako batean amonari bere lan-ipuia, ta aiek amascaren algarak amaitu zunean!

- "Ori duk ori, semetxo, errugabeen erailtzea, dio-tsa. Ezta Herodes erregeak berak ere".

Ta illobak:

- "Baiña ez al zenidan zuk izurrite artan bestoñen beste jazo zala esan?"

- "Bai, tamalez ala gertatua duk. Baiña ura egi uan, au berriz gezur, ipui ... "

Ona Hugo Wast-i amonak irakatsi ziona: egizkoa ezta beti egidiñ, eta ertian egidiña dugu soilik egizko. Berak di onez "solamente años despues he comprendido la gran lección de literatura que me dió la santa viejita".

Ta zer dio Hugo Wast-ek eleberriaren gun eta jo-muga dan askapenari buruz? Askapenak ez-usmatua izan bear al du eleberrietan? Ona bere iritzia: "Generalmente se cree que sí. Digamos rotundamente que no." Hugo Wast-i ezterizkio

beraz akatsdun' etortzeke dagon askapenaren usmabideak dargerzkin eleberria.

Onelako batzutan' idazpuruak berak iragartzen du askapena nolakoa izanen dan. Ta irakurmiña tipiagotu egiten dala uste al duzu orregatik? Ezta gutxiagorik ere. Ar zazu, adibidez, Julio Verne-ren "La vuelta al mundo en 80 días". Eleberri ontan' irakurburuak berak azaltzen du askapena: Fileas Fogg, len-eikariak (protagonista), 80 egunetan zear bira osoa emango du ludiaren inguruan. Eta askapena jakinafen ezta aurrera-egarri ori batere itzaltzen; are ta barnerago, gosetzenago doa irakurlea. Zergatik dala uste duzu? Onexegatik: bira ori 80 egunetan nola emango dun inñundik ageri ez-talako. Len-eikariak bere lagunekin egiñike apostua' galdu egingo dula ematen du. Baña azkenean Varne-k bere asmapen arrigarri batez garaille ateratzen du Fileas apostularia. Eleberri bat ortaz, askapena aurrez erakutsiarren, bikain-bikaina izan diteke askapen orren lor-bideak sumarazten ezpa-ditu.

Askapena aurren-orrietan sumarazteak eztio ajolarik' beste baldintza ori betetzen bada. Okerrago izango litzake erabat ustegabeko askapena ematea. "Nundik erori duk ordea, au "diagoke bere kolkorako irakurleak. Eta izan ere, egin diteke uts ortan ere. Eleberrigilleak daman askapena' premiseri dariokiena izan bear du, ots, gertakarien biltzari (conjunto) dariokiena ta ez bere gogara, edonola asmatu-rikoa.

Gaiñerontzean askapena naiz alai naiz itun izan diteke, naiz betea naiz betetzaka. Eleberria askotan' mutilla eta neska zorionez ezkondu ta irakurlea gogaseturik geratzen da. Ez ordea, beste batzutan. Oietan azkena "en vez de ser un telón que cae, y despues del cual uno se pone el sombrero y se marcha", eldozkor uzten gaitun ortzantz zabaldu bat izaten baita. Eleberri auen lillurak eraginda, itzuliko da berriz ere noizpait irakurlea beren orrietara.

Ta buruenik'onako beste puntu au. Idazleak, bere eleberriaren sortzeko, idaztarau baten bearrik bai ete du? Baietz dirudi, baña ez, eztu bearrik. Batzuk' egin oi dute idaztarau ori, esaterako, Zola-k. Idazle onek, bere "Rougon Macquart" saila idazten asi zanerako, zeaztuta zeukan guzia.

Ontan aldatu zun bakarrik idaztaraua: berak ezagutu etzun Frantzi ta Austria-ren arteko 1858'gnko. gerratea utzi, ta bere begiz ikusiriko 1876'gnkoa. eleberriztu. " La Débâcle" deritzan zenbaki'n elesten du Frantzi-k Prusia-ren aurka egiñiko guda au. 25 urte aurrez bere idaztaraua egitean, 1892' garrena izentatu zizun zenbaki onen agertzeko. Ta ain zuzen ere' orduantxe azaldu zan.

Beste idazle batzuk ordea' eztute beren lan-araua ain zeazki egiten. Aski dute eleberria zer izango danaren gogai jeneral bat. Eta bein ori asmatu ezkeru, idazteari ekiten diote. Oietakoxea dugu, berak dionez, Hugo Wast ere. Bein egin omen du bakarrik idaztarau ori. Ta bertan, ori zertzen ia bi illabete igaro ondoren, alperrikakoa izan emen zitzaion idaz-garaia, estu ta otzegi baitzirudizkion eikontzi (molde) aiek.

Ainbeste ari' batean lotzen dituzten eleberriak, askotan' aurrez egitaraurik eratu gabe idazten dirala esatea' siñesgaitz izan dakieke aunitzeri. Baña alaxe da: "Cómo explicar semejante misterio?" , galdetzen du Hugo Wast-ek. Ta "es simplemente un fenómeno de subconciencia. Existe en la mayoría de los novelistas una fuerza que se ignora a si misma y que los guía en el laberinto donde otros se pierden, como el instinto de la orientación guía a los pájaros".

Bai arrigarri dala eleberrigillearen sen izkutu ori!

Zurutuza-tar Joseba Koldobika

Arantzatzu-ko teologilari.

MOZART

(1756-1791)

Mozart eresergillearen eunurtea ospatu dugu 1956'ean. Gizarte-malla guzietan otsaundiko gerta da Mozart ospetsuaren oroipenaldia. Egundeko eresertaldi ta jai aldiak burutu dira bere omenez; ez omen da-ta añaake egin zaizkien eresergillerik. Ludian barrena dabiltz bere ereserlan zerukeiak belarrien atsegiñ ta gogeen ezti ta eder. Berek ain ats-goreneko Mozart' itzaltsuari izatez ta berez musikalaridiran euskaldunon begirunerik egizkeena!

Mozart!,"Musika" esatea bezin bat zaigu. Nor bizi -eta biziko balinbait ere- Mozart ainbat eresertiarekin itsatsita?. In, begiak, -ain zoli ta bixi izango zitun begi aiek- iriki zizkizunetik eskua luzatuko dio musikari, berarekin ezkondu ta bizi guztian zear begi aien argia itzali ar-terano, bat eginda ikusiko degu. Bai, auxe dogu Mozart, eresertiaren gallurraren gallurrenenan gertatzen dan gizona. Mozart "bere garaiko gizon apartekoa", Mozart "un. miraria", Mozart bostagrrren urtea urratzeko zalarik, bere umozko esku zuri-xaloekin eta bere goge xotillakin lenengo Minueto'a idatzi zigun gizona. Ona emen Wolfgang Amadeus Mozart.

- - -

Wolfgang'k 1756'garrengo ilbeltzaren 27'an egin zun argi tara sarrera. Bere sarterri Salzburge. Salzburge

apain txoragarri, munduan diran alderik ederrenetakoa, ain-
beste gizon ospetsu sorturiko erria.

Bereala nabaitu zitun Mozart aitak Wolfgang txiki-
aren animaren musikarake tasun ta joera berezia, eta beraxek,
ereslari bikaña zendunez, ekin zion semetxoaren doai arriga-
rrien landu ta ezitzeari. Eta nola ordea! Ez oraingo eran,
lenen solfeo, gero piano ta urrunago beste gaiak ereñaz,
pixkana-pixkana dana batean baizik. Orrela tajutu ta zaratu
zuan orain denak arritzen gaitun gizona. Eredu ederra Mozart
aitarena gaurke musika-irakasleentzat.

Sei urte zituala, bere aitak Alemani aldera eraman
zuan ango musika-kutsuz blei-blei egin zedin eta baita ere
bere doai arrigarriak argitara jartzeko. Munich, Maguncia,
Francfort ta beste zenbait uri zoraturik zeuzkan Obispu, aun
diki, jakintsu ta erri xearen aurrean eskeintzen zitun kon-
zertotan. Ez emn zan alakorik ikusi izan pianoa jotzen.

1763´azaroan Paris´era eldu zan eta emen ere egune
roke izketagaia biurtu zan. Errege eta madame Ponpadour´aren
aurrean ere jo izan bear zitun klavikordioan emateko zeatu-
berri zitun sonatak. Parisen igaretako illak eragipen aundi-
koak izan zitzaizkizun Wolfgang txikiarentzat. An entzundako
musika-era errexa ta gardena izanik, beretzako aukerakoena
zan oraindik argizari biguna antzo zan animaren jabe izanik.
Eta Georges de Saint Foix jaunak zuzen adierazten digunez,
Frantzi-musika aren ixuria nabaitzen zaie Mozart´i bere bi-
zitz osoan zear, ots, zeaztasun eta gardentasuna.

Paris´tik Londres´era jo zuten. Emen ere txalo be-
rez inguraturik dabil. Bach aundiaren anai gazteena ezagutzen
du, ta onek bere anaiaren musika ematen dio. Tamalez, eztu
orain Wolfgang´k ur garbi aietatik erateko betarik. Gerxe-
ago ikusiko degu beaietan murgildua, ta beren keruz blei-blei
aterata. Londres´en idazti zitun -ortara beartu baitzuten-
bere lenego sinfoniak, garaipen bete-beteak lortuaz. Gere
Holanda´tik bere jaioterrira iristen da.

Garai entan egin zun bere lenengo Opera ere: "La
Finta semplice" txera onaz Viena´n artua. Gerxeago "Bastien
und Bastienne", ta Gotzaiaren omenez Meza bat. Gotzaiak or-
daiñez, Kortsearen Concertmaister egin zun.

Etzan ordea Wolfgang bere atsegiñera Salzburgo'n, ta Itali aldera bide artzen du. Emen ere iñoizko garaipenak jaristen ditu. Itali'ke ereslari bikaiñenak ezagutu ta bertaki kultura berenganatzen saiaturik dabil. Milan én Aita Martini prantiskotar ereslari trebearen lagunmin egiten da eta aren erakustaldiak jetsi. "Mitridate Re di Ponto", "Lucio Lilla" ta beste zenbait Opera mamitu ditu Itali aldean.

Eta beñire Salzburgo'ra. Amasei urteko gazte degu.

Orainarteko Mozart'en Musika bere bizitzaren zorientasunaren ixpillu gardena degu. Tankerari bagagezkie, ain berdin agertzen ezpazaigu -Itali'n erromantiku-eraren lenen errañuak ezagun ere zitun- alare bere lanak, denak, xalotasunez, maitasun-giroz gantzutuak ditugu. Orok daude ondo idatziak, ese mutil dager Wolfgang musikagintzan, arraia uretan baiño eroseage dabilkigu ume au eresertiaren ur ezti-tsuetan. Baiña sakontasunik gabekoak derizkiogu, ariñak eta gaiendeak (tema) ergel xamarrak, noski baiño noskiago orduko musika esea bezela. Eta operagintzan italitar aizea nabaitzen diogu. Piccini eta Sarti'rena agiske operan eta Gluk'ena irri-operan. Alare bere nortasun ta keruz gatzatua, batez ere abots-ataletan eta geiage oraindik gaien bilbatzean. Wolfgang amasei urtez il izange bazitzaigun alaz ere bere aldike musikalarien txapeldun litzaiguke.

Lau urte iagre zizkigun Getzaiaren Korteke Concertmeister. Eta eman, lana ugari bai eman ere Getzaiak. Sernatak, "divertimenti", ots, solas-musika, dantza-musika ta beste-lake gai ariñak Mozart'en eguneroke egia ziran. Eleizarako ere Meza labur batzuen bearra omen zan: Wolfgang'k idatzi bear. Jean-eterri gutxikeak zitzaizkien eskatu-musika auek, aspergarriak gañera, Aita Martini'ri zuzendutake eskutitz batean berak digun bezela. Urte auetakoak ditugu violin'erako best Concierto eta pianerako iru Concierto. Bere erritarren atsegiñeko beginini degu gure Wolfgang, eta maitasun orrek bearturik, musika errexa dagi urte auetan ere, errexa baiño piña ta durunditsu.

Ian bai agertzen zaigu danetan arranditsuena ta apartekoa: Haydn-Sernata. Sakentasun, argi-Paris ta sailtasunez ordua, estitan ontzuten da. Bach aundiarengandik

jetsi bide zun sakentasun ori, aren lanak gogoki ausnartzen zebillanez.

Baiña Wolfgang´antzat ludiak eztu mugarik. Berriro Paris´era abiatzen da. Oraingo ontan eztu lenago añaake ots-aundiko arrera izan, alare etzaizkio garaipenik falta. Versailles´ko organularitza eskeintzen diote. Baiña eztu artzen. Ezta beretzat -ain tolesgabe ta xalo- egiña Paris aldeko bizibidea ta jendearen izakera. Gañera Aloisa Weber´en e-roipenak lilluraturik dauka, maitemindua baitago. Ta bere jaioterrira biurtzen da, baiño ose aberastua: Gluk´en lazgarri-operak eta prantzitar musika giroak bere anima ioritu ta zabaldu egin dute. Gañera Schobert ereslaria ezagutu du eta berarengandik jasotako irakaspen ederrak bizitz osoan iraungo zaizkio. Bere lan audietan lenengoa idazteko gertua dator: Idemeneo-opera.

Paris´en idaztitako musikak, sinfoni ta sonata batzuk eta "Le petit riens" opera prantzes-kutsuz josita daude, eta aitatu-operan prantzes-dantzak -Cavota, Giga ta abar- nunai dakuskigu. Eta bertan egiñiko sonatak Mozart´enen artean aipatuena ditugu ("in la minore alla Turka´kin;" "in la mayore" "in fa").

Aloisa´rekin ezkontzeko ustetan dijoa bere jaioterrira. Baiña ustel irten ziran bere usteak. Neskaren sendiak ez omen zien laketu. Manein´era iristen da emengo musika beretzeko. Eta jaso ditun kera guzien batasuna egitea erabkitzen du, baitipat prantzes-musika eta Manein´ekarena. Serenatak eta "divertimenti" baztertuz, beindik betiko musika sakona egitera jartzen da. Oraingeak dituzu "Sinfonia in sol minore" ta Koroazioko Meza. Bietzondo xamurrez, argijarioz eta sentimnetu goxez mamituak. Sinfoni ori ondo aztertuta Bethoven´ena dala esango genuke, bestealdetik ezpage-neki.

Wolfgang Aloisaren arreba Konstanza´rekin ezkontzeko leiatsu dabilkigu. Ez egitan maite zualake -Aloisa izan zitzaion lenen eta azkenengo xalanta-, etxeke arloetarako baten bearra zualake baizik. Sendiak baimena ematen diote, eta Viena´ko Gotzai-Eleizan ospatzen dituzte eztaiak. Baiña zoritxarrez, emaztea atsekabe, samin, eta beasun gafa tza izango zitzaion geroage.

Askok Konstanza Weber, Kristina Vulpius, Göhete aundiaren emaztearekin erkatzen dute. Ez egoki ordea. Göhete-ren emaztea erri xumekoa izanik, lenbaitlen oartu zuan bere senarraren aunditasuna ta baliotasuna, eta berak olerkariaren bizitzan eragipen eta artueman fisikoa soilik zuala. Ez orrela Konstanzak. Ez baitzun bein ere bere senarraren aunditasuna somatu. Eta ala gertatu ziran gertatu ziranak.

Ezkontza ondorengo lenen urteak zoriontsu, xamur eta baretsu gerta zitzaizkion. Ala agiri dute garai ontako bere lanak: pianorako jarritake konziertotan onenak, "Mi bemol, sol, in re minore, in la mayore, t.a. Baitipat "in do minore" mamitutako Meza Aundia. Entzungarri benetan, Saint Foix-en gardiz, XIX-go mendearen musika guziak osotzen dituan Meza au, dena arripitxi istatuenez josia. Bertan nabarmen zaizkigu Bach-en "si" an idatzitako Mezaren Fuga-tankera, Rameau, Gluk eta italiar eresertiaren ixuria, oro arrigarriro bere keraz gantzuturik. "Et incarnatus est" en sakontasunak eztu kidekorik beste olako Mozart-en lanen artean.

Meza onen len-agerketaren bi illabete ondoren Viena-ra biurtzen da, bere jaioterria utziaz. Eta betiko.

Garai ontakoak bere Opera aundiak: "Entführung aus dem Serail" Mozart-en biotzean kabi zuan xamurtasunez oretua, Mozart-en doai arrigarriak nabarmentzen dizkigun lana. "Le Nozze di Figaro", irri-operan erpiñenetakoa, kera zailu ta bizkorrez ornitua. Bertan Mozart-ek bere ikusi, ikasi ta jakin guzia ixuri zuan, bai orkesta erabiltzean eta bai opera-gaia bilbatzean. Benetan lan au garrantzi apartekoa degu opera-edestian. Geroxeago Lorenzo da Ponte-en Dom Giovanni burutu zuan. Antzerti au len ere musikaratu zuen zenbait ereslariek, adibidez, Gluk, Anfossi, Gazaniga, ta Rigrini, bañe guzi auk oso gairdurik uzten ditugure Wolfgang'k. Bestaldez irri-operak etzun iñoiz ainbesteko sendotasun, goimalla, iritxi arteraiño.

Baiña etzioten Viena'n merezi aiña ordaintzen. Beartasun beltz ta larrienean arkitzen zan Wolfgang. Gañera etzitzaien emaztea ere bere bizitzaren gozo ta atsegin. Zorritzar auk astun eta mingarriagoak biurtzen zitun bere gorputzean nabaitzen zuan eri gaizte baten laztan garratzak.

Eztegu erdea Bethoven antzo itemiñaren besoetan lur jota ikusten. Bere lanetan ituna, miña, oñazea agiri da, baña min ezta, biguña, biotz ondokoa. Erdiragarriak dituzu 1788'tik aurrerantzeko bere lanak. Baitipat sinfoniak bikañenak dituzu: "in re, in sol minore" eta "Jupiter" deritzaiona. Erromantiku-eran sortuak dirudite lan oiek.

Beste opera batzuk ere idazti zitun Viena'ke antzertekikoak eskatuta. Aipatuenetakoen artean, "Cosi fan tutte" eztezu aurrekoak aifñake eder. Azkenengo bere opera, "Die Zauberflöte" ernegarri degu. Zenbaiten iritziz Mozart'ek eta aldi orotan sorturiko operarik burutu ta bikañena.

Oean datza Wolfgang tisis gaitzakin bere gorputz gaztea igatua, okitua, irotua dager neguke zugaitz igartu baten gisa. "Requiem Meza" idaztera jartzen da, bere ustez, beste munduko mandatari misteritsu batek eraginda. Sukañak gorputza jaten ari zaio. "Lacrimosa" ren zortzigarrenko konpasean lagatzen du, indarge, aul, iltzer... Bere ikasle Susmaier'k burutuko zuan Meza au. Orain gutxi entzun nun: bere azken dardarren zirrara, iz-zoriko ikara larria, ta Jainkoaren naiari gogoaren makurtzea ene baitan somatu nitun. Bertan jase zion Jainko Aitari Wolfgang'k bere azken oteitz sutua...

1791'ke Abenduaren 5'an, -ekaitz ta elurrezke gaba!- jaulki zuan azken arnasa, bere emazte ta lagun banaka batzuk inguruan. Bere gerputza beartsuenen artean eortzi zuten, goiz zakar, illun batean. Eta gerokoan gorputz ura aldatu nai izan zuteneke, etzekiten nun arkitzen zanik...

Kera nortasunaren agiri omen da. Mozart'en musikak gizona dentsua erakusten digu. Wolfgang'en eresertiaren ixpilla garbian bere iduri islatua dagerkigu. Ortzargi ta atsegiña, xotil eta piñ, xale eta berondate oneke bear zizun izan Mozart.

Ikusi dezunez musika meta guzietakea sortu zuan batzutan itun, saken, bestetan alai, arintsu. Ezberdintasun ori zenbaitek nork eta norake eskatzeari dazarkiete. Ez gera irizkide. Bere lanen azterketa arin bat egiñaz, Mozart'en

musikak bere bizitzarekin zer-ikusit aundirik duala dakusgu. Onela "Entführung aus dem Serail" bere ezkontzaren ikur bat degu.; "Les Nozze di Figaro" n bere Europa ko ereslari onen entzat zutelako poz ta atseginarekin errañua dakusgu. Don Giovanni'n bere aitaren eriotzagatik saminduta azaltzen zaigu. "Cosi" bere beartasunaren irudia zaigu. "Die Zauberflöte" operak, azkenez, Wolfgang'k bizitza ontan ezer itxare etzula adierazten digu. Bere eliz-musika, Wolfgang'en fede gartsuaren agiri bat degu. Eta sinfoni-musikaren areago azalzen zaizkigu bere bizitzaren goraberak.

Askorik asko idazti da Mozart'en musikaren tanke-raz, eta ez datoz batean irizleak. Batzuk klasiko-eran erromantiku bat dala diete, zenbaitek -bere sonata ta sinfoni batzuk aztertutik noski- bere musika XVIII'go mendeko gizartearen azalpen dala: ariña, azal-azalekoa. Sopenak zera esango digu: "La música más humana" Mozart'en omenez "Música" aldizkarian argitaratu artikulo batean. Schuman'ek Mozart'en musikaren gura "kaxkarra antzaldatzen dakian jentilearen mirari da". Fernandez Cid musikologu ospetsuak Mozart'en musikaren kuxelua "neurritasunean" ezarriko du.

Dakiguna, Mozart'ek musika-alorrean garrantzi aundiko lana egin zuala da. Artikuluan zear aipatu ditugun beste ereslarien eragipen da ixuriak arrigarero lotu zitun bere musikaren, adibidez, Bach eta alemanitarren sakona ta sendotasuna, italitarren zailutasun eta bizkortasuna, prantzitarren zeaztasun eta garbitasuna. Sinfoni egin zan aurrerapen bikaña egin zien Haind'ek asitako lanari. Berak jarri zitun Alemaniko operaren oinarri sendoak.

Bere lanak, 36'urterako eldu ez arren, ta ainbeste ibilli zan gizonarenak izanik, 600'tik gora ditugu. Sinfoniak 50, Mezak 20, sonatak 41, pianorako konzertuak 27. Naiz samin naiz pezalditan, bere musika sari atsegin ta ezitsu izango zaizu.

Iturria tar Joxe

Arantzazu'ke teologilari

JUANES EDO BAI KURUTZERAINO

Ikusgai hunek baditu 5 zathi. Hemen ez dugu emaiten irugarrena baizik. Nahi izan dut erakutsi nola eskualdun gazte suhar bat Jainkoak beretu duen ..zombat kalapitarren ondotik, eta zombat zalaparta. Juanes jite bortitzeko mutikoa da, bere jaidura erakituetan errebelatua bainan Jainkoak kitzikatzen duena, barne gaitzeko mutikoa baita.

.....

N.B.- Jesus eta Juanes mintzo dizelarik, seinua edo eresiak, batzuetan charamelan, bertzetan burrunban, hitz-aldien arabekoak.

JUANES
edo
BAI...KURUTZERAINO.

(Juanes sartzen da elizan eta erdi ahapez, ur benedikatu untziari kontra...)

Juanes - Jauna, Jauna, ezindua naiz!
Jesus - Juanes! (Jesusen boza ezti ezti eta emeki)
Ju. - Zertaratu nauzu, Jauna, zure eskuetarik erori buztina moker zure erhi maitagarriek orhatua, horra nun zar-piltzen duzun.
Jes. - Juanes!
Ju. - Biñi nud dut, ldx, bertsek bezala, nere homere-

tzi urtheen elde guziaz, zuk eman gorputz eta arimaz... bairnan (bularrak jez) hor senditzen dut zure galdea bertze zer-baitetara. Bizi nahi dut, Jauna, bizi.

Jes. - Juanes! Ni nuk Bizia, Ni biziaren ithurria. Bizia eman deat ez heure jaidura hezgaitz guzietan chahutzeko, bairnan berriz neri, bihotzez eskaintzeko.

Ju. - Bat batean senditzen dut ni baitan, Jauna, mundu guziaren inharresteko indarra, bairnan ere nire barnenean entzuten ditut ehun mintze eta nahikari. Jauna, zer arrabetsa ni baitan!

Jes. - Haurra, jabalzkik nahasmendu heriek guziak. Bada-kik, Juanes, nahasmendua, debruaren lana dela. Debruaren izpiritua: herra, urradura, eldar itsu eta abre ilhunbe eta jaiduren kasaila gabarrabotsak; Jaunaren izpiritua: argia, eztitasuna, amodia.

Ju. - Jauna, burua galdua dut, ez dakit geiage norat je; alderdi guzietan pairua dut kausitzen; neure larru hertsu hunen barnean higitzen banais eskuin edo ezker, ez dut neure burua baizik kausitzen; denetan ni, preso, niauren baitan, argirik eta gochorik gabe. Jauna, hori ez dakizu zer den: bere burua nun nahi eta aldi eroz joitea, okaztatze-rañokean... Niauren esklabo naiz, ene jaidura beltzen mutil, ene larrua ene inguruan, murru ezin zilatuzko bat bezala. Jauna, galdua naiz ni baitan.

Jes. - Hobe, Juanes, hobe. Hola ikasiko duk nitarateko bidea, aztaka, itsuaren gisa. Juanes, ikusteko, idek athea, zabalzak athea.

Ju. - Bairnan nun dut athea. Ez dut neure etcheke athea nehoiz ikusi. Ez daut nehok nere etcheke athera bidea erakutsi. Jauna, othei, erakuts zadazu nere etcheke athea.

Jes. - Bai, nik deat erakutsike heure baitarako athea. Nik erakutsike argirateko leihoak... zeren, Juanes, leihoak hetsirik bizi haiz. Ez dakik zer den argia, nitarik jalgi argia, bertzetarik jalgi bozkario argia. Ilhunbetan bizi haiz, eta argiarentzat egin hut, betidanik, ene amentsik ederrenean. Bai, Juanes, ene bihotzaren gainean bozkarioarentzat egin hut.

Ju. - Noizko, noizko izanen da ba bozkariozko bizi hori. Ez dut orai artean karatsa baizik jastatu. Noiz argituko dautazu etchea.

Jes. - Nahi dukanean, Juanes; hire argia, hire bozkarioa ni nuk, ni bakarrik...eta ez hi. Errak, ene Juanes, udaberrian, landa erlatchean, lore urdin choragarria bere chilkotan kurumilkatzen bada iruzkiari hui eginez, zer izanen da haren ezpain chaia burchoragarrietaz eta haren geroko fruitu gochoez? Aldiz ahea chabalik, gocheki badago iruzkiaren irri perekari burrupaz, zer gochoa udaberriko astiri eztian, zer uzta nasaja udako iruzki gordinean, zer zohitze gozoa larrazkeneko hege hats epelean. Juanes, beha zak lore urdin pollitari eta egin gogoetak.

Ju. - Jauna, beraz lore horren pare behar dut iruzkiari zabalik egon?

Jes. - Bai, Juanes, eta gogoan sartu bozkarioa hitarik kanpo dela. Zerua ez duk hi baitan. Aspaldian ohartua haiz hunst auzerria eta odoletan jin izanez geroz. Heure gaitz guzien ithurria, alau ba, Juanes. Zerua hitan kausitzea uste ukau duk. Ez, hire zerua asteak izana dituk.

Ju. - Eoin beste, Jauna, ez dut nehor ezagutzen nardatzen ez nuenik. Bertzetan ez dut bihotzmin eta etsirik baizik atzeman, niauren baitan bezala...Denetan esker gabea!

Jes. - Sinets nezak, Juanes, hire zerua Ni nuk, Ni eta hire mundutar lagunak, denak ene anaiak baitira. Heure burua behar duk ahantzi ene kausitzeko. Heure buruaz behar haiz gabetu, neretzat.

Ju. - Nik gabetzea bairik ez dut gogoan eta zuk gabetzea dautazu argitzen...

Jes. - Juanes, heneretzi urtheko Juanes, ene beldur hiza?

Ju. - Es, es Jauna, hain zira alta bortizki mintze, bainan hain eztiki.

Jes. - Juanes, heneretzi urtheko ene Juanes, hire mundutar lagunak beldur hira?

Ju. - Jauna, badakizu ezetz, zure anaiak direnaz gain eta zure gorputzeko haragia.

Jes. - Juanes, hemeretzi urtheke ene Juanes maitea, neure buruaren beldur biza?

Ju. - Bai Jauna, bai, neure itchurak nu izitzen, izitzen eta asarretzen, ez baitut neure itzala ere ikusten ahal nihauri kontra oldartu gabe. Nihaturen burua dut hastiatzen oroz gainetik.

Jes. - Bai hastiatzen eta itsutuki maitatzen hiauren alderako amodio ekaitz herrek ez baitu zimendu gabeko itzal bat baizik besarkatzen...heure etche zokoan hazten dukan Juanes zahar gizotso bat baizik, gutizia nahasiz apaindua.

Ju. - Bai Jauna, Juanes zahar herren beldur naiz.

Jes. - Ederki, Juanes, ederki.

Ju. - Nihau, nihau ene aunte guzian jainkoa ni...

Jes. - Juanes, nahi duk, eginon diagu lan elorre elgarrekin. Nahi duka bidean lotu enekin.

Ju. - Nolaz ez Jauna...zerbeitak aspaldian zu genat nahi ala ez bezala, eremaiten nu. Aspaldian ni baitan, barna, lur pez, zure aitsur piko esti eta iraunkorra hauteman dut lanean, zure izar dirdira ohumpaila, ezin hila izan dut ene herkeil... Jaun ilhunbetan, zure mintzoaren oihartzuna ezin tapatu ahal izan dut, ene jaidura tzarren hisi eta gataskek...Betidanik, orai ikusten dut zure argitarat, neure etchea errebelatua izana gatik, ez bada mintzinka, bederen gibelka zuri buruz egin dut hurrats, zu baltsaira ene barnezko biluruen esteka hesola. Jauna, bai, zuri buruz ilhunpogan, debruaren gatetan, bainan zuk lilluraturik.

Jes. - Juanes, nahi duka Neri segitu; hire hurratsak ene hurratsetan, biak elgarrekin.

Ju. - Bai, Jauna, huna nizan guzia, ene bi besoak ilhunpe indarren herrekatzeko, ene bi zangoak, mundu guzian, zure dezuaren hedatzeko. Euren oso osoa, zure ahurrean. Nere hurryatsak zure hurzotsetan, biak elgarrekin.

Jes. - Juanes, nahi duka zinet neri segitu, nahi duka zi-

nez hire bizia ene bizian galdu, hire izaitze guzia ene izaitzera ichuri, batasun osoenean, gure lau begiak hel-buru berari ere, gure lau besoak golde beraren gidarretan finki lotuak, gure lau urratsak ilao berean landuak, ene aitaren, gu bien aitaren alhorrean.

Ju. - Bai Jauna, nahi dut, gogotik, zurekin nolaz ez?

Jes. - Juanes, nahi duka zinez eta betikotz neri segitu, bururaino. Buruan badaukik zer den, badaukik nola itzatu nuten kurutzean. Kurutzeko odolean hut heure aztaparretarik kendu, kurutzeko odolaz mundu guziaren lohia estali, kurutzeko odolaz bekatu bilakatu gizonak, Jainko seme egin. Ene iruzkian, kurutze egurrari kontra duk hire arima lilituko, odolaren koloreaz.

Ju. - Jauna, hitz honek izigarriak dira; nork lezazke onhar.

Jes. - Ez izi Juanes, hirekin izanen nuk, hitzeman deat. Ni aintzinean, hi ene ondotik, biak elgarrekin, hire hurratsak ene hurratsetan; elgarrekin lan ederra eginen diagu, Juanes ene anaia, lan ederra. Elgarrekin eskainiko diagu gure lau besoan puntan bekatu eta nigarrezko mundu derpe hau, elgarrekin lantuko gure aitak eni eman uzta landa, elgarrekin joanen gitur athez athe hi iduri muthiko bihotz lerdan eta eskainkorren bila. Enekin, Juanes, nahi duka mundua salbatu...nik bezala heure bizia eskainiz?

Ju. - Oro, oro Jauna zuretzat...bainan hiltzea, hiltzea...nirik nahi dut bizi, ametsi urthetan, nahi dut bizi.

Jes. - Egia, bizi behar duk. Ez deat hire odoleko bizia galdegiten, bainan hi baitan hein arthoski hazten dukan bekatuzko bizi hori. Bizi enganakor hori hilik behar duk ni baitan sortu, bigarren aldikotz sortu, gero ni baitan hil eta hitz deat, egiazki, orduan ni baitan piztuko hizala heure gogo laburrak asmatzen ahal ez duen argi eta gozo batean. Heure buruari hilez, haiz ni baitan biziko...eta heure burua, egiazko Juanes, betidanik ene amodioaz amestu dutan Juanes hura, ni baitan duk kausituko.

Ju. - Jauna, ene Jauna, harritua nago...galda dezadazu

zuretzat bizitzea, zuretzat izaita michionest mundu zoko batean edo zu gegoan eta bihotzean, lur guzia punpez punpe kurritzea; hori gogotik Jauna zuretzat. Bizi nahi out bizi, nere zainetako odolaren bizi nasiaz...othoi ez hiltzerik aipa.

Jes. - Juanes, oachtean ideki athea berriz hetsi duk. Heure ilhunpeak maiteago dituk, ene argia baino. Garbiki, noiz arte duk, gu bier artean, athe hori gaketuko. Maite banuk, Juanes. athera hadi kanpora, argira.

Ju. - Huna, Jauna, huna, zure argian ez dut geiago zu baizik hautatzen ahal, neure gauean nihau baizik hautatzen ahal ez nuen bezala. Atchik nezazu ene etchetik kanpo, zure iruzkian, zure begiez beha dezatan, zure begietaz ikusiz baizik ez baitu nehork ez deusek bere egiatzko begitartea.

Jes. - Ederki, Juanes...orai emazkik oinetan oski ferratuak, gerrian larruzko gerrikoa, buruan bonet beltz zabala eta bizkarrean ene kurutzea. Maika Juanes!! Enekin, biek elgarrekin salbatuko diagu mundua. Lotsa hiza?

Ju. - Bai, Jauna, lotsa naiz...zangoan min dut, zangoak piztuak ditut. Eta behazu, Jauna, bideko harri zorrotzak, bide bazterreke suge murrizak, udako sapa dorpea, neguko ipar haize eta elurteak. Jauna lotsa naiz, ez dezaket, ai, amor emaiten dut. Barka, barka.

Jes. - Juanes, Juanes! bakarrik utziko nuk beraz, bakar bakarrik ene kurutze pizuaren karreatzeko. Alo Juanes!

Ju. - Nahi duzuna, bainan hori ez; zure kurutzea pizuegi da ene sorbaldentzat. Badakizu, Jauna, chume egin nuzu. Bezkaria dautazu hitzeman eta orai joan behar dutala, neure buruari uko egin behar dutala. Barka...ez dezaket, ez dezaket...

Jes. - Bizirik ederrena deat eskaintzen, bizirik nasaie-na. Enekin zeren faltan izanen naiz, nitarik kanpo deus ez denaz gain. Juanes bahaki zer deatan eskaintzen eta zeri hizan hoin itsutuki lotzen.

Ju. - Jauna, bainan, oro uztea zu segitzeko, nihaturen burua buluztea...Zorri at nahi dut bizi, aian hiri!

Jes. - Juanes, enetzat bizitzea, ederki duk. Enetzat bizitzea ederkiago. Baina enetzat egun guzietan hilez bizitzea, hori ezin ederkiago.

Ju. - Bai, Jauna, enetzat sobera eder...


Jes. - Hori deat galdegiten, Juanes, enetzat egun guzietan hilez bizitzea.

(Biak apur bat ichilik)

(Juanes, ezindua, besoaz begitartea gordez, aheratsen da elizatik).

Etchehandy Marcel

Belokeke beneditanoa



To TA No

Irazañ zitun Iaungoikeak
Serkari guztiak,
Eta Berekike izaketan
Esan zun:
"Kreatura bat
Egin dezagun
Irazañ guztien
Errege ta huru.
Geek, Irutasun Santu,
Gatzazkiela eredu".

Eta lur piska bat arturik,
Maite-begiekin
Begiratuñ,
Arnasa egin zien.
Bereala, bizia bailerion,
Gizonaren gerputza
Zedukan
Osoturik
Bere eskutan.

Orduntxe agertu zan
Lehen-aldiz
Gizaldien gizalditan
Irriparra lore
Gizonaren ezpain-begitan .

Maitasunezke irripar,
Munduan izan danik,
Irripar garbien,
Ezpain-begi aiek

Ezpaitzekiten

Oraindik

Oben

Egiten.

Bakarrik zegon, ordea,

Gizena munduan

Eta Iaungeikoak

Orduan

Pentsa zun bere baithan:

"Etzaie ongi gizonari

Bakarrikan

Izan.

Egin dezaiogun

Kideke beste bat,

Lagun dezaien

Biziko bideak

Zear".

Ta gizonari

Le-araziz,

Saiets bat kendu

Ta irazan zun

Sorkari

Guztien

Bigarren

Mirari:

Emakumea,

Munduke baratzen

Lili lorea.

Idegi egin ziran

Arros kimuak bailiran,

Emakumearen

Ezpain-begiak.

Ta ikaraz argiak

-Lotsaz eguzki-

Itzali.

Zoramen
Izan
Emakumearen
Irripar,
Ta Iaungoikea
Peztu egin zan
Bere eskuetako
Lana
Ain eder ta zeragarri
Zana
Ikustean.

Aurrez aurre
Iarri zitun
Gizona ta emakume,
Ta Iaungoikoak ikusi zun,
Pozik ikusi,
Nola besarka ziran
Lenenge aldiz
Gizona ta emakume


"Nere ezurren ezur,
Zera zu,
Ta nere aragiaren aragi.
Nere bietzak bearko zaitu
Bizi atsekabeen
Pezkari,
- esan zien
Gzienak emakumeari.
Gizenaren mende
Izango zera,
Gizonagandik egiña
Baitzera.

Zugatik utziko ditu
Gizenak,
Gurase ta ondasunak,
Ta zurekin letuke da
Aragi lekarritan,
Bien artean

Gerputz bakarra
Egin dezaten
Ta Jainke
Maitasunean
Sememak eman".

Sabin Berasalure

Arantzazu'ko teologilari



ZURE OROIZ

(Alta Donosti...)

Biotz-muiñak negar-miñ, berati,
Kili-kli leunki dagit.
Eresi-marmari xamur, ezti,
Gaur oroipenak dakarzkít.
Ene barnia min-ibaián blai,
Otoitz bi sendo dari,
Barne-ots batek dasaitelarik,
Illoitz dala A. Donosti!!!

Naigabe-gar mingotsak miazten
Gogorki sarritan naute.
Zurmur ixilkor-kixkurrak iarri
Ezbai-zalantzetan didate!
Zu'ri leun-eztiro daskaizudan
Illeta-eresi leuna, mee
Au zuzentzean, muiñetan dot latz-latz
samiñ, mingots, garratz utsune!

Biotza taupaka da ler-zori;
Begiak dute jario,
Dakartelarik oroipenera
Zure min-garratz erio!
Biotz-miñ, gau gibelian nago,
Ixilla xurkatuz leunkiro!
Barnean ixil, ots...ots..., lo, lo, lo...

Barne-muiñetako ai-ots mindu
Abek zuretzat bitez.
Zure soiña ximel do; eten dira
Bai ia, zure gorputz-kate!
Goiruntz tinko begiraz, zerraldo
alboan illotzik zaude.

Zure irudiak goibel-tente,
Xoil dasaigu: zerur'arte!...

Mendia billoitsik ia uda-min
Negar-ztinka da gurekin;
Euskaldunak maite-sutan gori,
Gau beltz dute Euskalerrin!
Beren negar, irrintz, oju, zotin
goiz-egoak nunai berekin
Banatzen ditu, itun itunki,
Txistu-zarata aundikin.

Bekaiñak leunki ditut igurtzi;
Ots... barne-ixillaldia
Muxioka daut urratu, entzunaz
Zure abots-dei ezta.
Ene biotzak bor-bor-bor otoitz
Leun minberati dagitzu;
Zeure ondoan, oroi leunez bildua,
Ordu luzetan duzu! ...

Illobi illunak laixter bere
Erraietan zaitu irentsi.
Zeru goitik xoilki dasaiguzu:
"Jainkoaren naia onetsi;
Barneko ezbai, izu ta bildur
Biotz beteaz ezetsi,
Orain zorun-dirdiz atsedenean
Jauna gurtzen naiz ta ...asi" .

Benetan aspaldian guengandik
urrun, bai, txit urrun zera;
Ia-ia zure ezpain-arrosetan
Ezta irripar mee ura.
Gaur, samin-bitsetan pil-pil, Zu ri
Oroigarrizko Donosti,
Ene biotz minberatiak
Azken AGUR au leun dagi !!!

Muxika tar Luis Maria
Villaro'ko Sakramentinoa.

BAKARKA...

Ama Bakarti,
Gure biotzez egarti,
Miñez zaitut ikusi
Arantzean nik.

Belaun naukazu
Giz' arazoz bestetsu,
Zure gogoz leiatsu...
Zeruz goseti
Ama ezti!

"Besarka nazak
Illunpe ori!
Goxo esaka,
Egon nadin
Arantzaz batki.

Natzakiok ken
Algarari!
Biotz-ler omen
Senti nadin
Ene Amarekin.

Ene biotz aundi:
Beste maitez
Ago ixilik.
Mari duk ik
Gaur, maite labi.

Iduri bizi:
Egizak uts
Ene barnean.
Izan, bakarki
Gaitezen bi,
Ama ta ni."

Gau
Illun!
Bakar
Iñun!
Dut
Mari
Ene lagun!

Nik: "Mintza zaitez lehen.
Zure itz ezteiei
Darien zoramenez,
Senti nadin emen."

Marik: "Zorion!, zuri luzatuki
Eman dut asier.
Asier ta amai
Ala ba litez!

Egarri naiz
Arantzetik
Egin nuen dei.
Ordun ta gaur
Berdin nabil.

Ixur-ixuri
Malkotan bil!
Baña ... zer nereei?
... utskeri bailitz
Obenpe dabiz
Igeri.

Egun dut Nik
Barnean miñ
Iñoiz ez bezain aundi!
Berriz biotza dit
Arantzak ideki.

Miñez baño pozik
Dut biotza iturri.
Maitasuna ixuriz
Biotz garbigarri dedin ...
... baña negarra darit!

Ez dut iñor eskari,
Aitzitik, bai, gaitzeslari.
Jauna, entzun akit:
Bizitz ok
Nolatan irabazi?".

Nik: " Ama, onatx ni
Askets-eskari:
Pekatari, baña
Damuz beterik.
Ni ta guzinongan
Ixur ur garden ori!

Arantzez josirik
Gaude etsi-etsi.
Arantz-mota askok
Naukate esi,
Espetxerako bainintz.

Ni, diru t'aragi,
Iru alde batetik
Egar-piztugarri.
Zure Jesus bestetik
Ok eragozten neri.


Guda bizia!
Dirua nai t'ezin.
Aragi puska, ta berdin!

Neu gallendu nai,
T' alperrik!

Iru iltzez lurriari
Gauzkatzu josirik.
Oso zait gaitz
Aske izatea beti.
Ama lagun neri!

Obendun naiz,
Eriotza dut ondo irabazi.
Eriotz ta su izango ote
Niretzat beti?
Ama, erruki,
Lagun neri.

Bereziartua tar Iñaki
Prantziskotarra.



SASKI-NASKI

Objeto ta kirun

Filosofiaren ontza iñoiz ikusi baduzu aspertuta zaudeke "o b j e t o" itza dala-ta ez dala. Orrekin gora ta bera nebillen batean zera kaskoratu zitzaidan: Euskaldun erriak ere izango zuan, ba, zerbait idea ori adierazteko?

Eta adierazpide orren billa jarri nintzan. Lenengo, ordea "o b j e t o" itzaren ikurkizuna jakin bear; eta esanai ori zeaztu ta ertsitzeko adibide artu nituan, "o b j e t o" itza berekin zeukatenak:

"Jainkoa izaki o b j e t i b o reala da"; "Margoak O b j e t i b o k i baote-diranezko arazoa"; "Jainkoa ez da ikusmenaren o b j e t o"; "Daltonisten ikusmenarentzat ez dira ikus-o b j e t o margo gorria eta berdea"; eta azkenik Kant'en txit ezagun ura: "Noumenon est objectum in se, non est autem objectum cognitionis", euskeratuta: "noumenona o b j e t o da bere baitan, baña ez da ezagumenaren o b j e t o".

Argi ta garbi ikusten da emen bi esanai dauzkana "o b j e t o" itz batherdin orrek. Lenengoan, adimenaz landa ba-dala esan nai du; eta bigarreanean ezin atzi dezakeala gauza ori ezagumenak. Auek ola izaki bi esanai auetan zertu ditezke "o b j e t o" itzaren esanai guztiak:

- 1) "adimenaz-landa", edo "extramental" izatea;
- 2) "men, indar, edo jardunen baten jomuga" izatea.

Ondorio auek ikusi eta herriz galdetu nion nere buruari: eta nola adierazten ditu gure erriko euskerak idea oiek?

Egia esan, euskaldunei etzaie sekula bururatu gauzak nun dauden jakitea: ots, gure adimenean ala adimenaz landa. Orregatik ez da arritzeko idea onen adierazpiderik ez eukitzea. Baña askotan erabilli oi dute beste idea ori. Adibidez: "ikusmenak ikusten duan gauzari ikuski z u n, i k u s k a i esaten zaio; eta egin edo landu bear dan gauzari e g i n k i z u n, l a n g a i", etab ...

Idea au erriak esaten baldin badu zertan ibilli "o b j e t o" itz bat-berdiñaz bi gauza desberdin esaten? Zergatik ez esan erritar idea ori erriko bereko izkeraz, ots, euskeraz; eta beste filosofi-idea ori adierazteko erderazkoa utzi?

Euskerak "-k i z u n", "- g a i"...eta beste onelako atzizki adierazten du "o b j e t o" idea ori. Eni "-k i z u n" eritzi zait egokien; eta "m e n", eta "t a s u n" atzizki izatetik itz izateratu diran bezelaxe itz biurtu ditekela uste dut "kizun" atzizkia ere. Au ez da sartzen, ez mordollozaleen eta ez garbiegizaleen sailetan, g a r b i a g o zaleenean baizik. Gauzak berezi eta zein bere izenaz deitzea ez baida keridun,edo makurkeri.

Au dala-ta ederki egin ditekela uste dut bereziketa ori "o b j e t o" itzaren bi esanaien artean. Erriak baderabillena "k i z u n"-nentzat utzi, eta bestea "o b j e t o" itzez esan. Idea au ere iñork euskera jatorrez jantzi nai baleza, herriz, ...; ortan nik ez dut epaituko.

Adibidez onela esan genezake orain Kant'en esakunura: "noumenona ba-da o b j e t o, baña k i z u n ez"; ots, ba-dala bere-baitan, baña ez da ezagukizun.

Mendizabal dar Fernando

Arantzazu ko teologilari (o f.m.)

Euskaldunberri

- Mezedez, baña...enazazue itz orrez izendatu. Miñ damaida benetan! Iguñ-antza edo alako zerbait somatzen diot eta ezin dut irentsi! Euskera ikasten jo-ta-ke, ta "Euskaldunberri" izen ori entzuteak eztaikit ser ernetzen didan!

Napar "Euskaldun-berri" bat zan onela mintzatzen zitzeiguna Euskal-Batzarreko egun aietan. Mutil gazte jator ta gartsu benetan bere barne-miñ ura onen saminki lertu ziguna.

Etzitzaion arrazoi piska bat palta. Napar onek bezela euskera ikasten ain kementsuki diardutenek begirune aundiena sortu bear liguteke. Euskera amaren sabeletik dakigunok artuko ote izan genuan auk bezin gartsu euskera arlo au? Post ajola lemaiguke guri geienei bezelaxe! Ta zergatik gure begirune ta arnasa merezi duten oei miñ garratza damaien izen batez berezitu?

Ontarakoxe idaxten dut emen yazo au. Ezin al genezake, izan ere, "euskaldunberri" itz onen esanaia beste era batera adieraztera eman? Gizalegezko derizkiot.

Berak esandakoa gogoan jasotzen genula adierazi genion berealaxe, eta "Yakin" aldizkarian jakinaraziko genula. Onek agertu egin zigun -naparra izan!- baño beste askok barruan ixil josirik jasango dute izen onek sortzen dien miña! Jaso dezagun, bada, gogoan euskaldun oso ta garbi izan nai duten oen oarkizun au!

Iñaki Bastarrika o.i.m.

Euskerarko

"Aita-Gurea" dala-ta...

Guztiek dakite sekulako erderakada batez asten duguna otoitzik ederrena: "Aita-gurea" ... Gure elkar-izketan ez dugu iñoz orrelako joskerarik erabiltzen. Ez dugu esaten: "aita gurea etorri da, seme zureak egin du, etab...; gure aita, zure semea, etab..., baizik.

Gauzen aurrera otoitzean, eta arako "...barka izkiguzu gure zorrak guk ere gure zordunei barkatzen diegun bezela" artan gelditu gaitzen. Tarteko gramatika-akets koskor guztiak alde batera utzi, eta ezarri dezagun gure somena (atensioa) "DIEGUN" adizki ortan, azpiagotik, ots, adierazpen edo exejesi aldetik begiratzeko.

Latiñez eta gerkeraz ikurtzen duana esaten al du izatez-eta-berez gure euskerako orrek? "...Sicut et nos dimittimus debitoribus nostris"... Au euskeraz jarri ezkeno aurre baño ez litzake: "gure zordunei guk barkatu bezela". Aditz oiek "nori"-a bakarrik ematen digute eta ez "zer"-a. Ots, "norbaiti" barkatzen zaiola esaten digute, eta norbait ori asko dirala; baño ez, zer eta zenbat barkatzen zaion. Ori textoingurutik (contexto) atera bear da.

Euskal-aditzak, berriz, bere justutasunaren justuaz, ezin dezake kizuna adierazi gabe utzi; naiz zuzenkakoa (directo) naiz zearkakoa izan kizun ori. Ori bakarrik ez gañera, kizunaren zenbatusunak ere ba-du bere ordezkaria aditzaren osatzalleetan.

Orain, bada, "Aita gure" -ko otoitz ortan "...gure zordunei barkatzen diegun bezela" daukagu. Zer da ori? Zer egiten diegu guk ere zordunei? :

- 1) Barkatu utsa?, ala zerbait barkatu? Eta "zerbait"ori zenbat da,
- 2) gauza bat?, ala
- 3) gauza asko? Besterik ez dagola uste dut.

Ona, ba, nola bear luken izan gure "Aitagure" -ak...

- 1) lenengoa izatekotan: "... barka izkiguzu gure zorrak guk ere gure zordunei barkatu egiten diegun bezela" ...
- 2) bigarrena izatekotan: "...barka izkiguzu guk ere gure zordunei barkatzen diegun bezela" ...
- 3) irugarrena izatekotan: "...barka izkiguzu...guk ere gure zordunei barkatzen dizkiegun bezela" ...

Dagigun orain adierazpen edo exejesi piska bat.

Textoak onela dio: "...sicut et nos dimittimus debitoribus nostris" ... Textotinguruan "sicut... et" ("ere...bezela") agertzen dira, eta oiek erkaera edo konparazio bat adierazten dute. Bi atal daude or "sicut...et" oiegaz lotuta. Bata: "dimitte nobis debita nostra"...("barka izkiguzu gure zorrak"); eta bigarrena: "sicut et nos dimittimus debitoribus nostris"... ("guk ere gure zordunei barkatu bezela"). Bigarren orri ixilbidez daukana esanbidez jarri ezkerre onela osatu genezake: "guk ere gure zordunei beren zorrak barkatu bezela".

Lenengo ustekoa izatekotan, berriz, "debita nostra" ori geiegitan dago. Barkatu utsa egitekotan ez baidago oien esan bearrik. Bigarren adierazkera ere ezingarri dago, berdindu egiten baidira "debita nostra" (gure zorrak) eta guk gure zordunei barkatutakoak. Orregatik, guri barkatutakoak zor asko diran bezelaxe, guk barkatutakoak ere berbat dira asko. Euskerak, ordezkari berezia ipintzen die kizun bakarreko aditzei eta askodunei. Gauza bat barkatzen dugunean "diegu" esaten da. Gauza asko barkatzen diranean, berriz, "diegu" ez baña "dizkiegu". Au ola izaki euskeratu dezagun bear bezela "Aitagurea" eta esan: "Gure Aita zeruetan zaudena, bedein-katua izan bedi zure izena, egin bedi zure borondatea zeruan bezela lurrean ere". "Emaiguz gaur gure eguneroko ogia, barka izkiguzu gure zorrak guk ERE GURE ZORDUNEI BARKATZEN DIZKIEGUN BEZELA, ta ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen; bai-ziken dorde gaitzazu saitzetik. Amen".

Lenago "nola zeruan ala lurrean" esan oi zan, eta geroztik "zeruan bezela lurrean ere" esaten dugu. Zergatik ez egin beste orrenbeste "Gure Aita" ... eta "barkatzen dizkiegun" -ekin ere? Guri asko barkatzea nai badugu, barka dezagun guk ere asko.

Fernando Mendizabal o.f.m.

.....

Batasun — ispicak

Euskeraren batasun billa gabiltza geienok. Muiñeko deitu genezaken batasun ori oiñarritzat euskalki bat artuz jaritxi nai dute. Eztago gaiski. Izan ere ori dugu bearrezkoen. Orrezaz gañera ba-da guziok dazagugun beste izkirakin-de auzi bat ere. Azkenaldi auetan euskal-idazleak ontan asko batu dirana ezin uka dezakegu.

Batu diran oem artean ostera ba-dira oraindik berezitasun koikor batzuk, izkirakindeari dagozkionak alegia. Gaurkoz bizpairuri buruz esan nai nuke zeozer.

I) Berezkatz (apóstrofo) eta itziriri (guión) buruz. Euskeraz idazten ari geranean, izen berekiak (propios) sarritan ezartzen zaizkien atzizkiekin naastu ezтитеzen marra batzuen bidez bereiztu oi ditugu. Ta emen dager batasun-ez ori. Batzuk berezkatzaz jartzen dute, adibidez Donosti'ko; beste batzuk berriz itziria: Donosti-ko.

Zer ote litzake obe? Nik itzirira joko nuke bereizketa oiek egiteko. Ona zergatik: ezagutzen ditudan beste izkera guzitan berezkatzaz bereziketarako ez-baña, dagon une artan, izki bat galdu dala adierazteko erabiltzen da. Zer dala-ta ez euskeraz ere, izki baten erortzea adierazteko bakkarik alegia?

Eta onela jartzen astea elitzake arau berri bat sartzea izango, batzuk ba-darabilten zuzenago ori onartzea baiño. Donosti-ko idazti bearrean, Donosti-ko jarri.

II) Adizki baiurrigin (condicional) eta baibidezkoen (afirmativo) arteko idazkera- bereizketari buruz, ots, bada-tor =si viene, ta ba-dator=ya viene adizki bion artekoari buruz.

Adizki baiurrigina onela izkiriatzten dute zenbait-tek: ba-dator; baibidezkoa berriz, ba-dator geienak. Emen aspaldiko esakera zuur ura gogoratuko nuke nik: "Non sunt multiplicanda entia sine necessitate", "geiegikeriak alde batera utzi bear dirala, alegia".

Bi adizki auek bata bestetik bereizteko ez al dugu aski marra bietan jarri ordez bakarrean jartzea? Matematike-tan ere orrelaxe egiten da: asieran + danean, estago zertan jarri bearrik; besterik gabe + dala adierazten da.

Alaber egin genezake adizki biok idaztean ere: "si viene"esateko, badator idatzi, ba ori atono bezela estu-estu itsasten baitzaio aditzari; ta "ya viene" ortarako, ba-dator jarri. Ta orra bereiketa garbi eginda marra bakarraren bidez.

Gauza koxkorrak? Kaxkarkeriak? Norberak iritzi. Baiña ontan ere batu ezkerro, batasun oso ta adimen bidezkoetik urbillago.

A. Z. o.f.m.

"BIDE IZKUTUĀ"

(El camino de las
llamas)

Sarritan "izkutuan" edo ixil-mixilka lan egin bear izaten dugu, bearrez, elea gaizkatuko bada. Gure lagun auk onelaxe joka digute, ixillean, apaltasunean, beren ikasketak eskeintzen zizkien tartetarik etenigarri atereaz.

Eleberri edo novela au itzulpena dugu, euskaltzain diak gertutako txapelketarako antolatua, noski. Iritzia eman orde, berri ematea egokiagotzat jo dut, eleberrigillea nor danik jakinda ezpaitu zertarakorik nere epai apala emateak. Nobelagillea Hugo West duzute, idazle ospetsuenetakea eleberri saillean: itzal aundiko idazlea bere eleberriak inglese- ra, prantzera, alemanera eta beste zenbait izkuntzetara itzuliak dauzkagunez.

Hugo West euskaldun dugu zorionez; "Bide izkutua" itzulpenak dakarren itzaurretik jaso dizut bere eskutitz-zati au: "No puedo V.R. imaginarse la satisfacción que esta noticia, realmente extraordinaria, me ha producido...." Bigarrengo eskutitzetik beste au: "Vuelvo a decirle que pocas cosas en mi carrera de escritor me han halagado tanto como la traducción al vasco de una novela mía, por lo mucho que quiero yo a ese gran pueblo del cual desciendo por parte de madre (Zubiria) y lo que ufano el poder contribuir a la mayor difusión de su rico idioma."

Eleberri euskeratua idazle ospetsu onena izanik, bikaña, ulerterreza, bai gai bai euskeraz, eramankorra, bizia dugu. Eleberri onen erderazko idazpurua "El Camino de las llamas" duzu.

Ezagunak zaizkizute oso eleberri onen itzulpen- gilleak; Sabin Berasaluze batez ere. Beronen kutsua derama baitipat eleberri onek: idaskera bizia, airosoa, errexa, atsegia. Naiz-ta iru izan itzuli dutenak. Beste bi lankideak: Iturria'tar Joxe bat: Aita Karmeloren anaia. Biak euskal- idazle iaicak; ta Imanol Unzurrunzaga bestea, "Itzaropena" irarkolax seme. Luma ioria darabil onek ere. Zorionak!

KRISTIÑAU KATEZISMOA

Itzaropena Argitaldari

Zarautz, 1956.

Pozik iaso dut eta irakurri "Kristiñau Katezismo" ateraberri ori.

Egia esan, oso átsegiñ izan zait, bai bere "mentalidada" ta baita ere, bere euskeraren uler-errega.

Aiat Villasante-k itzaurrean diogunez, eta neronek ikusi dutanez, Alemanin atera dan "Katholischer Katezismus der Bistümer Deutschlands (Verlag Herder Freiburg, 1955)", zati bat besterik ezta.

Oraintxe bertan gazteleraz argitaratu dute: "Catecismo Católico" Herder Barcelona, 1957. Gaztelerazkoa aztertu bearra izan det doixtar gutxi baitakit, baña ori ere ari naiz ikasten, eta lortuko.

Liburu ederra, liburu bikaña, eta batez ere liburu "sakona, ta liburu egokia".

Aita Berriatuak demaigun "Kristiñau Katezismoa" k, galdera ta erantzunak besterik eztakarzki, doixtar-izkuntzatik euskeratuak. Laister, uste dut -ba-dakit laister izango dela- liburu osoa miazkatuko dugu Aitorren izkuntzan. Beste aunitz izkuntza aurreratu zaizkigu lan ontan ere. Aita Imanolek ordea, aurre artu nai izan dio gaztelerari, baiña tamalez, arlo ttipi orretan soilki lortu.

Ederki begiz io dula, esango nuke; liburu orrek mundu katolikoan izan dun arrera on eta zabalkundea nolankoa ezpaita izan.

Nolanaiko liburua izan ezalako izan ere! Ez izan, ain zuzen, izerdi tanto baten frutu kaxkar, eta egun bateko lanaren seme ergal ere. Urteak iruntsi dituzte Alemanin "katezismo" au antolatzen, eta izugarritzko lan eta azterketak ondoren, argitara eman dute doixtar-katolikoak.

Parroku jaun guztiak konsultatu zituzten, aien errietan kristiñau doktriñakin zer gertatzen zan, adierazi zezaten, batzar zuzendari bati. Ta gaia ondo sakondu, aprobak egin, enkuetak, azterketak, ondorengoak ikusi ta aunitz lan ondoren, argitara eman dute. Ta lan guzti auk gaur eguneko Pedagogiak demaizkigun bideetatik zear. Ta nire iritziz, "azkenengo berrogei urte auetan Pedagogiak aurrerapen ez-makalak egin ditu, Pedagogia Psikologiaren arlo besterik ez izan; eta denok dakigu noraiño aldatua den iakintza ori. Ta denok dakigu gai orretan nortzuk izan doixtarrek azken urte auetan! Lan sakon baten bidez agiri arazi dezaket afirmazio au. Inork siñesten ez baldin ba du, eska bekit eta antolatuko dut.

.....

Puntu egin dut, garbi itzegin nai baitut azpikeriz ari naizala azaldu ez dedin.

Irakurri ditut -begi aurrean momentu auetan- azkenengo "Egan" (5-6 Septiembre-Diciembre 1956. 151-154 of) M. Lekuonak gai oni buruz dakarzkin itzak.

Badaki Lekuonak "Kristiñau Katezismu" berri au ez dala Gotzai-aginduz errietan sartzeko egiña. Egia, eztet us-te oraingoz beintzat ala denik, Zaudete lasai, Jaungoikoafen! Aita Berriatuak ezto olakorik egin-da. "Jaungoikoafen! ez gaitzela sar beste "berritze" gelagotan", dio (152 of.) Lekuona jaun agurgarriak. Esanera onek, aurreneko lerrotan ditu bere sustraiak, eta nire iritziz onetxek utsegiten dute.

Ongi esana dago Pedagogiaren lenengo oiñarria dela textoak txitean-pitean aldatzen ez ibiltzea. Ta batez ere -Lekuona agurgarriak jarraitzen du- katezismo gaiean da oiñarri bear-bearrezkoa "aldatzen ez ibiltze ori" (152 of.), Katezismoa jakintza personala ez dela-ta, gizarte kutsu aundia baitu. Legeak-eta izan oi duten izaera gizartetarra du

Katezismoak. "Formula sakratu" bat bezela omen da. Ta olako "formulakin" ezin giñezkela ibilli "katua bere umeakir" bezela. Legeak eta Konstituzioak ... eta Katezismoa ere bai, beñ egin bear omen dira". (Ikus. 152 of. txintxo-txintxo iaso ditudan idea esk).

Ta nik -"iñori etzaio kritikarako eskubidea kentzen; Mitrelenak, 161 of. dion bezela- nik beste era hatako dut iritzia gai ontan, eta gizonkiro eta errespetuz azalduko diot Lekuona jaun agurgarriari.

Pedagogiak aurrerapenak egin ditula azken urte au-etan ezin dzakegu ukatu. Aurrerapenak eta aldakuntzak iñois izan ba dituzte Psikologi eta Pedagogiak -au bestearen alaba izan- gaurko egunetan. Eta zer esan Lege eta Konstituzioei buruz? Lege Naturala kendu, ta Eleizaren Konstituzio Jerarkikoa, eta beste lege ta konstituzio guziak, aldatuak, moldatuak, eraberrituak, suprimituak, berriz-emanak eta argitaratuak izan dira ... zirkunstantziak zegoakenez. Historia lekuko. Ala izan dela eta ala izan bear dula, ezin ukatu. Ez al ditu Eleiza berberak lege zaar beneragarri aunitz aldatu ta moldatu? Aste Santu Arau berriei begira. Ta nor kopura zenbat konstituzio berri izan ditun Eleiz Ama Santak? Ez al zuan Pio XII garrenak Aita Santu gertatu ondoren Konstituzio berri batez Aita Santuaren aukerakuntza erabat aldatu?

Lege asko ber-berdiñak gertatu dirala bere materi edo mamian? Bedi. Denok dakigu orrezaz aunitz izan dirala aldatuak, eta aunitz azal berri batean azalduak.

Konporme gaude textoak ezdirala txitean-pitean aldatu bear, berriak aiña ^{ren} garanti ematen baldin badigute beintzat. Baiña ortarako zaara garanti ta egokitasuna agerrarazi bear da, ta ez "beldurrez" soilki (151 of.) ta esan utsarekin gertatu.

Nik eztut onekin esan nai Katezismu berri ori, gure lengoa baño egokiago danik. Ez orratio! Denok konporme gera Gotzaiaren esku dela ori. Ta Gotzaiak gure katezismo kutuna (len esne edoski iturri goxo!) beste edozein berri bategatik ez aldatzeak, eztu esan nai izango zaarra berria baño oheagoa danik ere. Ez bada orrenbeste izutu Katezismu berri baten ateraldia, gatik.

Zertan ari dira aspaldi ontan Eleiza Amaren alegiñ asmoak? Gaurko munduaren izanera ta mentalidade berriari ia-nari espirituala bear eran eman naiean, noski. Alegiñak eta bost egiten ditu aldakuntza oni dagokiona lortzearren. Eta alegiñ oien artean dago -garrantziko baita- katezismo kato-likoa. Aal bide guziak iorratzen ditu doktriñaren azia krsis-tau biotzetan erein asmotan. Len eskuz zabalitzen azia, gaur makifiaz zabalitzen da. Len bati esaten zitzaiona, gaur radio ta televisioz askori esaten zaie. Irudi berriak egiten dira begietatik sar dedin doktriña t.a... Itz batean iantzi berri bat eman nai zaio "doktriña zaarrari".

Ta ez al dira aurrerapen, alegin ta asmo oiek Pe-dagogiaren arauetara egin? Orixe palta! Zergatik, bada, kate-zismua bein egin bear dala? Katezismuak batez ere, zirkuns-tantziatara makurtu bear du bere burua, ez "doktriñan" -Jesu-kristok irakatsia betikoa baita- bai ordea, bere iantzian, bere azalean, bere esan eratan.

Arren! Itz auen asmoa ezta Aita Berriatuaren kate-zismu berri ori jartzea lengoaren orde; ez dugu Obispo Jau-nari eskubide au kendu nai.

Baña arritzeko al litzake beste katezismu modernu-ago bat jartzea? Arritzeko ez baña -nork iakin- egokiago li-tzake gure erriaren onerako. Ala gure erria bakarrik al da mundu guztian, aldatzen eztena?

Nik ere ba-dakit, Lekuona jaun agurgarri ta ez-eza-gun baña adiskide, "ezer berritzera ez datorrela guk eskuar-tean daukagun katezismu au" (152 or.). Ba-dakigu baña, ez gagoz konporme katezismo gaiari buruz diozunaz.

.....

Geiago ere esaten du Lekuona jaunak katezismu be-rrri au dela-ta, gai oni buruz, egozentrismo eta Kristozen-trismuari buruz, alegia.

Eskotistar zintzo bezela, Kristozentrismoaren de-fentzaille natzaizu, baña oso egokitsu errespetatzen dut zu-re iritzia.

Ventaja aundiagoak ditula Kristozentrismoak? Nik beintzat baietza defenditzen dut, eta dirudianez doixtarrok ere bai, naiz-ta eskotistar badira nik ez iakin.

Eskutik jun bear dutela diozu (153 or.). Nik, doixtarrokin, Kristozentrismoak aurretik jun bear dula esango nuke, eta "gu" bere argi ispitan atzetik.

Elegoke gaizki Dogma ere "Kristozentrikoki erakustea"? Ez orixe, elegoke gaizki! Baña, obe litzake, nere iritiz "kristozentrikokiago" erakustea. Ez al da Kristo izan, gauden mallan, Kristautajunaren alfa eta omega? Bai ederki manitu Eskotok gai au. Zer esanik ez San Pablaren iturrietan edaten dula.

Ondo esaten zigun Teodizeako profesore arek, ez ditugula Jainko ta Jainkoaren gauzak "antropologiki" neurtu bear. Gaurko teorien aldatz-behera auxe baita.

Ba-dakit "gure katezismuaren" egozentrismo ori legeko dela -nola ez!- ta ez dula gizona Jainkoaren neurri jartzen, bañan ... "alde ori" egokiago al da bestea baño? Nire iritiz ezetza dut senar, baña biotzez errespetatzen dut puntu ontan iritzia.

.....

Galde erantzuneei buruz (153 or) eztet nik ezer esango zuk iartzen diozunari. Olan edo alan bakoitzak, ezezen iruditzen zaionari eldu bezaio, euskeraren arauak gogoan edukiz eta ikasleen buruak kontuan. "Pedagogiaren pedagogi bearrez"? Orixe bai!

.....

Parkatu, Lekuona jaun agurgarri nere ausardia. Iritzi gauzetan tot sententiae quot capita zion antziñako Psikologi Pedagogiaren esanerak. Bere izenean ari naiz.

.....

Laister aterako da oso-osorik "Katezismu Katoliko" ori, ta ordun sakonduko dugu gaia. Dogma aldetik, Eskritura aldetik, Apologetika aldetik, Liturgi aldetik t.a., ta baita ere Pedagogi ta Psikologi aldetik. Izan baititu "alde" eder guzi ok.

Sabin Berasaluze
Arantzazu.

EUSKAL GRAMÁTICA LABUR

Ikusi al duzu Aita Villasante-ren euskal mintzarau-
di edo gramatika berria? "Arantzazu-ko Aztetxeko Irugarren
Kursokoentzat" da. Laburra baña gauza ederra. 60 orrialde
ditu. Eta oso-osoa umeentzat baida eta irugarren maillakoent-
zat bakarrik. Ori dala-ta ezdu aditza eta bestelako gramati-
ka gauz sakonak zeatz-meatz azaltzen.

Ba-zan garaia euskaldunok ere gure mintzoaren
araudia euskeraz euki genezan. Eta Aita Villasante-ren onek
erakusten digu euskera euskeraz. Euskera ederra eta umeentzat
bezelakoa du. Gañera gure idazle asabarren pusketa autatu
batzuk dauzka, euskera jatorrez azi ta ezi dedin ttikitatik
euskal ikaslea. Ederra ba, benetan Aita Villasante-ren lana.

Azalean bertan adierazten duan bezela, bere ikasle-
entzat idatzirik dago eta norberak daki iñork baño obeto bere
etxeko berri, ori dala-ta zerbaitegatik egiña izango du o-
rrela. Baña oztopo txiki bat egin ditekela emen uste dut. A-
legia, Aita Villasante-k erderaz pentastzen ari dan baten-
tzat, edo euskera ulertzeko españera bear duan batentzat
idazten duala dirudi; euskeraz idatziarren españeraz ematen
baidu esanaia. Gramatika gauzak adierazteko españera artzen
du oiñarritzat eta gero nola esaten dan ori euskeraz. Adibi-
dez ikusi zortzigarren orrialdean: "Erderak aurretik izenari
el, la, lo jartzen dion bezela, euskerak ondotik ezartzen dio
a bukaera, artikularen zeregiña betetzeko. Gizon = hombre.
Gizona = el hombre. Eder = hermoso. Ederra = lo hermoso."

Euskera dakitenentzat dan ezkerok ez al litzake o-
beto al ditekena euskeraz adieraztea, eta euskera erderaz
ulertu ez-baña, euskera euskeraz ulertzea? Zera gertatzen
da bestela askotan: beti erderaz pentsatzen-eta oitu, eta
euskera ulertzeko erderaz ulertu bear; eta euskeraz idatzi-
ari erderalpen juxturik arkitzen ez bazaio ez da ulertzen e-
uskera. Españeraz diardugunean euskeraz edo prantzesez edo
bestelako izkeraz pentsatzen eta ulertzen ote dugu? Ala lati-

ña irakurtzean ere ez dugu latinez pentsatzen? ...

Nik ez diot ukatuko Aita Villasante'ri, izkera batek bestea ikasten laguntzeko daukan balioa, baño ori izkera erabat ez-ezagunetan gertatzen da eta ez txikitetik amak erakutsi digun mintzoera ikastekoan.

Beste oar txiki au ere bai. Zergatik ez jarri "artikulu", "konposizio"... Ta ofelako itzen ondoan euskeraz ere ba-daudon itzak. Adibidez: "Artikulu edo mugitza", eta erdo-razkoa baño askoz argiago da-ta "konposizio edo itz-berriketa" etab.... Mintzaraudia ez da teoriketan asteko tokia. Eta naiz ustego bakoitzak itz desberdiñak euki idea bakarra adierazteko batak bezin eskubide dauka besteak gramatikan erakutsia izateko, idazleen artean erabillia baldin bada.

Onelako oar kokkor auk gorabera eso ederra da "euska gramatika llabur" ori. Ikusi zeuk bestela, irakurle.

Zorionak Aita Villasante, eta gaizki esanak barkatu eta ondo esanak ondo artu.

P. M. (o.f.m.)

EGAN

5 - 6, Sep. - Dic., 1956

EUZKO GOGOA

1956'ko Epaila - Jorrailla

ZERUKO ARGIA

1957'ko Ilbeztza

Iru euskal aldizkari pinpirin. Euskal-
mamiz oreturik, berebiziko poz ematen digute eskuratu bakoit-
tzean.

Ez gera emen "iru anai-arreba" oien bereiz-
tasunak azaltzen ariko, ta eztegu ere bata bestearen gañean
iarriko.

Al diteke, gero ?

Baizik esango duzu ongi etorriak direla
beti irurak gure artera, ta benetako euskal-egarriz xurga-
tzen dugula bere iturrietako edaria.

Areago gai iakingarriak dakarzkitelako,
ta euskera eder, elegante ta txairuan ematen dizkigutelako.

Biotzeko "ongi-etorri" i r u r e i;

bejondiola!!!

S. B.

Arantzazu

ELKAR - IZKETA MILLA ESKER!..

Rai,eskerrik asko! Esker bizienak lankide ta epaile guziori! Jator ta kemen joka dezute denok! Emen "kaxotar-teko" atal ontan jardungo ditugu geure gaiak. Ementxe lasaiki diardukegu adiskidetasunean elkar-izketan ...

Zertan doaz gure jomuga ta elburuak. Gure asmo-ametsak baño areago jo dute euskal apaiz ta prailegaien kemenadoreak. Ixillean zetorkion gure euskerari idazle talde bikaña! Erljio-mota guziak bildu gera oraintxe ekiñaldi bakar batean. Asko arritu dira gure batasunaz. Zaitegi Jaunak zigun orain gutxi "Yakin" aldizkaria eskutara zitzaion orduko: "zuek zerate gure eredu; emen gabiltz gu ezertarako batu eziñik". Denak onartu ta goraipatu dute euskal gazteon ausardi ta asmotasuna.

Iritziak saillean eldu zaizkigu! Ezin, damurik, epai danak azaldu,geiegi bait dira. Epaiak baño zoriontasunezko egiriak bidali dizkigute geientsuek. Bestek ibitzepaile zorrotzak izan ditugu,burutsuak oso. Denak epailari baño arnas-emalle. Artzekoen derizkiogunak azalduko ditugu emen. Egin dizkiguten zenbait oarkizuneei urrengo zenbakian erantzungo dizkiegu.

Urrenerako ere auxe nai genduke, adiskidetasun au. Norbera bere iritzia argi azaldu. Zer gaizki,zer ondo, zer ondu bearrean,t.a. ... Neurritz astunegi ote dan, ariñago bear ote luken...


Tamalez,baño berandutxo atera zaigu! Barka! Ezta gure izan errua. Bilbon atera degu ta zinta berezi batzuen zai ta illabetean zai egon bearra izan genuan. Alare atera da-ta

Urrena irarkolaz atera nai genduke. Ontarako 500 arpidedun bear genituzke. Ia irureun osatu ditugu. Zenbat eta arpidedun geiago, ainbat merkego gertatzen da aldizkaria. Arpidedun-biltze ontan Donosti'ko apaizgaiak jokatu dira kementsuenik. (40'tik gora iritxi dizkigute oraindano!) Esker-ronik biziena guziori -Gaztañaga jatorrari bereziki!- ta jarrai ontan, euskeragatik dagiguna ezpaita alperrikako! Zuel bifalitako iritz-auziak izango ditu erantzunak. Au idazten duna aldeko dezue, baño ez beste zenbait. Ia armonirik gabe, jatorkiro jokatuz batasunera bidetik abitzen geran gazteok! Beintzab emen Arantzazu'koak ez gera irizkide. Bakoitza bere bidetik ari da. Eztit ajola aundirik arazo onek, izan ere era batera edo bestera egin'euskeraz idazti ezkerro berdin zait.

Oarkizun bat. Aldizkari au praile ta apaizgai ez diran esku askotara eltzen da. Euskaltzaindikoak, euskaltzale trebeenak jasotzen dute aldizkari au. Ez uste izan guk aldizkari au gauz osotu bat bezela ateratzen degunik. Ez orixe! Gazte gera ta ikasle! Euskaera arloan garai diranetik zer ikasi ugari ba-degu, noski. Prest ta lei bizienaz gaituzue derizkiozuten oarkizun ta bestelakoak idarokitzeko. Gure akats nabarienak-eta jakin nai genituzke.

Ta goazen elkar-izketara. Miazka dezagun astiro auzi-idazki auei darien ezta. Ia urrena ezta ozpiñ pixka-ekin naasten dezuten, gozoegi gerta ez dedin. Irakur, bada, zenbaitek bidali iritzia. Artzekoenak azalduko ditugu.

"Yakin"



L. MITXELENA euskaltzainak :

" ... "Yakin"eko gazteei. Beren asmoa ezin-obeia iruditzen zait: asmoa ez ezik, baita asmo ori mamitzeko ateratzen asi diren aldizkariaren leen zenbakia ere. Nere ustez lan politak dira denak eta batzuren batzu biziro egokiak, bai gaiaren aldetik, bai erabilzterako moduari dagokionez.

Asmoaz zer esan? Diteken onena dala. Gai orietan - eta pozik ikusi dut eztituzutela estu mugatu- orko ta beste-tako teologilariak dituzten kezka eta jakitea euskeraz ematea baiña gauza oberik ezin zitekean egin. Sail ori, urrutixegotik bada ere, gogoko dugu gaiñera eskola piska bat dugun gaiñerako euskaldunok. Zorionak, beraz, biotz-biotzetik, eta eskerrik asko. Guziori mesede andia egingo diguzute... Lanen bat ori bezain egokia eta ederra denean, eztago ori esatea bestrik. Zertarako luzatu?".

ZAITEGI jaunak :

"... "Yakin" irakurria dizut pozaren pozez. Oiek, bai, gazte ederrak! Gai sakonenak eta zailenak euskera zoragarri eman dizkigute. Orrela iarraitzekotan, atzean utziko gaitute gazteol alabearrez. Iaso bezate nire euskal-agurrik gartsuena ta nire zorionik laztanena. Zuen alegin ederrez eta zuen buru-biotz argiz euskera goieneko mailalara iasoko duzue guzian biotz-bategarri. Gaztetan ernerrazten dira gero-rako asmorik bikaiñenak eta erabakirik emankorrenak. Udabefiz loretan dagon zugaitzak igali ederrik ekarriko digu ustaroan eta amets txanbelinez gogoak beterik eta okiturik bizi diran gazte eraginek emango ditu zitu, garerdiko edo garako gizon gertaraztean. Aurrera, ba, baikor eta kementsu! Itsasoan barrena eguzkia sartzen ikusten degunok agur egiten dizuegu biotzez, eguzkia mendi-tontofetatik gora sortzen birloraturik so egiten duzuen gazte aberkide bikaiñ oriei!"...

GOIKOETXIA iosulagunak :

"...Marrazkiak oso politak, egun-egungoak. "Zepenie"(azpeitiarrez esateko) onela ibilli bear au!(Multikopistaz-eta ibilli bear izatea). Bestela, gere kasa, geren eskuz ba'genbiltza, "Yakin" "mutikoa" aterako zenduten plazara.

Nere iritziz (besterena beste)"Yakin"ek obe luke olerkirik edo literatur-idaztirik ez artu; alde batetik, ori filosofi-teologi sallari ez dagokiolako; eta bestetik, eta batez ere, euskeraren onari begiratuta; "EGAN"i eta EUZKO-GOGOIA"ri kalte egin dezaikeelako. Euskereakiko, gure bultzada guztiak zuzenbide bat eta jomaga bat bear dutela deritzait: Eusko Piskundea, alegiña. EGAN eta EUZKO-GOGOIA beren orriak bete eziñik eta beren egunean irten eziñik dabiltzala ematen du, eta ori ez da gaia geiaegizka dutelako izango iñolaz ere; orregatikan, ba, YAKINÉk bere igitaria aien zaillean ez sartzea obe, nere iritziz. Gai oiek g o r a g o t i k, "ERTI" diraden aldetik, filosofiak begiz eta "txirikartetik", dagozkio "YAKIN"i, berriz ere, nere iritziz.. "

A.B. BERRIOTXOAK :

"...Iritzia YAKIN'eri buruz: dibujuak egoki egi-ten yataz. Modernuak eta egokiak...Bibliographilari bezela, oi dan bezelako portadarik eztaukola konturatzen naiz. Ezta konbeni izango bearbada. Estu ipintzen nun argitaratzen dan. Urterik ere ez. Ezpada konbeni, estu inporta: bibliographilari bezela konturatzen naiz gauzatxo onekin. Gaiak, oso ederrak eta batzuk sakonak ere bai, ondo pentsatu eta ondo egiñak. Onela jarraitzen ba-du, laister entzute aundiko aldizkaria izango da YAKIN dudarik gabe. Zenbat-eta Ordena eta Congregaziño geiagoren praile izenak agertu, obe izango da. Balore edo entzutr aundiagoa emango dautso orrela, eta danen artean propaganda geiago egingo genduke..."

A. ZABALA iosulagunak :

"...YAKIN" jaso genduan. Txit gustokoa zaigu. Nit trakurri nuan eta ordabil gelaz-gela emengo euskaldunei atsegin gozoena biotzean sarturikan...Nere iritzian, YAKIN'en lanak, geienak beintzat, oker txiki bat zeukaten izkeraz. Geieigi igertzen zaie euskeraren gramatika ikasi-berriak

daudela, gramatika ta batez ere aditza. Ori da gazteok, danak edo geienak daukagun gaitza. Nere ustean probetxu aundia artuko zuten gure sermolari zarren itzaldiak ta beste gai-
eñerako idatziak irakurriaz. Kontrako gaitza daukate aiek sarritan, zea: gramatika exkasa. Gramatika exkasa ta bizia oparo. Gramatika ta bizitasun ori dirade, ba, izkera baten gorputz ta anima. Orregatik aurrera mundin egingo dute. Bañan dana dala, nere ustez denbora izango da gaitz orren medikurik abillena arkitzen. Urte asko gabe gure erriaren artu emarekin aldatuko du nork bere izkera pixka bat beste legera. Onezkero pentsatuta zaude emengo nere esanak konformetxo daudela nere orko itzaldiaren asmoekin. Alaxe da. Auek esan aurretik pentsatu det guztiz errexa litzaidakela gorralpenak besterik ez esatea, baña nere iritziaren kontrako itzak ez lirake izango joko-garbi ta zuzenaren legeak. Oaitz txiki ta txepel au ez-zik, danak dira txalogarri. Ta oraindiano konfiantza osoarekin mintzatu ba naiz, ez naiz noski orain asi mingañari gezurrezko trabak ipintzen..."

DONOSTIKO apaizgaiak :

"YAKIN'en ALKAR-IZKETA saillerako.

I . ASMOA:-

"Euskerari txertaturiko mentu ernegarria" gerta dedin eran YAKIN moldatzea, oso asmo bikaña. Txalo ta txalo zueri! Garo-usaiz gañera, jakintz-usaia bear du euskerak. Egi-egia. Nola, ordea, lorju?

Jakin-mintzairari buruzko auzia gerorako utziaz, "asmoa"ren alderdia astertu nai genduke ta "asmo" ori bera aberastu. Mentu-berri-txertatzez gañera, ta bidc batez, egin genezaken zerbait adierazi nai genduke. Izan ere YAKIN'en idazleok, Eliz-gizon edo Jainko-gizon gera, naiz-erlijio-etxe-ko ta naiz ez. Ba dugu, beraz, basterrera ezifinezko eginkizuna ere: elistarrerri, erri-xumeari erakutsi. Au onela izaki, aldera bat: ez al genezazke geroko apostolu-langintzarako tresnak zaildu, goxotu, legundu? Itz batean, gertutu? Au teolo-giaz mintzi geranean, baitikbait. Jakiña, ezin askatu erri ez-ikasiari ulertu dezaigukeneraño xamurtzea guzia da beti. Bañan alderdi au gogoan artuz, beti beti izkeraz ere goienik-goien ibiltzea -au beste sailleharako- baño hidezkoago de-

rizkiogu geuron buruak eta "tresnak" erriarekin langintzarako ezin.

Erne begi! : azaldu dezuten bigarren asmoa osotragorria ! Baduzute Arantzazu-alde ortan zeru-kutsurik asko, ta oraingo ontan asmo orri goitiko atsaren eragiñez eldu diozutela uste degu. Arki beza erantzun leial eta eginkor irakurle guziongana.

II. SAILKETA.-

Bikain jokatu zerate. Oso buruz ta guzirako irizpidez. Guzira bisiro egoki.

Oartxo bat:"Antze ta elerti" sailleko zer naiago dezutenik ez dager garbi. Batetik,gai oieri buruzkoak eskatzen bai dituzute,eta urrena "olermen goitiarraren"emaitzak, olerkiak bestetik. Zer naiago? Bata ta bestea berdin?

Utsunetxoa: Beste sailño baten bearra arkitu degu. Euskeraz asmatu ezin-da bijoa erderaz "Ascetica ta mistica" ri ere zor zaiola berea. Gai ontan ezer gutxi daukagu euskeraz ta ba'daukagu ontan -bai geurontzat eta bai erri xumearentzat- lanbide eder eta galanta.

III. Bi "TESIS" eri buruzkoa

1^ogo:"Tesis" -tankerako azalkizuna ikusi bezin aguro alako gogaitgarri zerbait ernetzen dute irakurleagan; gure iritziz,atsegiñago liteke gai bera ere,beste joskera ta tajuz idatzi ezkerro. Erderazko "ensayo" tankerara,bear bada,aixago erneko luke irakur-poza irakurleagan. Gerenez bai gera berri-zale-ta,itxura berri ta apañak errex engañatzen gaitu. Begira gero,tesis-tankera nardatzen ta debekatzen ulertu.

2^ogo: Luze,zabal eta sakonez bapo daude. Esan arteko ikas-liburueri ezer gutxi zor diete bi azalkizun oiek ...

3^ogo: Idazteunetatikako azalketa ta argibideeri buruz,ba'dugu ba esakizun: Itun Berria euskeraz ba'daukagun ezkerro, bertatik daudenez-dauden aldatu bear ditugula ta ez naidunak bere gogora. Zer dala-ta gogorrean beartu? Bijoaz zergati ba-tzuk:

a) Idazteunetako zatirik ttikienak eta itzak berak ere ez ditzake idazle edo biurtzaleak bere gogora erabili.

b) Bidezkoa dirudigu ta zuzenago Oلابideren euskeralpenetik artzea Itun Berriko zatiak, onek berekin baitu Idazteu-nak bear duten Eliz-baimena.

k) Gabiltzan batera Itun Berriako gaietan berenik.

d) Latinez ari geranean "Vulgata"tik itzez-itz artzen ditugu argi-bideak edo beste itzulpen baimendunetatik. Auxe bers gaztelerazkoan ere. Zergatik ez euskeraz?

4'go: Jakintz-mintzairari buruzko iritzia: Jakintitzak, jakintza-itzak, jakintizenak, jakintz-izenak (palabras técnicas) ta jakintz-mintzaira (tecnicismo)...

a) Lenengo "tesis" aren araura ta antzera mintzatzea biziro eřexa litzaiguke: zailtasun apur bat dakarkigutenak beren artan erderaz utzi. Au euskera ote ditekete?

b) Erderaz itz bakarra aski dala-ta, zergatik euskeraz ere itz bakarrez adierazi nai ori? Bi izkuntzetan berdintasun osoaren billa ibiltzeko arrazoirik ez daukagu. Aldiz, erderazko bizpauru bearko ditugu euskerazko bakarrarentzat, eta, jakintzetan baitipait, batez beste maizago. Ta zer?! Bakoitzak berea!? Burua ontara ezia daukagula...? Egia. Ta, gaitz-erdi zuzeneratu al ba'geneza. Auzi onen muiña ez al da (jakintzen ...aditz-joku...itzjoku...Beardana!) Euskeraz ari geranean euskeraz ta erderaz ari geranean erderaz, baña dioguna besteri adieraztea, ulertaraztea?

Adibidez: Zertarako degu "Jainkoa'ren existentza" "Jainkoa ba'dala, bađalazkoa, Jainkoaren izana", dauzkagularik? Itu auek ulergarri zaizkie ez-jakiñeri ere.

k) Itz asko bizpauru esanai ez berdiñen jabe, naiz erderaz naiz euskeraz. Zertan ibilli erderazko bakarra, euskeraz alderdi ta esanai bakoitzerako bere itz jatorra dugularik ere? Adibidez: "Problemata" era askotakoa ditekete. Ba'ditugu euskeraz: "auzi, korapillo, buru-auste, asmakari, asmakizun, nasketa..."

d) Itz joskeraetan, zertan ote gabiltz erderazkoen antze-antzerara? Adibidez: "Mirariaren possibilitatea" = "posibilidad del milagro" ta are berdiñago "miraculi possibilitas". Ez daukagu: "miraria ba'ditekela, ditekena da, ba'ditekete...?"

e) Erderazkoetara jo aurretik, sokomiatu al ditugu dauzkagunak? Adibidez: "kriteria" "arizpide" dagolarik eta berak "ezaupide" dabilkilarik. Bi joaz "podau" = iñausi... ta au ezta jakintzen. "Karitasuna" k... ez du roski, euskerazkorik....?

f) Berriak sortu bear al ditugu euskeraz? Ez legoke gaizki, aldiz berenik au egitea, aukera izan dezagun. Geienik bat, ordea, eztaukagu jardun bearrik, guk uste baño geiago baita-uzkagu euskeraz. Ikasi egin bear ... Ez al genduke obe liburu zarretatik olakoak bildu ta ez nolabaiteko beste zenbait "prozedura", "posible" ta abar? Bidezkoago dirudigu euskal-itx jatorrak bildu ta erabiltzea, liburu zarretan arkitu ditugulakoa beste zergatirik gabe ere, aietatik xuxen-xuxen erderazkacak baño.

Gai ontan (eta bijoakizue noizbait, J.L., buruturen al dugun asmoaren, asmo utsaren berri) lantxo onurakor litzai- guken bat egitea bururatu zaigu: liburu zarretan eta orain- go idazle garaienetan, batez ere, (oiek zupa ta zupa onuzkero xurgatuko bait zuten aien eztigarririk geiena) zerbait berenik uxarkatu jakintzen billa. Batez ere: Olabide aren "Itun Berria"; Orixe' ren "Meza Rezperak"; Aitorkizunak", "Barne- Muiñetan"; Zaitegi' ren "Bidalien egiñak". Asmoaren zorrotik bizirik irten baledi, bakoitz eta guzientzat onurakor, noski. g) Euskerazko jakintz-itx ez-ezagunen alboan erderazko ala latiñezkoak jartzeak ez al luke asko arkituko, gai ta itzak erabiltzen oitu gaitezen arte beintzat? Itzetik ortzera, ez noski, baiña noizean bein bidezko dirudigu.

h) Ari geran auzi ta atal ontan guzian txalogarri dirudigu "Bastarrika' ren" "Gizona, izaten-aburuaren oiñarri" idazlana. Mamiz ezetzik, euskal-idazkeraz ere ugari ta emen diogunaren neurriko. Jokabide burutsua, guzira ta osoan arturik.

Badioke batek: "lasatu ederrak artu dizkitek".... gu orrialdez-orrialde akats billa jardun geralakoan. Gure iritzia eskatu zitzaingunez gero, aztertzeari ekin genion, bai. Es orde, akats ta utsune billa berak pozgarri zitzaizkigula- koan. Orixe bear genun!!! Nola baño nola ederragotuari begira diogu, ta beraz, atsegin izan etzaizkigun zeaztasun eta us- keriak ere pillabu egin ditugu bakoitza bere ordeko zuzen- garri ta sendakin erantsiz "YAKIN" en zuzendaritzara bidal- tzeko. Oartu, ba, YAKIN' i onurakor gerta dakion eran aztertzen (critica constructiva) saiatu generala ta iñola ere ez andik koxk ta emendik koxk, zearo ez-egin naiean. .

Guk geron iritzira erabaki degu, jakintizeneri buruzko auzia. Bemaiote sail ontan bertan besteek berena. Denboran erabaki zuzen eta betea eman dezaiogun, argi batek eta argi besteak eztabaidaren bidez. Ez al litzaiguke bizi-garri ta argi-iturri gertatuko eztabaida (polémica) apur bat batasunera bidean? Baña, bete batsuna elburu degularik.

IV. GAÑONTZEKOA :

Aitatu ez ditugun lanak, ez ditugu iñolaz ere gutxietsi, izenez ta bakoizka gorai patu ez baldin baditugu ere. Bijoakizue gure txalorik beroena, txalo-zaratarik aune diena "Euskaltzale-batzarreko" aien antzekoa.

Gai atsegiñak arrotu dituzute, gai berri-berriak: "Mingabeko erditza". Egundaño euskeraz arrotu gabekoak: "Izakerak", "Izaten aburua" ta arrigarria! "Aita Santuaren Itza" ere lenbizikoz.

Bijoakizue, oinbestez, gure zorionik goriena!

LAZKAO'ko beneditarrak :

"....YAKIN aldizkariak berriz gure iritzi motela jakin nai al dezute? Obeagoa ezin. Euskera baratzeke apaiz ta praile gaien landara berri au ikusi ta gure begiak bete-tzea bat bateko izan zan. Eun orriko landara gañera! (Zugaitz dirudi) ta bai orri me, legun eta eder. Zer ote eguzkiak dirdai gozoz loratuko duanean?

Jan-tokian irakurri genun asieratik bukaeraño; jan-tokian miaztu genun euskal-apaiz gaien ezti gozoa. Ura poza, euskeraren aldeko ekiñaldi txalogarri auk ikustean! Euskalgurdi zarra teologi ta filosofi soro ta aldapa gaiztcetan ere ez dijoala motel bera! Ezagun da bai idi gazte ta burru-kalariak daramateka. Aurrera, jarrai ortan euskal-apaiz gai guziok. Ta batez ere, zuek, Arantzazu'ko gazteok, gure artean trebe ta bizkorrenak bai zaituegu. Zuek izan zerate gure akullu ta ezten. Eta etzaigu lotsakizun ori aitortzea, poz baño.

YAKIN aldizkariak gure iritzi beti apaiz eta praile gaien aldizkari bear du izan, bai gaur eta bai biar;

beti bizi, asmontzi, arroxka, jostalari, burrukalari, bere egille gazteen antzo. Bere orritan idatzi dezatela bakarrik apaiz eta praile ikasleek eta baita ere apaiz idazle berriak. Orrela euskal-apaiz gai gazteok izango degu nun uztu gure buru-biotzen izketa-miñak, amaika gogoaldi, biotzkada, amets... ta ori dena bildurrik gabe, lotsik gabe.

Bear degu noski euskal-apaiz eta praileok elizgaietaz aldizkari jator bat, inguruko errietako "L'ami du Clergé, Ilustración del Clero, Sal Terrae, Incunable," ta orrelakoen tankerakoa, bañan ori ezta ikasleen egitekoa, ikasiena baño. Bitartean gu gazteok, lenik euskal-arnasez bete ditzagun gure birrikak eta ondoren edotariko jakintz-soro ta aldapaetan bide egin dezaiogun euskal-gurdi zaarrari, euskera gure ele maiteari. Erderaz edaten ari geran jakintz-ur guzi ori, euskal-ardoan biurtu dezagun. Ardo berri orren ontzi, aldiz, YAKIN izango degu.

Baña ez degu uste YAKIN'ek erlijio-gaietaz bakarrik jardun bear lukenik; zergati ez filosofi ta teologiko jakintz gai guzietaz? Gazteiz'en lengo apaiz gai trebeek ateratzen ziguten KARDABERAZ tankerara? Erljio-intzaz busti gabeko gazteon baratzako loratxoak ez al dute argitara edo eguzkitara irten bearrik, itzalean ximeldu bear al zaizkigu?

Eta gañera ez al genjoke aldizkari oni izena aldatuko, bai JAKIN-ZALE, izendatuz obeto adieraztearren bere egille gazteen tankera ta joera; edo bai KARDABERAZ Gazteizko apaiz gaien asmokide gerala agertzearren? Esandakoen bide bertatik jarraituz, uste genuke YAKIN'ek azalean daraman "teologialarien jardunak" en orde, "apaiz ta praile gaien lanak" bear lukela, bestela pilosopilariak aserre izango ba'ditugu.

"Saski-naski"n ere emakume batzuei eragiten diezute beren lan ederrak azaltzeko; ez ote litzake obe lan oiek jardunean edo "Elkar-izketa"n jaso, aldizkari ontan apaiz gai bakarrak idatzi dezaten? Aldizkariaren sailketa ederki deritzaigu.

Besterik ez. Agur Jakinzale guzick, Agur Arantzazu'ko Amaren seme jatorrak. Zer derizkiozute?

GOGOAN ARTU !!!

1) Ordain-kontua:

Ontxen datorkizu irakurle atal-
txo mikatz ta itxusiena. Orainartekoa ezti eritzi bazaizu,
geraz ta gozekeriz ase ta goaituko ziñan, noski, ta ozpiñ pi-
tin bat atsegingarri izango zaizu derizkiot.

Nola bidali dirua? Askok egin digute galdera au.
Guk aldizkari bakoitza ordaindu bear degu. Txanponik ere
eztegu sobran. Juxtu-juxtu gabiltz. Dirua gañezka ba' genu
irarkolaz aterako genduke, baña.... Nik uste korreoz dala e-
rrezena sobre batean sartuta. Ezta? Nai badezute urte gu-
zikoa aurretik, baña adierazi urte guzikoa dala, bestela
eskuèrakutsi bat bezela artuko genduke! Bestela aldizkari
bakoitzeko 10 pezta. Ba-dira lenengoa ordaindu eztutenak.
Lotsez baña... guk ere ordaindu bearrean gaude, ta
Batez ere lots damaigu lankideei kobratzea, baño oraingoatik
gauza altxa dediño ala izan bearko da. Ez gera beintzat ne-
goziotan ari, ta nik uste denak borondate onez ta biotzez
ordainduko dutela apur ori. Eskerrik asko!


2) Idazlan-kontua:

Noizko? Lenbaitlen! Alik
laisterren! San Jose egunerako emen eduki nai genituzke. Al
izatean makiñaz kopiaturik bidali ta utsuneak zuzenduta, bes-
tela askotan gerta oi da ezta kigula akats oiek "lapsus" di-
ran edo benetako utsuneak! Ta bestalde, eskuz bidaltzen ba-
dituzute asti luezeago igaro bearrean gaude kopia-lanean.
Gaiak? Aukeran. Sailketa ezagutzen dezute ta bakoitzak
bidali beza gogoak damaiona.

"YAKIN"

A M A I A

TEOLOGILARIEN YARDUNAK



2'GN ZENBAKIA

